

# TXOSTENA

2023ko

Bene Bergado, Urritu ©Elsie Ansareo

**Bilbao**

gizartea eta kultura garaikidea  
sociedad y cultura contemporánea  
society and contemporary culture

**AZKUNA  
ZENTROA  
ALHÓNDIGA  
BILBAO**



# AURKIBIDEA

## AURKEZPENA

Kultura, funtsezkoena	7
Hausnartu eta berritu, aurrera egiteko	9
2019-2023 Programa Proiektua	11
Nor garen	14
Gure ekarpenak eta aktiboak	16
Garapen Jasangarriko Helburuak zeharkatzen dituen kultura-programazioa	22

## PROGRAMAZIO-ILDOAK

Arte bisualak	26
Zinema eta ikus-entzunezkoak	60
Arte biziak	70
Literatura	86

## PROIEKTU ESTRATEGIKOAK

Sorkuntza artistikorako proiektuak	101
Arte eta kultura garaikideko praktika eta teoriako Masterra EHU-UPV	109
Az irratia. Azkuna Zentroko irratia	110
artxiboAZ	111
Argitalpenak	112
Bitartekaritza eta hezkuntza	113
Harreman instituzionalak. Nazioarteko proiektzioa	116
Publikoen komunitateak. Erabiltzaileentzako arreta	118
Lantegia. Ideien Laborategia	119
Hobetzeko planak	120

## ZERBITZUAK


Mediateka BBK	123
dendAZ. Azkuna Zentroaren saltokia	125
Ekitaldiak. Espazioen kudeaketa	127
Jarduera Fisikoaren Zentroa	130
Golem Alhóndiga	133
Ostalaritza	135

## ADMINISTRAZIOKO KONTSEILUA ETA AZKUNA ZENTROKO TALDEA

137

## ESKERRIK ASKO


138



## Etorkizunerako kultura-ondarea eraikitzen ari gara



Teatro Djo. *Deus Ex Machina* (Prototipoak Bilbao Azkuna Zentroaren Forma Artistiko Berrien Nazioarteko Bienala)



Ayşe Erkmen. *Myself on site* (Prototipoak Bilbao Azkuna Zentroaren Forma Artistiko Berrien Nazioarteko Bienala)

# KULTURA, FUNTSEZKOENA

Bilbok duen kulturako programazioa zabala, askotarikoa, desberdina eta eskuragarria da, eta gero eta publiko gehiagorengana iritsi nahi dugu harekin, kultura-edukiak herritarrengana hurbiltzeko, legegintzaldi honetako Udalaren Agintaldiko Planean ezarritako moduan. Plan horrek apustu sendoa egingen du hirian 365 egunetan kalitatezko aisialdia eta kultura izateko, goi mailako programazioarekin, bertako kultura-eragileen eta estatuko eta nazioarteko konpainien eta artisten bidez.

Kultura funtsezkoa da udalaren ekintzan, tresna erreala eta eraginkorra baita kohesioa eta eraldaketa soziala lortzeko. Orobat, funtsezkoa da bertako jarduera bultzatzeko, Bilboren nazioarteko irudia proiektatzeko, pertsonen parte-hartze aktiboa sustatzeko, hiriak dituen aktibo kulturalak balioesteko, jarduera berriak erakartzeko eta sektorea garatzen laguntzeko.

Bide-orri horretan, ezinbesteko garrantzia dute kultura-eragileek, besteak beste, Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaok. Bilboko Gizarte eta Kultura Garai-kidearen Zentroak lengoia artistikoak eta diziplinak zeharkatzen dituen programazioa eskaintzen du, berdinak eta desberdinak direnak jartzen ditu harremanean, prestakuntza eta heziketa eskaintzen du praktika artistikotik abiatuta, eta zeharkatu egiten ditu arrazak, hizkuntzak, geopolitika eta identitatea, forma guztietan... Programazioak arreta handia ematen dio egungo euskarazko sorkuntzari eta berdintasunari, eta bitartekaritza eta hezkuntza ditu baliabide ezagutza kritikoa sortu eta gizarte eraldatzeko, artearen eta artisten bidez.

Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbao leku irekia eta dibertsoa da; bertan publikoen komunitateek aukera dute jardueren eskaintza zabal batekin esperimentatzeko. Hola bilakatu da zentroa espazio bizi, aldakor. Era berean, sorkuntza artistikoa bultzatzen

du, sormen-prozesuak indartuz eta pertsonen laguntza emanez proiektuak egiteko. Kontu guztiz erabakigarria, gizarteak aurre egin beharreko aldaketak aintzat hartuta Gaur egun, Azkuna Zentroa artearen, artisten eta herritarren habitat bat da, sorkuntzaren inguruko ikerketa, garapen eta berrikuntzarena.

Era berean, ezinbesteko kolaboratzailea da, Bilbok nazioartean goi mailako kultura-erreferente bihurtzeko egingen duen apustuan. Azken bost urteotan, areagotu egin du Europako sare batzuen aktibazioa, bertako zein beste herrialde batzuetako sortzaileen, profesionalen, eragileen eta instituzioen arteko epe luzeko trukea eta lankidetzak sustatzeko eta errazteko.

Sarean jarduten du ehundik gorako zentro eta erakunde kulturalekin —horietatik 40 nazioartekoak—, eta 40 programa kultural baino gehiago ditu beste erakunde batzuekin lankidetzan. Itun horiei esker, Azkuna Zentroa Europako erakusketa-zirkuituan sartu da, bertako herritarren gozameneko eta, orobat, kultura-turismo jasangarria garatzeko. Hortaz, ezinbesteko elementu dinamizatzailea da, hirian bultzatu nahi dugun eta nazioarteko bokazioa duen kultura garaikidean.

Gainera, Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaoren jarduerak zuzenean laguntzen du Nazio Batuen 2030 Agendan eta Bilboko Udalaren Balioen Gutunean ezarritako Garapen Jasangarriko Helburuak lortzen. Izan ere, ziur gaude artea gai dela balio berriak sustatzeko eta behar den sormena ekartzeko gizateria garatzen laguntzeko.



Ainhoa Lekerika. *Deep wishes, promises and hopes* (Prototipoak Bilbao Azkuna Zentroaren Forma Artistiko Berrien Nazioarteko Bienala)



# HAUSNARTU ETA BERRITU, AURRERA EGITEKO

2023an Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaok kultura-jarduerak izan ditu urteko egun guztietan. Horra hor Bene Bergado eskultore bilbotarraren *Urritu* erakusketa, zentroaren historian bisitari gehien izan duena. Horra hor zinema-proposamenak, bertako eta nazioarteko sorkuntza garaikidean eta horrek beste diziplina artistiko batzuekin duen harremanean oinarrituak. Horra arte bizien denboraldi egonkorra, egungo eszenako lanik berritzaileenak ikusteko aukerarekin. Eta Gutun Zuria Bilbao jaialdia, hitzaren inguruko urteroko topagunea, literatura garaikidearen erreferenteekin eta egungo narratibaren ahots berrieekin. Eta Prototipoak topaketa, Forma Artistiko Berrien Nazioarteko Bienala, lengoia eta praktika artistiko berriak erakusten dituena diziplinarteko ikuspegitik. Eta zentroan egonaldia duten artistak, beren prozesuak ekoitziz eta Azkuna Zentroko publikoen komunitateei erakutsiz. Azken batean, lengoia garaikideak sustatu eta hedatu nahi dituen programazio bat.

Duela bost urte, 2019-2023 Programa Proiektuaren bidez, proposatu zen Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbao bilaka zedin Bilboko Gizarte eta Kultura Garaikidearen Zentroa, begirada bertan eta nazioartean jarririk, eta publikoen komunitate desberdinekin jarduteko zabalik.

Helburua bete egin dugu, programazioa erdian jarritz, arteari espazio gehiago irekiz, eta Azkuna Zentroa sendotuz, sorkuntza artistikoa sustatu eta laguntzeko leku gisa, Lantegia gure ideien laborategi berriaren bidez; Mediateka berrituz, XXI. mendeko liburutegia izan dadin; programa berriak abiaraziz eta nazioarteko sare berriak ehunduz.

Kopuruek bermatu egiten dute ibilbide eta proiektu hori, etengabeko eraldaketan oinarrituta dagoena, aldian aldiko egoeretara egokitzeko aukera eman diguna.

Alabaina, aldi honetan, gehienbat, hau izan da gure eginkizuna: eztabaidak piztu gizartean; kultura proposatu praktika partekatu gisa, prozesu dinamiko eta sortzaile gisa, aldi berean bakarra eta kolektiboa den esperientzia gisa; sorkuntza garaikidea eta proiektu berrien sorrera sustatu; zentroari lotutako komunitate artistiko bat sortu, eta publiko berriengana iritsi.

Horren guztiaren ondorioz, Alhóndiga egunero barrura sartzen diren pertsona guztien parte da. Horregatik, orain, Programa Proiektuaren lehen zatia ixten ari dela, ebaluatu eta birpentsatu behar da lan hori guztia, ilusioz eta forma berriak planteatzeko eta berritzeko asmoz, hala testuinguru artistikoan, nola sozialean.

Oraindik bide luzea dugu egiteko eta hazten jarraitzeko, maila on horri eusteko. Dena dela, zalantzarik gabe, zentro hau garai berrietarako prestatuta dago, gizarteak eskatzen duen maila du: kulturaren irisgarritasuna, eskubide kulturalak, euskarri berriak, lengoia berriak, belaunaldien arteko arloa... bete-betean gauzatutako errealitatea dira Azkuna Zentroan.

Gaur egun, Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbao arte eta kultura garaikidea sortzeko, ekoizteko eta zabalteko zentro bat da. Eta, beraz, etorkizuneko kultura-ondarea eraikitzen ari da.



# 2019-2023 PROGRAMA PROIEKTUA

2019-2023 Programa Proiektua eredu berri bat da, kultura garaikideari praktika, prozesu eta esperientzia gisa heltzeko, gizartearekin etengabeko elkarrizketan eta forma artistiko berrien bidez.

Pertsonak dira Azkuna Zentroko bizitzaren muina, gizartea eta kultura garaikidea uztartzen dituen “lokailua” baita, eta eragina baitu ingurunean, gizartea sortzaile, kritiko eta askotarikoagoa izan dadin lortzeko. Hori guztia, eraldaketan oinarritutako proiektu dinamiko baten bidez. Programazio osoa erabiltzaileei, ikus-entzuleen komunitate desberdinei zuzenduta dago, eta modu desberdinak bultzatzen ditu Zentroa esperimentatzeko eta bisitatzeko.

Programa Proiektua dagoen planteamenduaren azterketa batetik sortu da, bost urtean garatu beharreko plan estrategiko bat eraikitzeko, egungo ikuspegira egokitutako lan-ildo berriekin.

Emaitza gisa, programazio kulturalako ildoak finkatu dira, elkarren arteko harremanean, hizketan eta etengabeko mugimenduan, artistak oinarritzko ardatz gisa hartuta: Arte bisualak, arte biziak, zinema eta ikus-entzunezkoak eta literatura, hezkuntza eta bitartekaritza zeharkako ardatz gisa hartuta.

Hona hemen gure ildo estrategikoak:

## 1. Gizarte eta kultura garaikidea erdian

Ildo estrategiko nagusia da, gainerako guztien elkargune. Lehentasunezkoa da gizartea eta kultura Azkuna Zentroaren oraingo eta etorkizuneko jarduera guztien erdian jartzea. Artisten aldeko apustua egiten du, eraldaketaren sortzaile diren aldetik.

## 2. Azkuna Zentroa, irekirik eta konektatuta

Loturak barruan eta kanpoan sustatzen ditu, sareak sortuz, bertatik nazioartera joz, eta espazioak eraikitzen ditu, sortzeko, partekatzeke, hitz egiteko, eztabaidatzeko, ikasteko eta aztarnak uzteko.

Eraikin osotik hedatzen da programazioa, eta, horrela, ohiko espazioek balio gehiago hartzeaz gain, toki berrietara iristen gara:

- 3 Erakusketa-espazioak: Erakusketa Areto nagusia -2 solairuan, Mediateka Galeria Mediateka BBKn eta BAT Espazioa Lantegia. Ideien Laborategian.

- 2 Arte bizietarako espazioak: Auditorioa eta Kubo Baltza
- 1 Ekoizpen artistikoko zentroa: Lantegia. Ideien laborategia
- 1 Mediateka sorkuntza artistikorako, ikaskuntzarako eta esperimentaziorako
- 1 Osasunerako Jarduera Fisikoko Zentroa
- Terraza eta fatxada ere arterako espazioak dira.

## 3. Erabiltzaileengana zuzendutako ikuspuntu berria

Kontua da erabiltzaileen esperientziez berriz hausnartzea. Azkuna Zentroa esperimentatzeko modu berria sortu, dibertsitatea eta ikus-entzuleen komunitateak kontuan hartuz, haien beharrianak landuz, Azkuna Zentroa bisitatzeko modu berriak proposatuz, hobetzeko moduko esperientzia eraldatzaileak bizitzeko.

## 4. Ikus-entzule berriak hizketan aritzeko

Modu berriak asmatu, egungo eta etorkizuneko ikus-entzule berriekin komunikatzeko eta haiekin hizketan aritzeko. Informazioa haiengana hurbildu, elkarrizketak sortu, bilatzen gaituzten lekuetan egon, eta bilatzen ez gaituzten tokietan konplize, tresna, baliabide eta leku bat izan, auzoekin, komunitateekin eta ikus-entzuleekin konektatzeko.

## 5. Barneko mugimendua hobekuntza positiboa lortzeko

Elkarrekin lan egiten ikasi eta horretarako modu berriak sortu, era zeharkakoagoak, sortzaileagoak, geure metodologia eta tresnak euskarritzat hartuta; eta talde-lana eta harremanetan jartzeko eta elkartzeko modu berriak sustatu.

# 2023

## **ARTE ETA KULTURA GARAİKIDEA SORTZEKO, EKOIZTEKO ETA ZABALTZEKO ERREFERENTZIAKO ZENTROA**

2019-2023 Programa Proiektuaren azken urtera iritsi gara, helburu gehienak beteta eta gizartea arte bisualen, arte bizien, zinemaren eta ikus-entzunezkoen eta literaturaren lengoia garaikide berriekin lotzen duen programazio egonkor batekin. Zentroan sortzen eta ikertzen duen arte-komunitateak gora egiten jarraitzen du, prozesuak eta emaitzak publikoaren komunitateekin partekatuz. Gainera, 2023an, aurrera egin da zentroaren nazioartekotzeko prozesuarekin eta Europako antzeko espazioekin lankidetzan arituz.

## **PROGRAMAZIO HEDATUA, FORMATU BERRIAK**

Azkuna Zentroaren kultura-programazio 200 jarduera baino gehiagorekin osatu da 2023an. Jarduera horiek arte bisualen, arte bizien, zinemaren eta ikus-entzunezkoen eta literaturaren arteko bidegurutzearan garatzen dira.

Arte bisualen proiektuak nabarmentzen dira, Juan Luis Moraza artistak komisariatutako Bene Bergado eskultorearen *Urritu* erakusketa. 34.000 bisita baino gehiago izan ondoren, *site specific* hau Azkuna Zentroaren historiako erakusketarik ikusienetako bat da. Ekintzarako dei hau *Lur erre*a bezalako eskulturen eta instalazioen bidez antolatzen da. Azkuna Zentroak erakusketa honetarako ekoiztitako pieza da hori.

eszenAZ Azkuna Zentroaren Arte Eszenikoen Denboraldiaren bidez, 14 ikuskizun programatu dirau, besteak beste, gaur egungo eszenako lanik berritzaileenetako batzuk, bertako eta nazioarteko artista eta konpainien eskutik, hala nola Alberto Cortés, Poliana Lima, Macarena Recuerda eta Estudio Gheada-rekin. Musika esperimentalaren eta soinu-artearen erreferenteak ere izango ditugu: Erikm, Dieb13, John Richards, Myriam Rzm, Sergio Luque eta Juan Carlos Blancas musikariak eta artistak.

Esperimentazioa da, 2023an ere, zinema-programazioaren ardatz nagusia, eta 40 saio baino gehiago egin dira. Azpimarratzekoak dira *Somewhere From Here To Heaven* erakusketaren inguruko zinema esperimentaleko zikloak, nouvelle vague-ko erreferente den Jean-Luc Godard-en atzera begirakoa eta Japoniako ikus-entzunezko aberastasuna erakutsi duen zinema japoniarraren zikloa.

Programazio hori guztia beste formatu batzuen bidez zabalduko da, esaterako, AZren podcast eta streamingaren bidez, eta kultura esperimentatzeko forma garaikide berriak proposatu eta publiko berriengana iritsiko da. Eta hezkun-

tza eta bitartekaritza kulturalarekin, programazioaren zeharkako praktika eta gogoeta partekatuko prozesu gisa ulertuta, artearen eta espazioaren beraren inguruko esperientzia berriak bultzatzeko.

2023an, Prototipoak Bilbaok, Azkuna Zentroaren Forma Artistiko Berrien Nazioarteko Biurtekoak, lengoia garaikideen sustapen eta hedapenean oinarritutako programazioa finkatu du. Topaguneak izabaltzen ditu artisten eta publikoaren komunitateen artean, eta esperientzia paregabeak sortzen ditu. Edizio honetan bertako eta nazioarteko artistek eta konpainiek hartu dute parte, hala nola, Ayşe Erkmen (TR), Iratxe Jaio + Klaas Van Gorkum (EH/NL), Fermín Jiménez Landa (ES), Gilles Jobin (CH), Ainhoa Lekerika (EH), Laida Lertxundi (EH), Teatro Ojo (MX), Orangcosong (JP), Susana Velasco (ES) eta Ramón Williams (CU/AEB).

## **SORKUNTZA ARTISTIKOAREN ERREFERENTEA**

Sorkuntzari laguntzeko zazpi programen bidez, karrera erdiko ia hogei artistak proiektu eta ikerketa artistikoak garatu dituzte zentroan, lengoia artistiko desberdinak landuz, hala nola antzerkigintza, performatibitatea, grafikoa eta instalazio eskultorikoa; zinema, bideoarte eta new media. 2023an, Lantegia, Ideien Laborategian, Azkuna Zentroko ikertzaile AZkide batzuk (Isabel de Naverán eta Aimar Arriola) eta Azkuna Zentroko artista AZkide batzuk egon dira (Elena Aitzkoa, Ion Munduate eta Miguel A. García) eta Babestu. Sorkuntzari laguntzeko Programako egoiliarrik bai, hala nola Estanis Comella, Pablo Marte, Julia Martos, Oihana Vicente eta Maia Villot de Diego.

Lanean programaren bidez, Lari Produzioak, Miren Gaztañaga, Oscar Gomez Mata, Led Silhouette, Pablo Viar, Tripak, Nazario Díaz, Ziomara Hormaetxe, Ça Marche, Las tesis eta beste konpainia eta artista batzuek beren sorkuntzen parte bat prestatu dute, eta horietako batzuk eszenAZ denboraldiaren barruan aurkeztuko dira.

Nazioartean, 2023an, Komikiaren Nazioarteko Egonaldiaren bigarren edizioa egin da, Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaok hautatutako Andrea Ganuzarekin, Cité Internationale de la Bande Dessinée et de L'image de Angoulême hautatutako Clara Chotilekin eta Quebecoko Maison de la Littérature hautatutako Charlotte Gosselinekin. Esperientzia aitzindaria da Euskadin, eta nazioarteko kultura-plataforma baten abiapuntua ere bada, obra grafikoaren esparruan sormena bultzatzeko eta egileei beren sorkuntza-prozesuetan laguntzeko.

## NAZIOARTEKO SAREAK

2019-2023 Programa Proiektuaren ardatz estrategikoetako bat nazioartekotzea da, eta, hori hauspotzeko, sortzaileen, profesionalen, eragileen eta tokiko eta beste herrialde batzuetako instituzioen arteko epe luzeko trukea eta lankidetzatza sustatzen eta errazten duten sareak erabiltzen dira. Horrela, sorkuntza garaikideko egonaldien programaren bidez, hurbileko sormen-sarea nazioarteko kultura-ingurune homologagarriekin lotzen da, trukeak, harremanak eta lankidetzatza iraunkorrak eta elkarrekikoak bilatuz.

Gainera, joan-etorriko jarduera instituzional bizia egiten da, munduko hainbat lekutako bienal, azoka eta kultura garaikideko zentroetako arduradunekin elkartzeko, eragile sortzaileen eta ICCen nazioarteko harremanak areagotzeko helburuarekin.

2023an, Azkuna Zentroak ACuTe. Culture Testbeds for Performing Arts and New Technology proiektuaren partner gisa egingo duen lehen egonaldiak izan dira. Europako berrikuntzako proiektu honek arte eszenikoak ekoizten ditu, azaltzen ari diren teknologien bidez, eta kultura-lankidetzako eta gaitasunak garatzeko modu berriak ezarriz.

Det Norske Teatret Oslo (Norvegia) eta Craiovako National Theatre Marin Sorescu (Errumania) taldeek beren ekoizpen eszenikoak probatu dituzte zentroan, diziplina askoko ikuspegiarekin, eta bilerak egin dituzte dramaturgia, eszenografia eta teknologia berrien arloko bertako profesionalekin.

Europako Batzordearen finantziazioa duen proiektu horretan, Azkuna Zentroak partner estrategiko gisa parte hartzen du, Europako erreferentzia kulturaleko 14 erakunde eta zentrokekin batera; horien artean, nabarmentzekoak dira Europako ETC antzoki-sarea, Graz, Linz, Craiova, Nova Gorica, Oslo, Lieja, Tallinn eta Amsterdameko antzokiek osatua; Ars Elektronika arte, teknologia eta gizarte-zentroa; Dortmundeko antzerkiaren digitalizatzearen aldeko akademia, eta Herbehereetako eta Finlandiako zientzia aplikatuetako bi unibertsitate.

Gainera, Azkuna Zentroak Harbours for Arts & Culture proiektua garatzen jarraitzen du, arku atlantikoaren lotura geografikoagatik eta kulturaren aldeko apustu argia egiteagatik Bilborekin homologoak diren hiriekin kultura-sinergia berriak sortzeko: Porto, Bordele, Anberes eta Rotterdam. Laurak, Bilborekin batera, zerbitzu-hiri bihurtutako hiri industrializatuen bilakaeraren eta berrikuntzaren adibide dira. Guztietan sortu dira kultura garaikideko eta sorkuntza artistikoari laguntzeko zentro eta espazio berriak, eta leku enblematiko bilakatu dira.

Aukerak aztertu eta mapatu ondoren, proiektuaren bigarren aldiari ekin diogu, hiri horietako kultura-zentro, programa eta instituzioekin prospekzioak eginez, eta haiekin harremanetan jarriz, zentroaren hurrengo urteetarako programazioari begira lankidetzatza-proiektuak jorratzeko.

# NOR GAREN

## **GURE EGINKIZUNA**

Gure eginkizuna da loturak sortzea pertsonen eta kulturaren artean, ingurunean eragiteko, eta gizarte kritiko, sortzaile eta askotarikoagoa eraikitzen laguntzeko.

Kultura garaikidea praktika gisa, prozesu gisa, artisten, agente eta komunitate artistikoen bidez eta programazio-eredu hibridoekin esperientzietarako espazio gisa bizitzeko lekua da Azkuna Zentroa.



Bene Bergado. *Urritu* ©Elssie Ansareo

## **GURE IKUSPEGIA**


Gure ikuspegia da Azkuna Zentroa espazio publiko askotarikoa eta gizarte eta kultura garaikidean erreferentea izatea, hala hemen nola nazioartean. Lurraldean eta bertan bizi diren pertsonengan eraldaketa eragingo duen epizentroa izatea.

## GURE BALIOAK

Hainbat balio lantzen ditugu: iraunkortasuna, ekonomiari eta energia-eraginkortasunari dagokienez; espaziorako eta programaziorako irisgarritasun unibertsala; eta berdintasuna, pertsona guztientzako gunea sortuz.



## GURE LAN-ILDOAK




# GURE EKARPENAK ETA AKTIBOAK

Hiriko proposamen kulturala zabaldu dugu, arte garaikidea, kultura eta jakintza eskuratzen lagundu baitugu. Gizarteak kultura garaikidearekin duen harremana berrikusi dugu, eta programazioa eta esperientziarako eta pentsamendurako espazioak aktibatu. Zentroak 5 aktibotan egiten duen ekarpena neurtzen dugu:



## 01. GIZARTEA



## 02. ARTEA ETA KULTURA

Elena Aitzkoa.  
*Ur Aitzak*




## 03. HIRIA



## 04. HARREMANAK

ACuTe. Culture Testbeds for Performing Arts  
and New Technology



## 05. EKONOMIA





# 01. GIZARTEA

## ZER

Gizarte kritikoagoa, sortzaileagoa eta askotarikoagoa eraikitzen laguntzen dugu, programazioaren bidez eta publikoen komunitateen arteko lotura errazten duten espazioen bidez.

## NOLA

Esperientziak eta eztabaida publikoa eskaintzen ditugu gure gizartearentzat funtsezkoak diren arloetan, eta publikoen komunitateen jakin-mina sustatzen dugu, jakintza kritikoa sortzeko eta artearen eta artisten bidez gizartea eraldatzeko.

## ZENBAT

8.669

bisitari egunean

303

parte-hartzaile egunean programatutako jardueretan

70.584

parte-hartzaile online-programazioan

4.299

jaulkiriko AZ txartelak

4.481

parte-hartzaile bisita gidatuetan (Zentroan, Erakusketetan, Mediateka BBK-n)

# 02. ARTEA ETA KULTURA



Elena Aitzkoa. *Ur Aitzak*

## ZER

Lankidetzako komunitate profesionalak sortzea, arte- eta kultura-sektorearen harrobia izan daitezen, hain zuzen, alderik sortzaileena.

## NOLA

Kontaktu, ideia-truke, prozesu eta proposamen artistikoen bidez kultura garaikidea ekoizteko espazio bat eratuz. Eta presentakuntzako proposamenak garatuz, jakintza garaikidea sustatzeko eta azaltzen ari diren profesionaleri laguntza emateko.

## ZENBAT

271

jarduera Azkuna Zentroak programatuta

382

artista eta beste profesional

42

artista, artista-kidea eta ikertzaile egoilarra

16

erakusketa eta Instalazio artistikoa

53

bitartekaritza eta hezkuntza jarduerak, tailerrak

37

zuzeneko ikuskizun

52

film jatorrizko bertsioan



## 03. HIRIA / BILBO

ZER

Bilbo kulturaren eta jakintzaren hiri gisa kokatzen laguntzen duen ekosistema kulturalaren parte gara, 2030eko Agendaren garapen iraunkorraren helburuekin bat etorritz.

Kultura irekia eta integratzailea sustatzeko Euskadik duen strategiaren parte gara, nazioartean presentzia handiagoa lortu nahi duena, sorkuntza artistikoa eta euskal kultura- eta sorkuntza-industriak bultzatuz.

NOLA

Sarean lan eginez lehen mailako espazio eta proiektu garaikideekin, eta jarduera instituzional bizia garatuz, munduko hainbat tokitako bienal, azoka eta kultura-zentroetako arduradunekin elkartzeko, nazioarteko harremanak zabaltzeko xedez.

ZENBAT

**3.164.249**

pertsonak bisitatu zuten Azkuna Zentroa 2022an

**110.719**

pertsonak parte hartu dute programatutako jardueretan

**84%**

Jarduera Fisikoko Zentroko sarbideetatik Bilbokoak dira

**70%**

AZ txartela duten irakurleen % 70ek Mediateka erabiltzen du irakurleen profila adinaren arabera:

- Helduak - 25 eta 45 urte bitartekoak ( % 40,5)
- Haurrak - 8 eta 12 urte bitartekoak ( % 30)

**304.489**

ikusle Golem Alhondiga zinema-aretoetan

# 04. HARREMANAK



ACuTe. Culture Testbeds for Performing Arts and New Technology

## ZER

Tokiko eta nazioarteko kontaktuak eta harremanak garatzen laguntzen dugu, Alhóndiga hedatuaren kontzeptuarekin, berrikuntza, nazioartekotzea eta finantza-konpromisoa eskaintzen baitigu.

## NOLA

5 mailatako lokailuak gara: programazio-zentroyen sarea, artisten sarea, babesleen eta laguntzaileen sarea, publikoen komunitateen sarea eta hornitzaileen sarea.

## ZENBAT

65

kultura-zentro eta -erakunde garaikide

20

nazioarteko kultura-zentroa

6

kultura-instituzio eta -institutu

7

unibertsitate

19

lankidetzako kultura-programa



# 05. EKONOMIA

## ZER

Azkuna Zentroa eragile aktiboa da Bilbo nazioartekotzeko eta gure inguruko kultura-sarearen bidez tokiko ekonomia bultzatzeko.

## NOLA

Zentroaren autofinantzaketa maximizatzeko lan egiten dugu, babesleen eta erakunde laguntzaileen ekarpenaren bidez, bai eta gizartearentzat interesgarriak diren zerbitzuen bidez ere.

## ZENBAT

**32,48%**

% eko autofinantziazioa (Jarduera Fisikoaren Zentrotik, DendAZetik eta Kultur Programaziotik datozen diru-sarrerak, babesak eta diru-laguntzak)

# LARRIALDI KLIMATIKOA ETA SOZIALA PROGRAMAZIOAREN ERDIGUNEAN

Berez garapen jasangarriaren helburu bat izan gabe, kultura ezinbesteko elementua da 2030 Agendaren helburuan: zibilizazio jasangarrirako trantsizioa egitea, naturarekin eta izaki bizidun guztiarekin arduratsua eta inklusiboa, pertsona guztientzat ongizatea lortzeko planetaren mugen barruan. Mundu-mailako konpromiso garrantzitsu eta erabakigarri horren ildotik, bai eta Bilboko Balioen Gutunean jasotako beste batzuen ildotik ere, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoren programazioak ibilbide-orri global horretan ezarritako ia helburu guztiak betetzen ditu, gizartearekin lotu eta hura eraldatzeko funtzioetik abiatuta, eta ondo sinetsita artea gai dela balio berriak sustatzeko eta gizadia garatzen laguntzeko behar den sormena emateko.

Ildo horretan, Azkuna Zentroak eztabaidak zabaldu ditu gizarte garaikidearen errealitateari, dibertsitateari eta aniztasunari buruz, eta xehe aztertu ditu praktika artistikoak egungo mundua berriz irudikatzen eskaintzen dituen aukerak, formatu askotarikoetan garatutako bere lau programazio-ildoen bidez eta hizkuntza sortzaile berrien bidez. *Prototipoak Bilbao. Forma Artistiko Berrien Nazioarteko Biurtekoak* postulatu horiek guztiak biltzen ditu. 2023ko edizioan, Prototipoak biurtekoak arreta ematen die Azkuna Zentroa-Alhóndiga Bilbaon gertatzen denaren esperientziak sortzen dituen emozio sozialei, pentsamenduei eta sentimenduei, eta pertsonen bizitzan eragiteko duen moduari. Horrez gain, apustu egiten du zentroko espazioa, hiri-espazioa eta landa-aldekoa, naturala eta artifiziala, biologikoa eta robotikoa "bir-naturalizatzearen" alde, kultura eta gizartearen iraganari eta etorkizunari buruzko hausnarketa berri baten bidez.

## ARTE BISUALAK

Larrialdi klimatikoari aurre egiteko beharrak Agenda 2030ek ezartzen dituen garapen jasangarriaren helburuetatik 17 zeharkatzen ditu ia. Hazkunde ekonomiko inklusiboa eta jasangarria behar da, energia eskuragarri eta ez-kutsatzaileen sistemak garatu behar dira, berrikuntza, ekoizpena eta kontsumo arduratsua ere bai, eta klimaren, urpeko bizitzaren eta lurreko ekosistemen aldeko ekintza irmoa.

Bene Bergadok hori guztia biltzen du 2023an Azkuna Zentroan ikusgai izan duen *Urritu* erakusketan. Eskultore bilbotarraren ekintzarako deia eskultura, bideo eta instalazioetan

objektibatzen da. Horiek egungo gizartearen ekoizpenaren eta kontsumoaren hazkunde esponentzial eta mugagabearen errealitatearen aurrean jartzen dituzte bisitariak.

Erakusketak eta hari lotutako hezkuntza-jarduerek publikoaren komunitateei ohartarazten diete ezinbesteko trantsizio energetikoak ekarriko duen bizi-aldaketaz, gorde ezin diren eta hazi ezin daitezkeen energia berriztagarri eta teknologiko mugatuekin egingo baita trantsizioa.

Proiektuak egin behar diren errotiko aldaketa sozio-politikoak azaltzen ditu, eta, hor, arteak eta artistek, beren lan-prozesu integratzaileekin, bide batzuk erakutsi eta ikusarazi ahal dituzte, alferrikakoaren gehiegizkoaz desintoxikatzen eta horren ohiturak desegiteko.

Espazioari eta hiriei buruzko begirada kritikoa da, era berean, *Behatokiaren* oinarria. Urbanbatek Azkuna Zentroko kolektibo egoiliar gisa proposatutako Behatokiak hausnartu nahi du arteak eta kulturak nola egin dezaketen ekarpena bizigarritasun-baldintzak hobetzeko eta hiri-erronkak artearen eremutik erakusteko.

Gizarte sentikorragoak eta inklusiboagoak sortzeko irrikak ere goitik behera zeharkatzen du lan artistiko garaikidea. Elena Aitzkoa eta antzeko sortzaileak arlo fisikoaz eta emozionalaz elikatzen dira eraldaketa sozialak proposatzeko. *Ur aitzak* proiektua garatu du Aitzkoak bi urtez Azkuna Zentroko artista AZkide gisa, eta ura eta ahotsa ditu oinarri. Atarian sortutako eskultura-multzoak erantzuna ematen dio herritarrekin nahasteko eta, nolabait, pertsonen eraldaketa sentikorraren parte aktiboa izateko desirari eta aukerari.

Izan ere, artea gai da egoera pertsonal eta bizi- eta kultura-egoera desberdinetatik iritsitako pertsonen arteko lotura islatzeko. Mediateka Galerian aurten erakutsi den *Ulises 2.0* marrazki- eta ilustrazio-erakusketa horren adibide ederra da.

"Odisea ilustratuen" erakusketa honetan, 13 herrialdetan jaio eta 25 hiritan bizi diren pertsonen elkarrizketa grafikoak osatu dituzte, nork bere lekutik abiatutako bidaia zail horren inguruan. Esperientzia honek sentsibiltate eta enpatia jotzen du migrazioen zergatiak dakarren drama jorrazteko.

## ARTE BIZIAK

Bestalde, zentroaren proposamen eszenikoa hazkunde positiborako pentsatuta dago, egiten duenaren esperientzia eta presentzia gisa, baita begiratzen duenaren, interpe-



Ramón Williams. *Museum Traces* (Prototipoak Bilbao Azkuna Zentroaren Forma Artistiko Berrien Nazioarteko Bienala)

tzen duenaren eta interpelatua denaren esperientzia eta presentzia modura ere, dibertsitatea ikusaraziz eta berdintasuna bilatuz.

Denboraldi honetan, artistek eta konpainiek artearen eta zientziaren arteko harremana transferitzen dute beren muntaietan, testuinguru eszenikoetan adimen artifizialaren, biologiaren, matematikaren eta psikologia esperimentalaren abstrakzioak txertatuz. Eta nola desegiten diren diziplinen arteko mugak, testura eszenografiko berriak sortuz.

### ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK

Azkuna Zentroko Zinematekak eta zentroan egiten diren hiriko jaialdiek kontzientziazioa sustatzen dute aldaketa soziala lortzeko, ondo sinetsirik desberdintasuna balio bat dela eta marjinaltasuna –bazterrean eta periferian dagoena– zentrala baino positiboagoa eta, batez ere, jasangarriagoa izan daitekeela. Esperimentazioa, inkonformismoa, ezarrita dagoenarekiko desafio etengabea izan dira 2023ko ikus-entzunezko programazioaren haria, *Somewhere form here to heaven* zinema esperimentaleko zikloaren, Jean-Luc Godardi buruzko atzera begirakoaren eta *Mangatik zinemara*. Japoniako zinema-zikloa programaren bidez.

Bestetik, Zinemakumeak gara!, Zinegoak, Zinema Ikusezina eta Zinexit jaialdiek funtsezko oinarriak jartzen dituzte agerian mundu baketsu, oparo eta jasangarria eraikitzeko, hala nola genero-berdintasuna, lan duina, desberdintasunak murriztea, hiri eta komunitate jasangarriak lortzeko eboluzioa, ekoizpen eta kontsumo arduratsua, bakea eta justizia.

### LITERATURA

Hitz egitea, kontatzea, elkarrekin izatea, ahotsa ematea... Hitzak, eraldaketa soziala sustatzeko transmisio-uhalek gisa, alderik alde zeharkatzen du Gutun Zuria Bilbao, zentroko literatura-programazioaren ardatz nagusia. 2023ko edizioan, Azkuna Zentroko Letren Nazioarteko Jaialdiak elkarrizketak egitea proposatu dizkie idazleei, literatura asmatzeko, ekoizteko, banatzeko, komunikatzeko eta kontsumitzeko modu berriei buruz.



Bene Bergado, Decreezer ©Elisse Ansareo

# PROGRAMAZIO ILDOAK



## GIZARTE ETA KULTURA GARAIKIDEA

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao gaur egun sormenaren inguruko arte-, artista- eta herritartasun-, ikerketa-, garapen- eta berrikuntzahabitata da. Artearen bidez gogoeta eta pentsamendu kritikoa egiteko pentsatutako programazioa, hiriko kulturaren gizarte-saretik eta gizarte-sarearekin lan egiten duena; tokiko eta nazioarteko kultura garaikideko beste espazio eta proiektu batzuekin elkarrizketan.

Kultura garaikidea 4 ildo programatikotan lantzen dugu: Arte bisualak, Arte biziak, Zinema eta Ikus-entzunezkoak eta Literatura, sorkuntza, gizartea eta kultura digitalak zeharkako lerro gisa lagunduz. Denak hizketan ari dira elkarrekin, lengoia artistikoak eta diziplinak uztartzen dituen programazio batean.

### Arte bisualak

Arte bisualen programazioa arte plastikoen, ikerketaren, pentsamenduaren, komisariotzaren, kritikaren eta forma berrien eremu hedatua da, bertako eta nazioarteko artista, komisario eta espezialistekin batera garatua. Sortzaile garaikideen banakako eta taldeko erakusketen bidez gauzatzen da, baita artea literatura, dantza, zinema, hezkuntza eta beste sistema batzuekin lotzen duten proiektuen bidez ere.

Erakusketa-programa garatzean, koprodukzioa eta ibiltaritza dira xede, eta elkarrizketa egiten da beste espazio batzuekin, edukiak aberasteko, komunitatea sortzeko eta gizartean esperientzia berriak abiarazteko.

### Zinema eta ikus-entzunezkoak

Zinema eta ikus-entzunezkoen sorkuntza egituratu egiten dira, ikus-entzunezkoen adierazpen garaikideak zinema klasikoarekin bateratu nahi dituen programazio batean. Azkuna Zentroa Bilboko Zinematekaren egoitza da, eta haren programazioan batera uztartzen ditu autore-zikloak eta bertako eta nazioarteko ikus-entzunezko komunitate artistikoa ikusarazten duten programazioak. Era berean, ikus-entzunezkoa da sorkuntzan laguntzeko programen bidez Zentroan garatzen diren proiekturik esperimentalenen ernamuina.

Zentroaren aliatu nagusietako bat Golem Alhóndiga da, haren zinema-emanaldiarekin, zinemak Bilbon duen egoitza nagusia baita, programazio egonkorrekin, estreinaldiekin eta zinemaldiekin.

### Arte biziak (antzerkia, dantza, musika, performancea)

Arte biziaren programazio egonkorra forma artistikoen inguruko erakusketa, praktika eta ikerketa proposatzen ditu. Gorputza da elementu eszeniko nagusia, antolaketa koreografikoan edo espazialean, plastikoan edo performatiboan; eta, harekin batera, egitura narratibo berriak, formatu eta lengoia berriak, sormen-aukerak pizten eta zabaltzen dituztenak.

Musika esperimentalaren eta soinu-artearen esparruan, Zentroak apustua egiten du musikarekin eta soinuarekin lotuta dauden esperientzia artistikoen alde, musikalak edo harmonikoak ezinbestez izan beharrik gabe. Musika esperimentalaren eta soinuaren urteko programak nazioarteko eta bertako artistak biltzen dituzten musika-entzunaldiak ditu, eta soinu-sorkuntzari eta inprobisazioari buruzko tailerrak eta topaketak ere bai.

### Literatura

Hitza, adierazpen literarioaren bitarteko legez eta pertsonen arteko komunikazioaren eta elkarrekintzaren ardatz legez; hitza da, hain zuzen ere, Azkuna Zentroaren ardatz programatikoetako bat.

Programazioak literaturaren ikuskera garaikideari heltzen dio, liburuak, letrak eta irakurketa gaindituz, eta zabaltzen da ahozko adierazpenaren eta transmisioaren artera, ikus-entzunezko narratibara, marrazkira eta komikira. Era berean, ezagutzera ematen du bertako sormen urbanoa eta euskarari lotutakoa, publiko familiarrari lotuago dauden adierazpenak, eta azaleratzen ari diren ahots berriak eta hegemonikoak ez diren hizkuntzetakoak.

# ARTE BISUALAK

Fermin Jimenez Landa. *Un helado sabor sendero*  
(Prototipoak Bilbao)



Arte bisualen programazioa arte plastikoen, ikerketaren, pentsamenduaren, komisariotzaren, kritikaren eta forma berrien eremu hedatua da, bertako eta nazioarteko artista, komisario eta espezialistekin batera garatua. Sortzaile garaikideen banakako eta taldeko erakusketen bidez gauzatzen da, baita artea literatura, dantza, zinema, hezkuntza eta beste sistema batzuekin lotzen duten proiektuen bidez ere.

Erakusketa-programa garatzean, koprodukzioa eta ibil-taritzea dira xede, eta elkarrizketa egiten da beste espazio batzuekin, edukiak aberasteko, komunitatea sortzeko eta gizartean esperientzia berriak abiarazteko.

**16**

erakusketa, erakusketa-proiektua, instalazio artistikoa

**205**

artista, komisarioa... eta beste kultura-eragile batzuk

**123**

jarduera

**88.696**

arte bisualeko programara bertaratutakoak

**42**

artista egonaldietan

# ERAKUSKETAK

## ERAKUSKETA ARETOA

Erakusketen eta ikusizko arteen programazioak barne hartzen du erregistro garaikidearen barruan Zentroko espazioak erabil ditzaketen artisten, obren eta komisarioen hautaketa.

Azkuna Zentroak ez du arte-bildumarik, baina sorkuntza sustatzeko eta artisten habitat bihurtzeko ideiatik babesten du arte-ekoizpena. Ikusizko arteak zentroko hiru erakusketa-aretoetan erakusten dira, eta horietako bakoitzak gai desberdinetara jotzen du, programazioaren barruan.

-2. solairuan dagoen Erakusketa Aretoan, tokiko eta nazioko nahiz nazioarteko arte-arloko figura garrantzitsuen erakusketa-proposamen garaikideak daude.

# Apichatpong Weerasethakul, Ben Rivers, Ana Vaz, & Eduardo Williams

## *Somewhere From Here to Heaven*

2022ko urriaren 28tik 2023ko apirilaren 16ra

### Artistak.

Apichatpong Weerasethakul, Ben Rivers, Ana Vaz, & Eduardo Williams

### Komisarioa.

Garbiñe Ortega

### Iraupena.

23.287


### Jarduerak.

Erakusketara bisita gidatuak

Garbiñe Ortega, Apichatpong Weerasethakul, Ben Rivers & Eduardo Williams arteko topaketa  
*Somewhere from here to heaven*. Argitalpena

*Somewhere from here to heaven* erakusketak Bruce Baillieren film-uni-bertsoak inspiratutako belaunaldi ezberdinetako artisten konstelazio bat marrazten du. Bruce Baillie ezinbesteko zinemagile bat izan zen 1960ko hamarkadan: abangoardia zinematografiko iparramerikarren garrantzitsuenetako bat eta "zinema esperimental" delakoaren sustatzaile handi bat. "1961ean, Bailliek, beste lagun zinemagile batzuekin batera, emanaldi bat antolatu zuen Canyoneko (Kalifornia) etxe batean, "beste inon ongietorrian ez ziren filmak" erakusteko, eta hori bakarrik bazen egintza iraultzaile bat une horretan. Keinu espontaneo horren ondoren, komunitate handi bat sortu zen. Horrek, bada, San Francisco Cinematheque elkartea eta orain arte munduko abangoardia-zinemaren banaketa-enpresa garrantzitsuenetako bat den Canyon Cinema kooperatiba sortu zituen", azaldu du Garbiñe Ortega erakusketaren komisarioak.

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoren ekoizpen honek zinematografiak erakusketa-espazio batean dituen aukerak esploratzen ditu, eta zinemaren ideia birpentsatu nahi du new mediaren aro honetan.



Apichatpong Weerasethakul. *Somewhere from here to heaven* ©Vicente Paredes

Erakusketak bi zati ditu. Lehena komunitate horrek –Bailliek eta Chick Strandek, Gunvor eta Robert Nelsonnek, Lawrence Jordanek eta beste batzuek–, 1940ko eta 1950eko hamarkadetako ekimenek inspiratuta, oraindik ere bizirik dagoen “familia” zinematografiko zirrargarri eta estimulagarria sortu zueneko garaira hurbiltzen da.

Erakusketaren bigarren zatiak Azkuna Zentroak Baillieren iruditeriak inspiratuta lan berriak sortzeko gonbidatu dituen lau artistaren lana hartzen du. Hona aipatu artistak: Apichatpong Weerasethakul (Thailandia), Ben Rivers (Erresuma Batua), Ana Vaz (Brasil) eta Eduardo Williams (Argentina). Ikus-entzunezko piezak egin dituzte Bruce Baillierekin eta haren filmen (*Valentín de las Sierras*, *Here I am*, *Mass for the Dakota Sioux* eta *All My Life*, *besteak beste*) unibertsoarekin elkarriketan. Lan berri horiez gain, erakusketak J.P. Sniadecki zine-magileak ex profeso egin duen pieza bat aurkezten du: azken urteetan Brucerekin bizi izandako une intimoez betetako film bat, Baillie-ren beraren amaitu gabeko film baten irudi argitaragabeekin.

Baillieren 16 mm-ko film liriko eta behatzaile horiek guztiek, baita lau artista horien lanek ere, edozein genero edo kategoria saihesten dute, eta, era berean, alderdi mistikoa eta mundutarra, kosmikoa eta pertsonala, mitologikoa eta autobiografikoa uztartzeko interesa partekatzen dute. Etengabeko bidaia, naturaren eta gizarte modernoaren arteko sinbiosia, argiaren bilaketa intuitiboa eta gauzen esentzia espirituala aurkitzeko bultzada dira proiektu hau ehuntzen duten ideietako batzuk, artea bizitzeko eta ulertzeko modu batekiko konpromiso sakon batek sostengatuta. Ideia hori artista hauen praktikaren erdigunean dago.

## Garbiñe Ortega, Apichatpong Weerasethakul, Ben Rivers & Eduardo Williams

Urriak 28

### Audientzia.

365



Erakusketaren hasiera gisa, Garbiñe Ortega, Apichatpong Weerasethakul, Ben Rivers & Eduardo Williams elkartu dira, Bruce Baillieren ibilbideari eta Zentroan zetozen hilabeteetan ikusi ahal izango zen erakusketaren edukiari buruz eztabaidatzeko.

# Bene Bergado

## *Urritu*

2023ko ekainaren 29tik 2024ko urtarrilaren 7ra

### **Artistak.**

Bene Bergado

### **Komisarioa.**

Juan Luis Moraza

### **Bisitariak.**

35.064

### **Actividades.**

Erakusketara bisita gidatuak

Bene Bergado & Juan Luis Moraza arteko topaketa

Familiantzako bisita-programa

Eskola-programa

Argitalpena

Erakusketa honetan, Bene Bergado eskultoreak *Urritu* infinitiboa proposatzen du hazkunde esponentzial mugagabearen aurrean esekidura gisa. Eta infinitiboa izenburu bat bada, marka inpersonal bat, obrak artistaren gerundio pertsonal bat dira.



Bene Bergado. *Urritu* ©Elsie Ansareo

Horrela, *Urritu* ekintzarako deia da, artetik abiatuta, baliabideen neurrigabeko hazkundearen eta agortzearen egungo egoerari erantzuteko. Juan Luis Moraza artistak komisariatutako erakusketako instalazio eta eskulturak mugaren kontzientziaren bidez desazelerazio baten beharrarekin hitz egiten ari dira, energia gutxiko eta bizi-aldaketa saihestezineko etorkizun hurbil batera egokitzeko. *Urritu* erakusketak artearen eta tratatzen duenaren arteko tentsio dinamikoa erakusten du: bere prozesu artistikoen eta gai esplizituenen artean.

*Urritu* Azkuna Zentroko Erakusketa Aretorako espezifikoki egindako erakusketa-proiektu bat da, ikus-entzunezko elementuekin, erakusketa honetarako sortutako instalazioekin eta 90eko hamarkadako Bene Bergadoren pieza birkonfiguratuekin, orain arte erakutsi ez direnak. Pieza nagusia *Tierra quemada* da, formatu handiko instalazio artistikoa. 30 metroko altuera duen dorre elektrikoa da, 4 zatitan banatuta. Eroria dirudien dorre hau desmuntatutako, biltegiratutako eta baztertutako dorrea da, habitat edo babesleku bihurtuz.

### Jarduera programa

Erakusketa eskolentzako eta familientzako hezkuntzaprogramaren bidez zabaltzen da. Bertan, urritzearen kontzeptua tokian tokikitik eta globaletik, geopolitikotik eta ingurumenetik, arlo pertsonaletik eta kolektibotik hedatzen da



Bene Bergado



ERAKUSKETA-PROIEKTUAK,  
INSTALAZIOAK ETA ESKU-HARTZE  
ARTISTIKOAK  
BAT ESPAZIOA - LANTEGIA. IDEIEN LABORATEGIA  
– MEDIATEKA GALERIA – ATARIA – TERRAZA

Erakusketa Aretoa alde batera utzita, esku-hartze artistikoak eta arte bisualen proiektuak zentroko beste espazio batzuetan ere egiten dira. Lantegiko BAT Espazioa. Ideien laborategia proiektu artistikoak, foroak, lankidetzak eta topaketak etengabe ekoitzi, esperimentu eta bistartzeko espazio bat da. Mediateka Galeriak zentroaren programazioarekin lotura duten proiektu eta instalazio artistiko batzuk erakusten ditu. Eta Atariak, terrazak eta eraikinaren fatxadak berak esperientzia artistiko irekia eskaintzen diete eraikinera sartzen diren publiko-komunitate guztiei.

# Zientzia frikzioa.

## Bizitza espezie lagunen artean

2022ko azaroaren 29tik, 2023ko otsailaren 26ra

### Artistak.

Shoshanah Dubiner, David Domingo, Rubén Duro Pérez, John Feldman, Petra Maitz, Dominique Koch, Susana Talayero, Maria Sibylla Merian, Gustafsson & Haapoja, Richard Pell, Mary Maggic, Museo Del Hongo, Saša Spačal, Pinar Yoldas, Diana Toucedo, Marley Jarvis, Laurel Hiebert, Kira Treibergs, eta Ernesto Casero.

### Komisarioa .

María Ptqk

### Koprodukzioa.

CCCB. Centro de Cultura Contemporánea de Barcelona

### Bisitariak .

7.899

### Jarduerak.

Programa Podcast: Zientzia frikzioa

Kapitulua:

- #1: "Zuhaitz artean"
- #2: "Artile-xertoen ibilbidea"
- #3: "Ez bakarrik loreak"
- #4: "Izurrite laguna"
- #5: "Itxasora itzuli"

Bisita gidatuak komisarioarekin

Tallerrak eskola-komunitatearentzat



Zientzia frikzioa. Bizitza espezie lagunen artean

Ingurumen-biologiako eta -zientzietako azken aurrerapenak erakusten dutenez, Lurreko bizitza guztia interdependentea da. Ikuspegi horri jarraituz, bizirik dagoena organismo eta ekosistemen arteko korapilatzeekin –batzuk besteetan integratutako anizkoiztasun biziak– egindako ehun bera eta bakarra da.

*“Ciencia fricciónek” ikuspegi-aldaketa hori esploratzen du, gaur egun ezinbestekoak diren bi emakumezko zientzialari eta pentsalariren lanetik abiatuta. Batetik, Lynn Margulis biologoa. Hark, sinbiosiak eboluzioan jokatzen duen rolari buruzko bere teoriarekin, bizitzaren historia berri baterako oinarriak jarri ditu. Eta, bestetik, Donna Haraway filosofo eta biologoa. Haren lanak ezagutza zientifikoaren eta hori munduari eta bertan hartzen dugun tokiari buruzko “kontakizunen makina” izatearen narrazio-potentzia aztertzen ditu. Beraz, izenburuaren zientzia frikzioak bi zentzu ditu, Maria Ptqk erakusketaren komisarioak azaltzen duenez. Batetik, bizitza mihiztaketa sinbiotiko handi bat bezala ikustearen ondoriozko frikzioak aipatzen ditu eta, bestetik, bestelako zientzia f(r)ikzio batzuk, pentsa daitekeena handitzen duten eta sortzen ari den interespezie-paradigman kokatzen lagunduko diguten istorio asmatu eta espekulatiboak, asmatzeko premiari egiten dio erreferentzia. “Egia bada, Harawayk eta Margulisek dioten bezala, Lur guztia bizirik dagoela, gailentasunaren mitoa baztertzeko eta berriz ere lurreko gure lagun ugariekin kontaktuan jartzeko garaia da”.*

*Zientzia frikzioa. Bizitza espezie lagunen artean bere edukia zabalduko du AZ Irratian podcast-eko ziklo batekin. Azkuna Zentroko irratia. Artistei eta tokiko eragileei egindako elkarrizketen bidez, erakusketaren begirada paisaia, abeltzaintza, nekazaritza, onddoak edo itsas fauna eta flora bezalako gaietara zabaltzen da. Erakusketaren programa publikoak María Ptqk komisariak gidatutako bisitak eta eskola publikoekin bitartekotza-jarduerak barne hartzen ditu.*

# Elena Aitzkoa

## *Ur Aitzak*

2022-2024 (Atarian)



Elena Aitzkoa. *Ur Aitzak* (Horizonte nuca)

### **Artista AZ Kideak**

*Ur Aitzak* artistaren motibazio pertsonal batetik abiatzen den sorkuntza proiektua. Zentroaren desirari eta aukerari erantzuten dio, "herritarrekin bat egiteko eta, nolabait, haren eraldaketa sentikorraren parte aktibo izateko", artistak azaldu duenez.

Proiektua sei eskulturak osatzen dute, eta pixkanaka sortzen joan dira, beti ahots- eta poesialan bati lotuta. Lehen etapa honetan, Elena Aitzkoarekin batera, proiektua ulertzen, bultzatzen eta hari eusten lagundu duten hainbat konplize egon dira.

"Mugimendu oro lagundua da beti, sinergia mugimendua-ren gorputzaren zati bat da. Era berean, edertasun bilakatzeara kolektibo baten barne-ezagutzaranzko mugimendu lagundu baten ondorio naturala da", gogorarazi du sortzaileak.

# Andrea Ganuza, Charlotte Gosselin, Clara Chotil

*¡Hay caldo! (Salda badago!)*

2023ko martxoaren 29tik maiatzaren 14ra



Andrea Ganuza. *Salda badago!*

## Komikiaren Nazioarteko Egonaldiarekin lotutako Ekintza

*Salda badago!* erakusketak Andrea Ganuza, Charlotte Gosselin eta Clara Chotil artisten proiektuak aurkezten ditu, Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaok, Quebec-eko Maison de la Littérature-k eta Angulemakok Cité Internationale de la Bande Dessinée et de l'image-k bultzatu duten Komikiaren Nazioarteko Egonaldiaren esparruan.

*Salda badago!* erakusketan, su motelean egindako hiru istorio daude. Prozesuaren fase desberdinetan dauden hiru “protoliburu”. Batera prestatuta, osagai batzuk behin eta berriz etortzen dira ahora, tipula eta baratxuri erregosiak etxean egindako gisatu batean bezala. Beste osagai batzuk berritzaileak edo minak izan daitezke: Arriskutsua al da gorri gehiegi julianan? Grafitozko marra horiek gehiago prestatu ahal dira? Ondo al dago lerroaren eta orbanaren arteko kontraste hori, edo hobeto lotu beharko litzateke irin pixka batekin, agian? Hau ez da komiki tradizional bat, zapora berrien egosketa baizik.

## Andrea Ganuza (Pamplona, 1988) *Atraviésame*

Eleberririk hau 2017 eta 2020 bitartean Medellin hirian (Kolonbia) gertaleku duten istorio laburren bilduma gisa aurkezten da. Esperientzia pertsonaletik kontatuta, sentsazioen eta poesiatik hurbil dagoen estilo baten bidez, gonbit egiten digu inguratzen gaituenaren eragina hartzera, gizabanakoen eraldaketa lortu nahian.

## Charlotte Gosselin (Quebec, 1996) *Our relapses*

Proiektu hau narrazio poetikoaren, elkarrizketen eta marrazkien artean dabil, eta sentikortasunez lantzen ditu hainbat gai: adikzioak, baterako mendekotasuneko harremanak, laguntza-taldeak eta susperraldia. Bere bikotea salbatu nahian bere buruaz ahaztu eta gaixotu den narratzaile bati jarraituko diogu. Bere begien bidez, bi pertsonaiek ahalegina egingo dute bidea aurkitzeko orekarantz eta susperraldirantz jotzeko.

## Clara Chotil (Francia-Brasil, 1992) *Tehoka*

Dourados (Brasil) lurraldeko historia erakusten duen ikerketa dokumental batetik sortutako fikzioa da *Tehoka*, bi familiaren kontakizun gurutzatuaren bidez eratua. Ipar-ekialdeko kolonoen ondorengoa den Valdir eta kaiwá militante gaztea den Ceciliaren arteko ibilerak eta liskarrak erakusten ditu. Kontakizun honek oraintsuko kolonizazio baten istorioan murgiltzen gaitu: hasiera konplexukoa, eta Brasilgo eraikuntza nazionalean ardaztua, horren ondorioek lurralde nazionala gaitzen baitute gaur egun.

# Fermín Jiménez Landa

## *Un helado sabor sendero*

2023 maiatzaren 30etik irailaren 3ra

### **Bisitariak.**

7.686



Fermín Jiménez Landa. *Un helado sabor sendero*

### **Prototipoak Bilbao. Forma Artistiko Berrien Nazioarteko Bienalaren barruan**

Sukaldaritza, botanikako ekintza antropikoa, iraungitzeak, nekazaritza, egintza kolektiboa, hedonismoa eta beste gai batzuk uztartuz, Un helado sabor sendero proiektuak mihiluaren familiako hainbat landareren laboreak aurkezten ditu, haien usaina eta zaporea berreskuratuz izozki itxuran. Izozki bat istorio baten igorle gisa, zapoaren eta plazerraren bidez.

# Susana Velasco

## *Tierra de nadie*

2023 maiatzaren 30etik irailaren 3ra

### **Bisitariak.**

7.900



Susana Velasco. *Tierra de nadie*


### **Prototipoak Bilbao. Forma Artistiko Berrien Nazioarteko Bienalaren barruan**

Susana Velascok proposatzen duen esku-hartzeak bi leku lotzen ditu: Azkuna Zentroko terraza eta hiria inguratzen duten mendietan dauden auzoak. Auzo horiek, Masustegi kasu, Bilbo industrializazio betean zegoenean izandako hazkunde informalaren ondorio dira. Mendietako migratzaile haiek, "inoren lurrekoak" beren auzoaren autoeraikuntza obra kolektibo bihurtu zuten. Herrixketako lur lauso eta ireki horrek durundi egiten du erabiltzen ez zen Alondegiko terrazaren irudian: inguruko mendi haietarik eramana zirudien lur-zati basati bat.

# Ayşe Erkmen

## *Myself on site*

2023 maiatzaren 30etik irailaren 15era



Ayşe Erkmen. *Myself on site*

### Prototipoak Bilbao. Forma Artistiko Berrien Nazioarteko Bienalaren barruan


Arte bisualak /Esku-hartzea/Site specific Ayşe Erkmenen site specific-ak Azkuna Zentroko Atariko sarrera nagusian dauden zutabeetako batean esku hartzen du; zutabeak 16 metroko tamaina du eta burdinazkoa da. Zinta berde bat zutabearen inguruan ehuntzen da, huntza baten gisa, lurretik sabairaino. Oihala artistaren izenarekin sinatuta dago, behin eta berriz errepikatuta, logo edo marka gisa. Autoretratu forma ematen dio obrari, egiletza, erreprodukzioa, identitatea eta identifikazioa jorratuz.

# Xavi Bové

## *Lunar Oscillations*

Ekainaren 16 eta 17

**Bisitariak.**  
1.555



Xavi Bové. *Lunar oscillations*

### Kolaborazioa: Gau Zuria

*Lunar Oscillations* site specific-a argi eta soinu-instalazio bat da, ilargiak itsaso eta ozeanoetan eta izaki bizidunengan duen eraginean inspiratua. Pertsona batek mugimenduan diren argi eta itzalen jolas batekin espazioa eraldatzen duenean senti ditzakeen sentazioak aztertzen ditu.

# Alán Carrasco

## 100+1

2023ko uztailaren 6tik urriaren 1era



Alan Carrasco. 100+1

Alán Carrasco artista bisual eta ikertzaileak *Le due differenti fasi della tensione* pieza aurkeztuko du Mediateka Gale-rian, 2021ean Erromako Espainiako Akademan izan zuen egonaldian ekoitzia.

100+1 izenburuak Pier Paolo Pasolini (1922- 1975) zine-  
magilearen jaiotzaren mendeurrenaren oroitzenari egi-  
ten dio erreferentzia. Instalazioa neoizko errotulu bat da,  
*Le due differenti fasi della tensione* (Tentsioaren bi fase  
desberdinak) osatzen duena, hau da, zuzendari italiarren  
“idazki kortsarioen” zati bat, idazlearen Olivetti Lettera 22  
makinarren tipografiarekin.

1974ko azaroaren 14an, hil baino urtebete lehenago, Pier  
Paolo Pasolinik “idazki kortsario” ospetsu bat idatzi zuen  
Corriere della Sera egunkarian, “Cos’è questo golpe? lo  
so” izenekoa (Zer da kolpe hau? Nik badakit).

Italiako “berunezko urte” nahasietan, egileak adierazi zuen  
bazekiela zein ziren “tentsioaren bi fase desberdinak –izan  
ere, kontrakoak– kontrolatzen zituztenen izenak”, ordura

arte egindako sarraskien egileen (material eta intelektua-  
len) atzean zeudenen izenei erreferentzia eginez.

Pasoliniren idazkiaren izaera iragarlea nabarmentzeko,  
obra honek Piazza Fontanako (1969ko abenduaren 12a)  
eta Bolognako Estazio Nagusiko (1980ko abuztuaren 2a)  
atentatuak aipatzen ditu,aldi horretako indarkeria guztiari  
neurri handi batean eusten dion parentesi makabroa.

Mediateka Galerian, gainera, gune bibliografiko bat dago,  
Pier Paolo Pasoliniren bibliografia eta filmografia kontsul-  
tatzeko.

Mediateka Galerian, pieza itzalita egoten da egun osoan,  
16:37tik 10:25era bitarteko tartean izan ezik: aipatutako  
atentatuen orduak, hurrenez hurren. Ekintza zital horiek  
argitu nahi dituen keinu poetiko txiki bat eginez, esaldi  
kezkarriak gogora ekarriko digu, egun-argi gutxiago du-  
ten orduetan, “strategia della tensione” batez ere ekintza  
politikoa izan zela.



# Ulises 2.0

2023ko urriaren 24a – 2024ko urtarrilaren 28



*Ulises 2.0*

*Ulises 2.0* k erakusketan jasotako lanak (2008) eta Zubietxe elkarteak eta Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaok batera argitaratutako *Ulises 2.0* katalogoliburua aurkezten ditu. Bertan, 13 herrialdetan jaio eta 25 hiritan bizi diren pertsonen parte hartu zuten, leku desberdinetatik abiatutako bidaia zail horri buruzko elkarriketak osatzeko.

Ilustrazioek prozesu osoa jorratzen dute: beren herrialdea uzteko erabakia hartzen denetik, harrerako gizartean integratu arte; eta bere aniztasun osoan erakusten dute, migratzera bultzatzen duten arrazoiei, migratzailearen profilaria, genero-berezitasunei eta bidaiaren faseetan dauden arazoei dagokienez.

Ilustratzaile profesional batek egin du migratzaileek egingdako lan bakoitzaren bertsioa: Moses Danel Jonas // Leticia Ruifernández; Abdellah Chadli // Leandro Alzate; Amadu Balde // Pepo Pérez; Bezaid Djillali // Manuel Bartual; Bezaid Djillali // Paco Roca; Blaise Batje // Lidia Peyret; Ditshidi Ndombe // Juanjo Sáez; Ebenezer Rhule // Javier De Isusi; Blaise Batje // Fidel Martínez; Mahmoud Salah Mahmoud // José María Ken Niimura; Mustapha Aouidat // Helena González Sáez; Nykita Tibabishev // Raquel Alzate; Omar Erraji // Sonia Pulido; Serkan Biçe // Sanvi; Sori Gayigo // Ander Sarabia; Sori Gayigo // Jali; Ridouane Ouardighe // Lola Lorente; Demba Cande // David Rubín; Ridouane Ouardighe // Alberto Vázquez; eta Bezaid Djillali // Sagar Fornies.

*Hala, Ulises 2.0*-k aukera ematen digu egiaztatzeko itxuraz oso bizitza desberdina duten bi artista elkar ulertzeko gai direla, batez ere, bi pertsona direlako.

# PROTOTIPOAK BILBAO. FORMA ARTISTIKO BERRIEN NAZIOARTEKO BIENALA



## **Artistak:**

Ayşe Erkmen, Iratxe Jaio & Klaas Van Gorkum, Fermín Jiménez Landa, Gilles Jobin, Ainhoa Lekerika, Laida Lertxundi, Teatro Ojo, Susana Velasco, Ramón Williams y Chikara Fujiwara & Minori Sumiyoshiyama

## **Komisariotza:**

Rosa Casado, Maider López, Stéphane Noël, Fernando Pérez

## **Audientzia:**

1.585

## **Babeslea:**

Volotea

*Prototipoak Bilbao* Azkuna Zentroaren Forma Artistiko Berrien Nazioarteko Bienala da. Begirada desberdinak dituzten eta jatorri desberdinetakoak diren sortzaileen topaketa bat, zeintzuek errealitatearen alderdiak zalantzan jartzen dituzten eta ahalegina egiten duten praktika artistikotik bertan eragiteko aukerak zabaltzeko.

Gaur egungo formatetik abiatzen dira, beren kode eta sorkuntzadenborekin, aldatzen diren agertoki eta formatuetan eta era askotako lengoaiekin, eta esperientzia eraldatzaileak proposatzen dizkiote publikoari, oroimenean irauteko modukoak.

2023ko edizioa, Prototipoak bienalak begiratzen die Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaon gertatzen denaren esperientziak sortzen dituen emozio sozialei, pentsamenduei eta sentimenduei, eta pertsonen bizitzan eragiteko duen moduari. Era berean, apustua da zentroko espazioa, hiri-espazioa eta landa-aldea, naturala eta artifiziala, biologikoa eta robotikoa, "bir-naturalizatzearen" alde, hausnarketa berri bat eginez kulturaren eta gizartearen iraganari eta etorkizunari buruz, dibertso, berezi eta espezifikoa denak duen positiboari buruz, artearen eta gizartearen, artisten eta publikoen komunitateen arteko zirikitan.


Hori guztia dela eta, honako artista hauek ibili dira: Ay«Erkmen (Istanbul), Iratxe Jaio & Klaas Van Gorkum (Markina-Xemein & Delft, Holanda), Fermín Jiménez Landa (Iruña), Gilles Jobin (Genève, Suitza), Ainhoa Lekerika (Lezama), Laida Lertxundi (Bilbo), Teatro Ojo (Mexiko Hiria), Susana Velasco (Madril), Ramón Williams (La Habana) eta Chikara Fujiwara & Minori Sumiyohiyamak (Kochi-Japonia, Osaka-Japonia) osatutako Orangcosong kolektiboa.

Proiektu artistiko berriak dira, Azkuna Zentroko espaziorako eta haren testuingururako berariaz sortuak, edo lehendik dagoen testuinguru arkitektonikoa eta soziala eraldatzea planteatzen dutenak. Nabarmentzekoak dira arte komunitarioaren eta sorkuntza kolektiboaren inguruko proposamenak, gonbit egiten baitute hitz egitera eta entzutera komunitate baten parte garela gogorarazteko, denboraren joana ospatzera, egungo une historiko eta ekologikoaz jabetzera, naturarekin eta oroitzapenekin berriz konektatzera, solas egiteko modu berriak saiatzera, dramaturgia berriak esperimentatzera eta arte eszenikoetan teknologia berriak aplikatzera... Azken batean, bizitzaren eta artearen arteko eragin-trukerako proposamenak dira, oso urrun dauden iruditerietatik ekarriak, eta nazioarteko erreferentziazko artisten bidez sorkuntza garaikideari begira daudenak.

# Ayşe Erkmen

Istambul

*Myself on site*



Ayşe Erkmen. *Myself on site*

## Arte bisualak /Esku-hartzea/Site specific

Ayşe Erkmenen site specific-ak Azkuna Zentroko Atariko sarrera nagusian dauden zutabeetako batean esku hartzen du; zutabeak 16 metroko tamaina du eta burdinazkoa da. Zinta berde bat zutabearen inguruan ehuntzen da, huntza baten gisa, lurretik sabairaino. Oihala artistaren izenarekin sinatuta dago, behin eta berriz errepikatuta, logo edo marka gisa. Autorretratu forma ematen dio obrari, egiletza, erreproduzioa, identitatea eta identifikazioa jorratuz.

Maiatzak 30, 31, ekainak 1, 2 eta 3  
9:00-21:00. Esku-hartzea. Kulturen Ataria

## Iratxe Jaio & Klaas Van Gorkum

Markina-Xemein / Delft

*Arkeologia Itzulitara* -  
43°15' 35" N 2°56' 14.9"W



Iratxe Jaio & Klaas Van Gorkum.  
*Arkeologia Itzulitara* - 43°15' 35" N 2°56' 14.9"W

## Arte bisualak/Arkeologia esperimental/Erakusketa/Erakusketa/Erakusketa

Arkeologia Itzulitara lanak 3023. urtean irekiko den denboraren kapsula bat erakutsi eta emango du, egungo une historiko eta ekologikoaren testigantza gisa. Hermetikoki zigilatuta, bildutako objektuen aukeraketa bat dauka, Azkuna Zentroko eta UPV/ EHUko Arte eta Kultura Garaikideko Praktikaren eta Teoriaren Berezko Masterreko ikasleekin egina.

Maiatzak 30, 31, ekainak 1, 2 eta 3  
11:00-20:00. Materialen erakusketa. Erakusketa Aretoa

Ostirala, ekainak 2  
18:00. Talk: Iratxe Jaio / Klaas Van Gorkum & Fernando Pérez. Erakusketa Aretoa

18:30. Ekintza - Kulturen Atarian kutxa beltza kokatzeko zeremonia. Kulturen Ataria

# Fermín Jiménez Landa

Iruñea

*Un helado sabor sendero*



Fermín Jiménez Landa. *Un helado sabor sendero*

## Arte biziak/Erakusketa/Ekintza

Sukaldaritza, botanikako ekintza antropikoa, iraungitzeak, nekazaritza, egintza kolektiboa, hedonismoa eta beste gai batzuk uztartuz, *Un helado sabor sendero* proiektuak mihiluaren familiako hainbat landareren laboreak aurkezten ditu, haien usaina eta zaporea berreskuratuz izozki itxuran. Izozki bat istorio baten igorle gisa, zapoaren eta plazerraren bidez.

Maiatzak 30, 31, ekainak 1, 2 eta 3  
11:00-20:00. Erakusketa. Lantegia. BAT Espazioa

Asteazkena, maiatzak 31  
19:30. Talk: Fermín Jiménez Landa & Fernando Pérez. BAT Espazioa

20:00. Inaugurazioa. *Un helado sabor sendero*. BAT Espazioa

## CIE. Gilles Jobin

Geneva

*Cosmogony*



CIE. Gilles Jobin. *Cosmogony*

## Arte biziak/Errealitate birtuala/Performance digitala

*Cosmogony* Genevan egiten den performance digital bat da, non hiru dantzariren zuzeneko mugimendua atzeman, eta Azkuna Zentroko auditorioan proiektatzen den, urrunetik eta denbora errealean. Dantzarien gorputzak eta haien avatar-ak partikulak bezala korapilatzen dira, egoera kuantiko batean, eta, aldi berean, distantzian egiten dituzten ekintzak eta haien mugimenduak berehala teleportatzen dira Bilboraino.


Osteguna, ekainak 1  
20:00. Urrutiko performance digitala denbora errealean. Auditorioa

20:30. Talk: Gilles Jobin & Stéphane Noël. Auditorioa Ainhoa Lekerika

# Ainhoa Lekerika

Lezama

*Deep wishes, promises and hopes*



Ainhoa Lekerika. *Deep wishes, promises and hopes*

## Arte bisualak/Esku-hartzea/Erakusketa/Ekintza

Esku-hartze kolektibo bat non hormari musu emanez, karmen gorri marraztuko dira aretoko paretak. Intimitate-harreman batetik abiatuta, pertsona-talde bat elkartzen da, eta sentsibiltate aktibo batetik musu ematen dio lekuari. Horrek sortzen dituen formen iruditeriak erantzun egin nahi die irrika jakin batzuei, marrazkia oroitzapenekin eta eza-gutzarekin konektatzeko modu gisa ulertuta.

Maiatzak 30, 31, ekainak 1, 2 eta 3

11:00-20:00. Erakusketa. Erakusketa Aretoa

Asteartea, maiatzak 30

19:30. Talk: Ainhoa Lekerika & Mainer López. Erakusketa Aretoa

# Laida Lertxundi

Bilbo

*8 Topaketa*



Laida Lertxundi. *8 Topaketa*

## Zinema eta ikus-entzunezkoak/Instalazioa/Proiektzioa

*8 Topaketa* Laida Lertxundi artistak 2021-2023 bitartean Azkuna Zentroaren artista AZKide gisa gauzatu duen proiektuaren ikus-entzunezko emaitza da. Eskola iragankor gisa sortu da, praktika pedagogikoak eta film baten produkzio-prozesuak desmuntatzea uztartzen dituena. Zortzi tailer eta filmaketa kolaboratibo hauek 16 mm-ko obra bat izan dute emaitza.

Maiatzak 30, 31, ekainak 1, 2 eta 3

11:00-20:00. Proiektzioa. Erakusketa Aretoa

# Teatro Ojo

Mexiko Hiria  
*Deus Ex Machina*



Teatro Ojo. *Deus Ex Machina*

## Arte biziak/Performancea/Instalazioa

Posible ote da gaur egun, "makinez baliatuz, jainko bat" gai izatea gure historia garaikidea idazteko erabiltzen diren narratibak desbideratzeko? Mexikoko Teatro Ojo konpainiak arte parte-hartzaileko proiektu eszeniko hau proposatzen du, herrialde oso batek hitz egiteko dituen modu askotarikoak eta bereziak entzuteko. Azkuna Zentroko erakusketaretoan jarritako call center batetik, *Deus Ex Machina* Euskadin dauden ahots ugari bilduko ditu.

Teatro Ojo-ren *Deus ex machina* proiektuak call center gailu bat erabiltzen du gizarteari kezkarri zaizkion gaiak aztertzeke eta gai intimo eta politikoei buruzko elkarrizketak sortzeke, elkarren artean sekula ikusi gabeko pertsonen artean.

Maiatzak 30, 31, ekainak 1, 2 eta 3  
11:00-20:00. Instalazioa. Erakusketa Aretoa  
17:00-20:00. Performancea. Erakusketa Aretoa

Larunbata, ekainak 3  
20:00 Talk: Teatro Ojo & Rosa Casado. Erakusketa Aretoa

# Susana Velasco

Madril  
*Tierra de nadie*



Susana Velasco. *Tierra de nadie*

## Arte bisualak /Bitartekotza-arkitekturak/Instalazioa/Ibilaldia

Susana Velascok proposatzen duen esku-hartzeak bi leku lotzen ditu: Azkuna Zentroko terraza eta hiria inguratzen duten mendietan dauden auzoak. Auzo horiek, Masustegi kasu, Bilbo industrializazio betean zegoenean izandako hazkunde informalaren ondorio dira. Mendietako migratzaile haiek, "inoren lurrekoak" beren auzoaren autoeraikuntza obra kolektibo bihurtu zuten. Herrixketako lur lauso eta ireki horrek durundi egiten du erabiltzen ez zen Alondegiko terrazaren irudian: inguruko mendi haietarik eramana zirudien lur-zati basati bat.

Maiatzak 30, 31, ekainak 1, 2 eta 3  
9:00-21:00. Instalazioa. Terraza

Osteguna, ekainak 1  
19:00. Ibilbidea. Monte Caramelo - Masustegi

Ostirala, ekainak 2  
19:00. Ibilbidea. Monte Caramelo - Masustegi

Larunbata, ekainak 3  
11:30. Ibilbidea. Monte Caramelo - Masustegi

# Ramón Williams

Habana

## *Museum Traces*



Ramón Williams. *Museum Traces*

### Arte bisualak/ Argazkigintza/Erakusketa

Museum Traces sailaren bidez, Ramón Williams artistak erakusten du artelanak muntatzeko eta desmuntatzeko trantzea, kaxa zuriko paretak hartu arren erakusketen parte ez diren argazkiekin. Horrela, Williamsen partekatzen dituen paretak tirokatuta daudela ematen du eta leihok gonbit egiten dute artearen espazio itxitik irtetera. Agerian uzten ditu jada ez dauden eta etortzeko dauden obren neurriak.

Maiatzak 30, 31, ekainak 1, 2 eta 3


11:00-20:00. Erakusketa. Erakusketa Aretoa

## Orangcosong. Chikara Fujiwara & Minori

## Sumiyoshiyama

Kochi / Osaka

*Hitsudankai - From now / here,  
Silence*



Orangcosong. *Hitsudankai - From now / here, Silence*

### Arte biziak/Performancea/Tailerra

Tailer / performance honetako parte-hartzaileak idazketa-aren bidez eta isiltasun osoz baizik ezin dira komunikatu. Horrela, idatzizko komunikazioa, elkarrizketaren bide izan beharrean, elkarrizketa-formatu berri bihurtzen da.

Maiatzak 31, asteazkena

17:30-18:30. Tailerra. Mediateka. TK 202

18:30. Talk: orangcosong & Stéphane Noël. Mediateka. TK 202

Osteguna, ekainak 1

17:30-20:30. Tailerra. Kulturen Ataria




IT'S MY BIRTHDAY!

### Arte biziak/Performancea/Topaketa

Prototipoak It's my Birthday! ekintzarekin amaituko da aurtentan, jaialdian urteak betetzen dituztenekin jai kolektibo bat ospatzeko proposamen artistikoarekin. Maiatzaren 30etik ekainaren 3ra bitartean jaio bazara, zatoz ospatzera Prototipoak jaialdira.

Larunbata, ekainak 3  
20:30. It's my Birthday! Terraza

## Meetings ACuTe. Culture Testbeds for Performing Arts and New Technology



Meeting ACuTe

### Babeslea: Creative Europe

Prototipoak programaren esparruan, Azkuna Zentroak ACuTe. Culture Testbeds for Performing Arts and New Technology proiektuaren partner gisa hartzen dituen egoitzetako lehena egiten da. ACuTe, sortzen ari diren teknologien bidez arte eszenikoen ekoizpenari buruzko berrikuntza-proiektu europarra da, lankidetzak kulturalerako eta gaitasunen garapenerako modu berriak ezartzen dituena. Ikerketaren lehen fase honetan, dramaturgia, eszenografia eta teknologia emergenteen arloko profesionalak hainbat topaketa partekatuko dituzte teknika digitala eszenan aplikatzeari buruz, soinutik, arte bisualetatik, gorputzetik, hitzetik edo ingeniartzatik abiatuta.



EGONALDI ARTISTIKOEN ETA  
SORKUNTZARI LAGUNTZEKO  
PROGRAMAREKIN LOTUTAKO  
JARDUERAK

## Isabel de Naverán



Isabel de Naverán. Azkuna Zentroko ikertzaile Azkidea

### Mintegia

#### *Uhina gogoan. Idazketaz, irudiaz, keinuz eta gorputzaz*

Urtarrilak 10

#### **Audientzia .**

100

“Uhina gogoan” proiektuaren barruan. “Idazketaz, irudiaz, keinuz eta gorputzaz” azpitoluarekin, mintegi honek, jardunaldi batean, hitzaldiak, elkarrizketak eta proiektzioak eskainiko ditu, eta horiek hurbilduko gaituzte Naveránek arte, filosofia, arkitektura eta dantzaren esparruan aritzen diren solaskide konplize batzuekin izandako korrespondentzietara.

“Uhina gogoan” 1926an Virginia Woolfek Vita Sackville-West-i bidalitako gutun batean oinarrituta *Isabel de Naveránek* egiten ari den ikerketa-gune baten izena da. Gutunean, idazketan erritmo egokia aurkitzeak duen garrantzia azpimarratzen du Woolfek. Prozesua olatu isil baten mugimendurekin alderatzen du, zeina itsas zabalean hasi, eta pixkanaka itsasertzerantz hurbiltzen den. Idazten duenaren zeregina, Woolfek dioenez, olatu horren mugimendua hautematea da, hurbiltzen, apurtzen eta gogoan finkatzen den bitartean. Soilik orduan sumatu ahal da hitzen azpian dagoen erritmoa.

Hizlariak: Lorea Alfaro, Marie Bardet, Emanuele Coccia, María García Ruiz, Isabel de Naverán, Andrea Soto Calderón.

### Podcast

#### *Oralidad secundaria*

2.870 entzule

Az Irratiak hiruhileko honetako programazioa aktibatuko du “*La ola en la mente. Oralidad secundaria*” lanarekin. Isabel de Naveránek Azkuna Zentroko ikertzaile AZkide gisa garrantzen duen proposamena osatzen duten bost gutun dira.

Podcast formatuan, de Naveránek lau gonbidaturekin —Lorea Alfaro, María García Ruiz, Raquel G. Ibáñez eta Andrea Soto Calderónek— izandako trukeak “bigarren mailako ahozotasun” gisa agertzen dira. Walter J. Ong-ek sortu zuen termino hori, gaur egun ahozko komunikazioa gailu elektronikoen, ahots-mezuen edo audio-oharren bidez nola egiten den aipatzeko; gutun bidezko erlazio epistolar bat da, ahots eta soinuaren bidez gauzatua.

## **Aimar Arriola** *Un deseo de forma*

2023ko apirilaren 18a

**Audientzia.**  
75

Aimar Arriola komisarioak Forma-desira proiektuarekin jarraitzen du, Azkuna Zentroko ikertzaile Az-Kide gisa. Proiektua 2020ko udazkenean jarri zen abian, zentroko programazioaren barruan queer- kuir ikuspegi eta artearen presentzia areagotuko zuen berezko lan-ildoak garatzeko gonbidapenari erantzunez.

Proiektua bi eremu edo arloren elkargunean dago, eta gune edo eremu horiek bata bestearengana bultzatzen dira. Alde batetik, hausnarketa jarraitua dago "forma" kategoriari buruz, eta desira eta arrarotasunaren nozioek dualismoak birpentsatzen laguntzen diguten moduari buruz, hala nola makurra- zuzena, azalera-sakonera, edo jarduerapasibotasuna -gorputz gisa eratzten gaituzten eta inplikazio politikoak dituzten bereizketak-. Bestalde, esperimentazioa dago, ikerketa-metodo propio batekin, aldi berean diskurtsiboa, plastikoa eta entzutekoa izan nahi duena.

Bertako eta nazioarteko artistekin elkar- trukea da ikerketa honen metodologia nagusia, eta bi ekintza motatan zehazten da: elkarriketak eta idatzizko ekarpenak (Orriak), aldizka modu digitalean argitaratuak; eta ekoizpen iragankorrek eta/edo ekintza publikoak artista horien eskutik (Ekintzak), tailerrak, proiektzioak edo elkarriketa publikoak bezalako formatuetan.



Proiektzioa eta solasaldia

"The Foundation" (2015) filma Los Angeleseko (AEB) Tom of Finland Fundazioaren ingurukoa da —XX. mendeko artista erotikoa eta gay ikonoaren artxiboaren egoitza— eta hartaz arduratzen diren pertsonen komunitate baten ingurukoa. Ez da Tom of Finland-i "buruzko" film bat; horren ordez, leku horretan tarte bat pasatzeko esperientzia bideratzen du, galderak egiteko gorputzari, artxiboari eta belaunaldien arteko transmisioari buruz. Filma anibalentziarekin lan egitearen emaitza ere bada; hau da, irudikatzen zaituzten eta, aldi berean, ez zaituzten irudi, esperientzia eta oroitzapenekin inplikatzearen emaitza.

## **Aimar Arriola & Karlos Martínez B. *Lock&Key***

2023ko maiatzaren 9a

**Audientzia.**  
34

Tailerra eta solasaldia

Karlos Martínez B.k marrazkitik eta bi dimentsioetatik lantzen du eskultura; prozesu horretan, bolumena planotik gorpuzten da. Duela gutxi, beste testuinguru batean, artistak esan zuen bere egungo lanean arreta eman nahi ziola bere desioari, harrapatu nahi zuen, eta zalantza zuen hori posible ote zen. Susmoa zuen desirak lotzeak haien menpe egotea dakarrela gehienbat.



## Urbanbat *Behatokia*

### **Audientzia.**

165

### **Babeslea:**

Urbegi Fundazioa

Behatokia hiri-behatoki bat da. *Situation Room* ireki eta parte-hartzaile bat. Dimentsio anitzeko (ingurumenekoa, osasunekoa, ekonomikoa, soziala...) krisi honen testuingurua hirian nola agertzen den eta arteak eta kulturak hiri-bizigarritasuneko baldintzei zer-nola lagun diezaieketen ikus daiteke bertatik.

Behatokia agora formako azpiegitura eramangarri bat da. Tokiko eragileen eta eragile bisitarien arteko elkarriketarako espazio bat da, gainera; horiek, bada, hiri-erronka garaikideetarako ikerketa- eta ekintza-proiektuak proposatzen ari dira arte- eta kultura-praktiketarik.

Programa osatzeko, parte hartzeko dispositibo bat dago: gure inguru hurbileko krisi-egoera honi buruzko datuak biltzea eta ikustea proposatzen dio bisitariari.

## Diego Sologuren eta Olga Subirós

2022 ko Urriaren 6a

### **Behatokial: Kutsadura eta osasun-krisia**

Topaketa honetan hausnarketa egingo da beste espezie batzuekin bizitzeko eta arnasa hartzeko moduko hirien beharraz.

## Lilian Weikert (La Plasita) eta Santos Bregaña

2023ko urtarrilaren 21a

### **Behatokia 2: Hiria mahai gainean**

Behatokiaren bigarren topaketa Erriberako Merkatuan izan da eta elikagaien krisia eta hiri diseinua hartuko ditu hizpide.



# Diego Peris eta Nancy Garín

2023ko martxoaren 16a

## Behatokia 3: gentrifikazioa eta hirirako eskubidea

Hausnarketa bat pertsonen eta komunitateen hirietan egindako lekualdaketei buruz eta arteak eta kulturak dinamika horietan duten rolar buruz.




# Nerea Díaz eta Gaspar Mazas

2023ko ekainaren 4a

## Behatokia 4: Zombi-espazioak

Topaketa horretan gogoeta eginda logika espekulatiboek espazioei buruz, interes pribatuek baldintzatutako kudeaketa publikoek.



# Jose Ramón Ais eta M<sup>a</sup> Salas Mendoza Muro

2023ko uztailaren 13a

## Behatokia 5: Renaturbanizar

Mundu zientifikoak “Esperientziaren iraungipena” deitzen dio gizakiok egiten dugun ingurumenaren eta naturaren arteko bereizketa emozionalari, batez ere gero eta pertsona gehiagoren bizileku diren hirietan eta hiri-inguruneetan eta ingurune teknologikoetan.

Gabezia emozional horrek zaildu edo eragotzi egiten digu aurre egitea ingurumenaren degradazioa bultzatzen duten epe luzeko politika eta erabakiei.



## Ion Munduate

### Parte-hartzaile

165



Ion Munduatek, Azkuna Zentroan artista AZkide gisa egi- ten ari den “Haize-arrosa” ikerketa-proiektuaren ildoan, esperientzia partekatu horren jarraipena proposatzen du, topaketa-laborategi gisa. Lan-prozesuak, esperientzia kole- ktibo baten bidez, non bestearen beharrak eragingo duen ikaskuntza erabatekoa dela sentitzea. Asmoa da esperien- tzia honen berezitasuna lortzea parte-hartzaile bakoitzari esker, bere entzuteari, parte hartzeko eta esperimentatzeko gogoari esker, hegagiteko gonbitari esker.

Laborategi hauek lau topaketatan antolatuta daude: HE- GALDIAK. Haietako bakoitzean, gonbidatu bat eta lantalde espezifiko eta desberdin bat izango dugu, lan-elementuen arabera. Hegaldia haize-arrosa batek zehaztuko ditu; eta, arrosa horretan, puntu kardinalen eta haizeen orde- z, ekin- tza eta mugimenduaren praktikei lotutako terminoak eta kontzeptuak jarri dira. Helburua da iragaite eta migrazio desberdinak iradokitzea, hausnartzeko nola izaten diren eraldaketak, mugimenduak gauzen, pentsamenduen eta gorputzen ibilbideak zehazten dituen bitartean.

## Itziar Okariz

### Tailerra, Topaketa

2023ko apirilaren 24a



Hegaldian Itziar Okariz artistak parte hartuko du, eta abes- batzetako kideei edo lanerako tresna nagusi gisa ahotsa duten pertsonen zuzenduta dago. Inprobisazioa landuko da, denbora eta espazio gisa ulertuta, non ausazkoak, kog- nitiboak, sinpletasunak eta konplexutasunak, orainak eta gorputzak konexio-igarobide desberdinak gara ditzaketen.

Mugimendua beste jarrera batetik lantzen da, diafragmaren mugimendutik, arnasketatik, bibrazioetatik, gorputza eta mugimendua espazioan bilatzeko. Espazioa eremu ireki eta erabilgarritzat eta, era berean, aldatzeko moduko ma- terialtzat hartzen da.

## Laurence Rassel Laborategia, Topaketa

2023ko Maiatzaren 18a



Bigarren hegaldian Laurence Rassel izango du gonbidatu, eta bereziki zuzenduta dago parte-hartze aktiboan, pentsamenduan, zuzendaritzan edo trebakuntzan inplikaturik dauden pertsonei eta elkarrekin lan egiten duten kolektibo, elkarte eta taldeei. Identifikazio-foku desberdinen bidez baterako jarduerak egiten dituzten pertsonei.

Oro har, praktikaren ardatza izango da esperimentatzea nola mugimenduaren ideiak eta kontzientziak aukera eman dezakeen harreman-espazio berriak aurkitzeko, pentsamendurako espazio berri bat eta besteekin harremanak sortzeko modu berri bat pizteko. Urteetan zehar garatu dudana praktika hau ez dago zuzenduta gorputzarekin eta mugimenduarekin interes berezia duten pertsonei. Izan ere, egin ditudan laborategietan egiaztatu dut onura lor daitekeela mugimenduari buruzko ezagutzaren beste jarrera batetik, hausnarketa kolektibo batean aurrera egiteko.

## Iñaki Martínez de Albeniz Laborategia, Topaketa

2023ko Ekainaren 5a



3. Hegaldiak Iñaki Martínez de Albeniz soziologoak parte hartu du. Bilbon bizi diren Afrikako komunitateko pertsonei zuzenduta dago; eta, bertan, praktikatik ekin diogu gauza xume bat aurkitzeari: gorputzaren harmonizazioari. Komunikazio-, gogoeta-, lankidetzeta- eta truke-beharrak ez dira kontzeptu hutsak; oinarritzeko tresnak dira, mugimenduak sor dezakeen harremanari jarraiki lerratzeko, azken finean, migratzea baita mugimendua izatea eta egotea.

## Hervé Diasnas Aurkezpena, Laborategia

2023ko Ekainaren 26a



*Hervé Diasnas* "nire mugimendu-maisua da. Bere praktikaren bidez ulertu eta sakondu nuen mugimenduaren azterketan", azaldu du Munduatek. Mugimenduaren hainbat jarrera nola zuzendu, bestelako topaketak eta egoerak pizteko eta lotzeko. Bere praktikari zor dizkiot arreta, mugimendu beraren parte izatearen konstantea eta orainaren kontzientzia. Proiektu honetara gonbidatu dugu koreografia-ariketa zehatz bat garatzeko: El Vol Dansé.

Vol dansé da Hervé Diasnasek dantzarako garatu duen PMDa osatzen duten tekniketako bat.

Berezitasun koreografiko bat da, eta arrain-sardak eta txorien hegaldia hartzen ditu eredu gisa. Dantza koral konplexua da; antzeztan duenak bereziki garatua izan behar ditu espazioaren zentzua eta taldeari entzuteko gaitasuna.

# Estanis Comella

## *SXT (Source by Transkription)*

Narratiba berriak / Gorputza / Ahotsa

2023ko irailaren 28a



*SXT (Source by Transkription)* proiektuak irakurketa-ordena-rik ez duen eta 2020an eta 2021ean gertaturiko zuzeneko ekintza batzuetan egin den testu baten konfigurazio-proze-  
sua erakusten du. Testu honek zuzenean inprobisatzeko nozioak ezartzen ditu. Erantsitako materialek, hala nola artxibo propio bateko irudiek eta kanpoko praktikek gida-  
tzen dute SXT abiapuntuko idazketa-nahia. Material horien guztien arteko lotura bat arkitektura eskultorikoa da, gor-  
putzetik eta ahotsetik espaziora garraiatua.

**Babeslea:**  
Banco Sabadell Fundazioa

# Oihana Vicente

## *Reel Cinema filming movies randomly*

2023ko irailaren 28a



*REEL CINEMA\_filming movies randomly* bitartekaritza-  
proiektu bat da, nerabeei zuzendutako ikus-entzunezkoen  
esparrukoa. Bertan, ikus-entzunezko edukia nahastu eta  
sortuk da, ingurune horren etapa eta tresna tradizionalak  
eta gaur egun sare sozialek proposatzen dizkiguten egitu-  
rak, baliabideak eta formatuak aztertuz.



# Pablo Marte + Lorenzo García Andrade

*Violencia Fantasía*

2023ko irailaren 28a




*Violencia Fantasiak* desiraren eta indarkeria gaur egungo mundura egokitzeko dituen forma sotilen arteko harremana aztertzen du. Indarkeria sotiltzat hartzen dira irudikapen ederretatik fantasiaraino ateratzen diren indarkeria-motak, bere buruaren irudi ezin hobea sortzearekin obsesionatuta dagoen gizarte batean.

---

# Julia Martos

*Un vestido claro clarísimo*

2023ko irailaren 28a



*Un vestido claro clarísimo* ikerketa-proiektua elkargunean kokatzen da, zinema dokumental garaikidearen, artista filmean eta artxibo pertsonalarekin egindako lanaren artean. Proiektuaren abiapuntua artistaren amonaren karta, egunkari- eta bestelako dokumentu-artxiboen azterketa da. Artxibo hori eztabaida-gune gisa erabiliko da, eta haren ahalmen narratologikoak eta garaiko genero-irudikapen naturalizatuak deseraikitze gaitasuna zalantzan jarriko ditu.

# AZ zabalik

2023ko irailaren 28a



Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaok irailaren 28an ekingo dio 2023-2024 denboraldiari, AZzabalik Sorkuntza Artistikoaren inguruko Topaketarekin, Zentroko artistekin ekoizpen garaikidea ezagutu, partekatu eta esperimentatzeko.

Komunitate-publiko guztientzako proposamenak dituen programan, bereziki nabarmentzen da gaur egun Lantegia. Ideien Laborategian eta Babestu. Sorkuntzari laguntzeko programa egonaldian dauden sortzaileen “open studios”-a.

Prozesu horietan sortu diren materialen erakusketaz gain, Topaketan ekintza performatiboak eta beren lanen inguruko aurkezpenak egingo dira Zentroko hainbat espaziotan.

Craiovako (Errumania) National Theatre Marin Sorescu-k “Reconstituirea” proiektua sortzeko prozesuaren zati bat garatuko du, irailaren 18tik 29ra, Lantegia. Ideia Laborategian, ACuTe. Culture Testbeds for Performing Arts and New Technology-ren esparruan. Proiektua, diziplina anitzeko ikuspegia duen ekoizpen eszenikoko prototipo bat, antzerkia, zinema eta errealitate birtuala integratzen dituena, zuzeneko artistekin eta geruza askoko mediaturgia gamifikatuarekin.

# BESTE PROIEKTUAK

## Stéphanie Bertrand

*Museos virtuales para democratizar el arte*

2023ko urtarrilaren 24a



### Arte eta Kultura Garaikideko Praktikaren eta Teoriaren Berezko Masterraren barruan

Hitzaldi honek erantzun posible bat ematen dio galderari, funtzio berri bat ikertzen baitu museoen webguneetan erakutsi ohi diren arte digitaleko eta lineako bildumentzat. Lineako bilduma horiek ahalmena dute artearen munduko prestigioaren eta arrakastaren banaketa bidegabea aldatzeko, ikusleek arteari buruz duten iritzia jasotzean, adituen gustua konpentsatzen baitute.

## Bulegoa z/b

*Komisariotzaren Nazioarteko Sinposioa*

2023ko otsailaren 8 eta 9a



### Ponentziak: Mckenzie Wark, Sagal Farah, Arantza Santesteban, Anik Fournier, Azar Mahmoudian, Graeme Thomson & Silvia Maglioni

Komisariotzaren Nazioarteko Sinposio hau erakusketa-formaren hainbat alderditara hurbiltzen da: erakusketaren baldintza historikoei erantzuten dien kultura-objektua, barnean hartzen dituen irudikapenak legitimatzen dituen forma instituzionala, esperimintatzeko eta gogoeta egiteko lekua, arreta handiko uneei bide ematen dien gailu iragankorra... 1977 eta 2017 bitartean izandako erakusketa zehatzak aztertzea du helburu, hainbat topaketaren bidez antolatuta dago, eta, besteak beste, artistek, arte-historialariek, komisarioek, kritikariek eta saiakera-egileek parte hartzen dute.

# ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK



Zinema eta ikus-entzunezkoen sorkuntza egituratu egiten dira, ikus-entzunezkoen adierazpen garaikideak zinema klasikoarekin bateratu nahi dituen programazio batean. Azkuna Zentroa Bilboko Zinematekaren egoitza da, eta haren programazioan batera uztartzen ditu autore-zikloak eta bertako eta nazioarteko ikus-entzunezko komunitate artistikoa ikusarazten duten programazioak. Era berean, ikus-entzunezkoa da sorkuntzan laguntzeko programen bidez Zentroan garatzen diren proiekturik esperimentalenen ernamuina. Zentroaren aliatu nagusietako bat Golem Alhóndiga da, haren zinema-emanaldiarekin, zinemak Bilbon duen egoitza nagusia baita, programazio egonkorrekin, estreinaldiekin eta zinemaldiekin.

**53**

film jatorrizko bertsioan

**4.335**

ikusle AZren ikus-entzunezko programazioan

**8**

proiektu programatuta zineman eta ikus-entzunezkoetan

**17**

solasaldi zinemaren eta ikus-entzunezko sorkuntzaren inguruan

**+9.600**

ikusle Golemen izandako zinema-jaialdietan

---

# ZINEMATEKA


Azkuna Zentroko Zinematekak programazio egonkorra dauka duela markada batetik, eta zinema klasikoa eta sorkuntza garaikideagoa ditu ardatz. Ikus-entzunezko programazioko ingurune bat, zinema-lengoiaren eta ikus-entzunezko lengoiaren ezagutzan sakontzen duena, zirkuitu komertzialetik kanpo dauden obretatik abiatuta.

# Somewhere from here to heaven

Ziklo garaikidea: Azaroaren 2tik 30era // Ziklo historikoa: 2023ko urtarrilaren 25etik otsailaren 8ra

## Audientzia.

180



LJ Duo Concertantes

Erakusketa Aretotik, *Somewhere from here to heaven* Zinematekaren bidez hedatuko da, zinema garaikideko eta zinema historiko esperimentaleko zikloekin, esperientzia bisualaren eta zinematografikoaren artean. San Frantziskoko Canyon Cinema-ren artxibora sartzeko aukera bakana. Programan proiektatuko diren pieza asko 16 mm-koak dira –hondatu ez daitezten, proiektio bakarra programatu da eguneko–, eta 1960ko hamarkadan zinemagileen foro gisa sortutako kooperatiba horretan dute sorburu. Gaur egun, Canyon Cinema Foundation da ondare horren erreferentziako lekua, baita mugimenduan dauden irudi independenteen, ez komertzialen eta esperimentalen ekoizpen garaikidearena ere.

## Ziklo historikoa

Garbiñe Ortegak komisariatutako zikloa, EQZEko Eloísa Suárez (ES), Inés Calero (IC), Anaís Cordova-Páez (ACP), Sofía Lena Monardo (SLM), Claudia Zegarra (CZ) eta Vilma Carla Martins (VCM) ikasleen lankidetzaz.

### 1. SAIOA: Aitzindariak

Maya Deren, Bruce Conner, Larry Jordan, Marie Menken, Will Hindle eta Peter Hutton ezinbesteko izenak dira 1940tik aurrera AEBetan sortzen hasi zen zinema underground-a ulertzeko. Ondoko zinemagileengan eragina izango zuten joko onirikoak, found-footage-aren birjabetzeak, justaposizioak eta behaketa-zatiak 16 mm-tan. IC

### 2. SAIOA: Gorputzaren politika

Iraultza baten erdian, gorputzarena ere bai. Programa honek zinema feministaren eta politikoaren aitzindarien filmak erakusten ditu, gorputza beste modu batez bistartzeko aukera eman zutenak, hain zuzen, belaunaldi batengan baino gehiagorengan eragina izan zuten Chick Strand, Alice Anne Parker eta Gunvor Nelson-enak. ACP.

### 3. SAIOA: Mugimenduak eta iraultza!

Konfrontazioa, borroka, iraultza 16 mm-tan: Estatu Batuetako 1960ko hamarkadako mugimendu sozialen erretratuak, Larry Jordan, Tom Palazzollo eta Dan Raisen-en filmekin. VCM

### 4. SAIOA: Gertutik filmatu

Kamerak bira ematen du eta jabetzen da inguruan duenaz, gertukoenez, etxeoaz, familiaz. Argiaren bidez intimitatea atzitzen du, pertsonaiek inozentzia galtzen duten bitartean. Besteak beste, Gunvor Nelson, Marjorie Keller eta Chick Strand zinemagile handien filmak. SLM

### 5. SAIOA: Antiheroiak

Bruce Bailliek Europako antiheroien irudiak erabiltzen ditu (Kixote eta Parsifal, hurrenez hurren) Estatu Batuak zatika irudikatzen, han lan industrializatuak eta naturaren konkistak bereizi egin baitzituzte pertsonak beren buruetatik eta jatorrietatik. ES

# Jean-Luc Godard

## *Esperimentatzeko artea*

2023ko otsailaren 22tik maiatzaren 25era

### Audientzia .

744



Zinimatekak Jean-Luc Godarden (1930 - 2022) ekoizpena berrikusiko du, *nouvelle* vagueren erreferentea eta zinema-  
ren historiako zuzendaririk eraginkor eta berritzaileenetako  
bat izan baita.

*Jean-Luc Godard. Esperimentatzeko artea* ez da atzera  
begirako bat, baizik eta egile honen lanik esperimentale-  
nen aukeraketa bat. Lan horiek erakusten dute arte zine-  
matografikoa etengabe berritzeko zuen estilo berezia, alde  
batetik, baliabide eta formatu ugari erabilita —esaterako,  
bideoa, aitzindarietako bat izan baitzen horretan—, eta, bes-  
tetik, ezarritako erregistroak, hizkuntzak eta kanonak eten-  
gabe zalantzan jarrita, bereak ere bai.

La chinoise (1967)

Tout va bien (1972)

Godard's Passion (1982)

Je vous salue, Marie (1984)

Pierrot le fou (1965)

Week-end (1967)

Adieu au langage (2014)

Visages villages (2017)

Sauve qui peut (la vie) (1980)

Le livre d' image (2018)



# Donostia Zinemaldia Azkuna Zentroan

2023ko urriaren 2tik 8ra

## Egileak

Isabel Coixet, Liang Ming, Matteo Garrone, Wim Wenders, Justine Triet, Joachim Lafosse, Thomas Lilti, Maite Alberdi, María Alché, Benjamín Naishtat, Rasmus A. Sivertsen, Ali Samadi Ahadi.

## Audientzia.

2.440



Donostia zinemaldia Azkuna Zentroan

## Donostia Zinemaldiarekin lankidetzan

Azkuna Zentroak, Donostiako Zinemaldiarekin lankidetzan, azken edizioan estreinatutako filmen sorta aurkeztuko du. Programak zuzendari ospetsuen tituluak biltzen ditu, baita praktika zinatografikoan dauden ahots berrienak eta haurrentzako eta familientzako proposamenak ere.

# Mangatik zinemara.

## Japoniako zinema garaikideko zikloa

2023ko Urriaren 17tik azaroaren 30era

### Audientzia.

910

### Babesleak:

Japan Foundation & Etxepare

Azkuna Zentroko Zinematekak Japoniako zinema garaikidearen monografiko batekin amaituko du urtea. Fundación Japón Madridekin elkarlanean hautatutako bederatzizko filmak elkarrizketa bat proposatzen dute manga-sorkuntzaren eta animazio-zinemaren artean. Herrialde honetako ikus-entzuzkoen aberastasuna ezagutzeko zikloa, hala Japonian, nola haren mugetatik kanpo, ikusleen eta kritikarien arreta erakarri duten zinemagileen lanaren bidez.

Besteak beste, *Katsuhiro Otomo*, zuzendari, gidoilari eta mangaka; *Ayumu Watanabe*, Doraemonen film gehienak zuzentzeagatik ezaguna; eta *Kenji Iwasawa*, Annie sarietarako izendatua bere lehen film luzearekin. Era berean, nabarmentzekoak dira zinemagile berrien lanak: *Mari Okada*, gaur egungo artistarik emankorrenetako bat; *Haruka Fujita*, film luzeen eta telesailen zuzendaria; *Naoko Yamada*, anime zinemaren zuzendaririk onenatariko bat; eta *Atsuko Ishizuka*, duela 20 urtetik Madhouse animazio-estudioari lotua.

Zinematekaren programazioa Mediateka BBKra hedatzen da, eta bertan Japoniako zinema garaikideari buruzko liburuak eta filmak kontsultatu eta maileguan eska daitezke. Gainera, Diálogos Imprescindibles del Cómic y Diálogos de Cine. Luces, cámara ¡acción! programek animearen klasiko batean sakontzen dute: «Akira», Katsuhiro Ôtomo zinemagileak 1988an zuzendua, zikloa hasteko erabiltzen den filma.



*Akira (1988)*  
[Katsuhiro Ôtomo](#)

*Kono sekai no katasumi ni (2016)*  
[Sunao Katabuchi](#)

*Kaijū no kodomo (2019)*  
[Ayumu Watanabe](#)

*Maindo Gēmu (2004)*  
[Masaaki Yuasa](#)

*Maquia (2018)*  
[Mari Okada](#)

*On-Gaku (2020)*  
[Iwasawa Kenji](#)

*Koe no Katachi (2016)*  
[Naoko Yamada](#)

*Blue Thermal (2022)*  
[Haruka Fujita](#)

*Nōgēmu Nōraifu Zero (2017)*  
[Atsuko Ishizuka](#)

# HEZKUNTZA ETA BITARTEKARITZA



## Zinemaz Blai Eskolatik Zinemara

**Audientzia.**  
149

Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaok eta Golem Zinemek *Zinemaz blai. Eskolatik zinemara* abiarazi dute. Hezkuntza-arloko ikusleentzako bitartekaritza programa bat da, jatorrizko bertsioan zinema ikusteko interesa pizteko, bizitzeko, hunkitzeko eta sustatzeko asmoz pentsatua. Hala-ber, ekimen hau sortzean eragile izan da ikus-entzunezko sorkuntza garaikidea hezkuntzarako eta pentsamendu kritikoa sustatzeko tresna dela sinestea. *Zinemaz blai. Eskolatik zinemara* gonbidapena da film bat zinema-areto batean ikusteko esperientzia kolektiboa partekatzeko, bai eta, filma ikusi aurretik eta ondoren, identitateaz, generoaz, kontzientzia sozialaz eta ekologikoaz edo bizikidetzaz ikasgelan gogoeta egiteko ere.

Egitasmoa urtarriletik martxora bitartean garatzen da, zenbait izenburu proposatuz hasita. Proposamen hori zabalduz joango da, zinemako estreinaldiekin eta ikastetxeek egindako iradokizunekin, une bakoitzean ikasgeletan lan-tzen ari direnen gaien osagarri gisa.

# JAIALDIAK.

## BILBOKO ZINEMA JAIALDIEN EPIZENTROA

Audientzia.  
+ 9.600

Azkuna Zentroa, aurten ere, Bilboko zinema jaialdi garrantzitsuenen epizentroa da, eta urtero jaialdi ugari antolatzen dira bertan

### *FANT 29. Bilboko Zinemaldi Fantastikoa*

Maiatzaren 5etik 13ra

Jaialdi honek genero fantastikoaren azken berrikuntzak jartzen ditu ikusgai Sail Ofizialean eta Panorama FANTastikoaren Sailean, film klasikoaren emanaldiekin osatzen da, eta Fant Maisuak omentzen ditu; horrez gain, generoko erreferentziako dokumentalak, aurrentzako saioak eta film laburren saioak ere antolatzen dira.

### *ZINEGOAK Bilboko Gaylesbitrans Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdia*

Ekainaren 26tik Uztailaren 3ra

2023ko Zinegoak jaialdiak identitate aldakorrak ezarri ditu erdigunean, generoa aldaketarako eta deskubrimendurako esparru bat dela ulertuta. Beste behin ere, nor garen erabakitze askatasuna eta zilegitasuna aldarrikatzen dugu, sexu-aniztasunera, orotariko orientazioetara eta genero-identitatea edo sexualitatearekin loturiko beste edozein elementu eraikitze irekitako begirada batetik. Horixe islatzen du aurtengo edizioaren irudiak ere: sentitzera, ukitzera, deskubritzera eta jolastera gonbidatzen gaitu. Eta ildo berean ulertu behar da jaialdiaren aurtengo programazio osoa ere: Sail Ofizialeko filmak, film laburren zikloak, pieza eszenikoak, eztabaidarako eta gogoetarako Bilgune esparruak, eta ZG/PRO kultura-industriaren eta berrikuntzaren esparrua.

---

# ZINEMAKUMEAK GARA. Emakumeek zuzendutako zinemaren erakusketaren 28. Edizioa

Urriaren 16tik 31era

Zinemakumeak gara! - Emakumeek zuzendutako zinema erakusketaren 28. ediziokoak Alice Guy, historiako lehen zinemagilearen eta fikziozko lehen lanaren egilearen jaio-tzaren 150. urteurrena ospatu nahi du.

---

# ZINEBI - Bilboko Zinema Dokumental eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdia

Azaroaren 10etik 17ra

ZINEBI jaialdiak artista berriak babesteko nahi irmoa du. Film laburren nazioarteko lehiaketa (dokumentala, animazioa eta fikzioa) eta ZIFF- ZINEBI First Film nazioarteko lehiaketa (opera prima film luzei eskainia) ditu ezaugarri nagusi. Ohorezko Mikeldi sariak ere banatzen ditu urtero, prestigio handiko zinemagileen ibilbide profesionala aitortzeko; eta Beautiful Docs nazioarteko sailean eta Bertoko Begiradak-Miradas desde Euskadi sailean parte hartzen duten filmak hautatzen ditu. Bestalde, ZINEBI INDUSTRYrekin euskal ikus-entzunezkoen ekoizpena sustatu nahi da, industriarekin eta hainbat eragilerekin sinergiak sortzeaz gain.

# ARTE BIZIAK



Arte bizien programazio egonkorak forma artistikoen inguruko erakusketa, praktika eta ikerketa proposatzen ditu. Gorputza da elementu eszeniko nagusia, antolaketa koreografikoan edo espazialean, plastikoan edo performatiboan; eta, harekin batera, egitura narratibo berriak, formatu eta lengoaia berriak, sormen-aukerak pizten eta zabaltzen dituztenak.

Musika esperimentalaren eta soinu-artearen esparruan, Zentroak apustua egiten du musikarekin eta soinuarekin lotuta dauden esperientzia artistikoen alde, musikalak edo harmonikoak ezinbestez izan beharrik gabe. Musika esperimentalaren eta soinuaren urteko programak nazioarteko eta bertako artistak biltzen dituzten musika-entzunaldiak ditu, eta soinu-sorkuntzari eta inprobisazioari buruzko tailerrak eta topaketak ere bai.

**8.336**  
parte-hartzaile

**37**  
jarduera

**8**  
tailerra eta topaketa artistekin

**89**  
artista

# ESZENAZ. AZKUNA ZENTROKO ARTE ESZENIKOEN DENBORALDIA

eszenAZek osatzen du zentroko arte bizien programa egonkorra, forma artistikoen inguruko erakusketa, praktika eta ikerketaren bidez. 2022-2023 denboraldian, egungo eszenako lanik berritzaileenak nabarmentzen dira, bertako eta nazioarteko artistek eta konpainiek aurkeztuak.

Proposamen guztietan, gorputza da elementu eszeniko nagusia, antolaketa koreografikoan edo espazialean, plastikoan edo performatiboan; eta, harekin batera, egitura narratibo berriak, formatu eta lengoia berriak, sormen-aukerak pizten eta zabaltzen dituztenak.

Ekintzarako pentsatutako programazio honetan, ikuskizunak baino gehiago paisaiak eta espazioak proposatzen dira, ikusleak banaka, subjektiboki eta modu bakarrean eszenaren parte izateko.

Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin

eszen//AZ



# Kolektivo Monstrenko

## *Espejismos (el lado épico)*

Urtarrilak 19, Auditorioa

### Audientzia.

107



Kolektivo Monstrenko. *Espejismos*

Nortasunaren bilaketa, adiskidetasuna, galdutako maitasunak eta egungo gizartearen agindu berrien etengabeko mehatxua dira pertsonaien bidaian azaltzen diren gaietako batzuk, zeintzuek etengabe bilatzen baitute elkar, elkarrizketa azkar eta dibertigarrien bidez.

Zeru iheskor eta lurrintsu baten azpian, eta zuzeneko musikarekin, Bob eta Bobek umoreari eta malenkoniari, erritmo galduari eta dantzarik zoroenari eutsiko diete, ikusleak desagertzeko bidean dagoen garai batera eramateko, eta azken garaietako bizimoduaz gogoeta eginarazteko.

# Alberto Cortés

## *One night at the Golden bar*

Martxoak 2, Auditorioa

### Audientzia.

101



Alberto Cortés. *One night at the Golden bar*

Azken urteetan garatzen ari den kontakizun eszeniko horren beste kapitulu bat idatzi du Cortésekin, askotan autofikzioa dena. Honako honetan, "aingeruaren irudi zerutiarraren iruditeriak gai ugari zeharkatu ditu: zer maskulinitatek gobernatzen gaituen, zer hauskortasun eta arrakala ez diren ari aipatzen, zer identitate dauden leku zaugarri bezain izugarrian, zapaltzen gaituen patuari nola kantatu. Ahultasun egoera bat bilatzen duen kantika da, ahultasunean ezkututzen diren afektuen eta edertasunaren boterea agerraraziko duena. Azaleratuz aldi berean ahula eta izugarria den leku batean zer identitate dauden, eta gorputz horiek nola babestuko ditugun, maite dutenean nola sentitzen diren publikoki oihukatzen dutenean".

"*One night at the golden bar*" honek Mecanoren *La fuerza del destino* abestia garrantzitsua, bi lagunek taberna batean era konponezinean elkar topatzeari buruzkoa, queer ikuspegitik ari zaigu, leku horietan sortzen diren istorioez, genero-identitateez eta maitasuna adierazteko modu ugariak.

# Estudio Gheada

## *El mejor de los mundos*

### (EMDLM)

Apirilak 20, Auditorioa

#### Audientzia.

115



Estudio Gheada. *El mejor de los mundos*

Eszenaratze honetan, publikoak ikus-entzunezko autorretratu baten eraikuntza ikus dezake, zuzenean eboluzionatzen duena, protagonistak bizi izandako eta kontatutako esperientziei erantzunez. Horrela, elkarrizketa bat sortzen da antzezlearen eta teknologiaren artean, teknologia lagungarri baitzaio gailuen pantailen atzean ezkutatuta dagoen kanpoko publiko abstraktu eta urrunak kontsumitzeko moduko autorretratu eraikitzeko.

# Macarena Recuerda

## Sheperd

### *Cosa. Intervenir un cuerpo*

Maiatzak 4, Kubo Baltza

#### Audientzia.

24



Macarena Recuerda Sheperd. *Cosa. Intervenir un cuerpo*

*Cosa* Macarena Recuerda Sheperdek ILUSIONISMOARI buruzko trilogia amaitzeko erabili duen pieza da. Ikerlan horretan, egileak dioenez, ilusioa antzerkiaren funtsarekin nola konektatzen den pentsatzera iritsi da, eszenaren gainean erakutsiz konbentzioa eta magia, errealitatea eta horren ordezkoa, ekintza eta fikzioa.

# Poliana Lima

## *Oro negro*

Ekainak 8, Auditorioa

**Audientzia.**  
83



Poliana Lima. *Oro negro*

*Oro negro*, gorputza da aztarrika egiten duen eta aztarrikatua den objektua, deabruzkoa agerian uzten duena: haragi biguna, zaugarria eta galkorra; erotiko femeninoa, emakume baten desiraren ikuspegitik; belztasuna eta herrikoia.

# Matxalen Bilbao

## *Fugas*

Irailak 28, Kulturen Atrioa

**Audientzia.**  
321



Matxalen Bilbao. *Fugas*

### AZzabalik programaren barruan

*Fugas* ek gogoeta egiten du taldearen eta norbanakoaren arteko harremani buruz, haien arteko batasunei eta desadostasunei buruz. Loturak, migrazioak eta eskultura-konposizioak dira inspirazioa. Egoera desberdinetatik igaroko den taldearen eszena bilatu, jarraitu eta antzestu nahi izan du.

# OSA+Mujika

## Bueltaxka

Irailak 28, Kulturen Atria

### Audientzia.

322



OSA+Mujika. *Bueltaxka*

### AZzabalik programaren barruan

Osa+Mujikaren azken lana 15 minutuko pieza bat da, eta bi lagun -Jaiotz Osa eta Rafke Van Houplines- istorioa kontatzen du. Lagun horiek plazera aurkitzen dute elkarrekin egoten, ziur baitaude, elkarrekin aurrera eginez eta asegabatasuna eta etengabeko bilaketa alde batera utziz, porrota ez dela inoiz existituko.

# Maia Villot

## AMA *preludio*

Irailak 28, Terraza

### Audientzia.

250



Maia Villot. *AMA preludio*

### AZzabalik programaren barruan

*AMA preludio* proiektu handiago baten lehen zatia da, lehen hurbilketa bat dominatrix figurara, femme fatal-ari lotutako beste estereotipo baten gisa.

## Verde Prato

### *Adoretua*

Urriak 18, Auditorioa

**Audientzia.**  
237



Verde Prato. *Adoretua*

Verde Pratok bere azken albuma aurkeztu du, *Adoretua* izenekoa, kemena eta ausardia esan nahi duen adore hitzean oinarritua. Hori sentitzen baitu konposizioari, agertokiari, biluztasunari eta bere burua ireki, erakutsi eta abesteko ausardiari bakarrik aurre egiten dionak, asmoen adierazpen gisa.

## Led Silhouette

### *Los perros*

Urriak 26, Kubo Baltza

**Audientzia.**  
68



Led Silhouette. *Los perros*

Hedatzen den pasiozko dantzak errepikapenean eta katarsian hartzen du zentzurik garbiena: akitu arte dantzatu, abaildu arte zaunka egin, hil arte bizi. Bere burua aurkitu nahian, bere burua bestearengan ikusten duen gizonaren kontakizuna.

## Las Tesis

### *Canciones para cocinar*

Urriak 24 eta 27, Kubo Baltza

**Audientzia.**  
56



### Lanean. Prozesuetarako laguntza programaren barruan Hitzaldia & Performancea

Bere performance berriaren abiaburua "sukaldean laguntzen digun musika erradiala da, genero-roleri lotutako etxeko dimensioaren espazio enblematikoa baita sukaldea". Eszenan, kolektiboak bere abestiak artikulatzen ditu "feminismoen teoria, eskaera eta salaketa historiko eta egungoekin, hala nola abortatzeko eskubidearen aldeko borroka, etxeko indarkeriaren aurkako borroka, gorputza erresistentzia gisa eta migratzeko eskubidearekin, besteak beste", azaldu dute.

# L'alakran (Oscar Gómez Mata) & Juan Loriente

## *Inactuales*

Azaroak 9 eta 10, Auditorioa

### Ko-produkzioa.

Grütli – Genevako (Suitza) arte bizien ekoizpen eta hedapen zentroa.

### Audientzia.

138



L'Alakran. *INACTUALES*

Gaur egun, gero eta zailagoa da konfiantza izatea. Zalantza egiten dugu ikusten eta entzuten dugunaz. Ezin gara ziur egon zuk eta biok gauza bera ikusiko dugunik. Ikusgai denak errealitatearen irudi bat ematen digu benetan? Zerbait ikusten dugu, baina ez dakigu benetan zer den.

Kolapso sistemikoaren distopia-aldi honetan, gizakia gizabanako sortzaile gisa onartzeko gabezia-aldi honetan, nahi genuke arimaren esperientzia bat proposatu, birsortzeko modu bat, intuizio sentiberak eta hipersentiberak mundura itzultzeko modu bat, askotan arazoimenetik edo pentsamendu kartesiarretik haratago praktikatzeko baitira, eta gure urratsak errugabetasunean jartzen baitituzte, eta hori gabezia ikaragarria da gure gizartean.

*INACTUALES* Grütli – Genevako (Suitza) arte bizien ekoizpen- eta hedapen-zentroaren, "INACTUALESen" eta Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaoren koprodukzioa da.

# Instituto Stocos

## *Oecumene*

Azaroak 23, Kubo Baltza

### Audientzia.

74

### Elkarlanean.

Dantzaldia 2023 (La Fundación)



Instituto Stocos. *Oecumene*

*Oecumene* piezak dantza eta musika uztartzen ditu, eta hausnarketa egiten du gizabanakoak munduan duen lekuari buruz, teknologiaren bidez zentzumenak hedatuta dituela, bere jatorri geografikoaren mugetatik eta jatorrizko identitate kulturaletik haratago.

# Tripak

## Platea

Azaroak 29, Auditoria

**Audientzia.**  
165



Tripak. Platea

Bitarteko existentziaren edo arimen trantsizio-egoeraren ideiatik abiatuta, *Platea*-n, oturuntza-mahai bat aurkezten zaigu, imajinatutako linbo baten irudikapen gisa, padurak dituen paisaia baten erdian. Mareen mugimenduak nabarmentzen du bizitzak eman eta hartzeko duen bereizgarria, azalpenik edo lokarririk aurkitu gabe. Jainko batek, zeremonien maisu gisa, ongi etorria ematen die inguru al-dakor horretara iristen diren gorpuei. Itsasoak eramanda, noraezean edo konortetik gabe iristen dira, naufragoak edo sirenak bailiran; denek izan zituzten bizitza eta heriotza lehenago. Lekua azken ospakizunerako, transmutazio handirako prestatuta dago, baina, lehenago, beren aurreko borondateak utzi beharko dituzte, oraindik ere haien oihartzuna entzuten baita.

# Cielo Raso


## (Igor Calonge)

### *Hâmaikà*

Abenduak 14, Auditorio

**Audientzia.**  
90

**Elkarlanean.**  
Dantzaldia 2023 (La Fundición)



Cielo raso. *Hâmaikà*

*Hâmaikà*k fikzioa eta errealitatea ukitzen ditu, ez oso modu serioan, begiratzera bultzatuz. Fikzioa eta errealitatea nahasten direnean, magia agertzen da. Magiak trikimailua du, eta trikimailua, oro har, ez da erakutsi nahi izaten, erakustean ilusioa hiltzen baita. Baina ilusioa soilik hiltzen da irudimena desagertzen denean.

# HOTSETAN. MUSIKA ESPERIMENTALA ETA SOINU-ARTEA

Azkuna Zentroaren musika esperimentalaren eta soinu-artearen Hotsetan programak bertako eta nazioarteko soinu-sorkuntza jartzen du ikusgai, eskola-komunitateari zuzendutako entzunaldien eta hezkuntza-programa baten bidez.

Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin

## dieb 13 + eRikm


Otsailak 22 – Auditorioa

### Audientzia.

42

*dieb13* Dieter Kovačič-en ezizena da, turntablista, hacker-rra, zinemagilea, autodidakta, konpositorea, collagista, eta copyrightaren kontzientzia-eragozlea. Disko-jogailu eta kasetekin hasi zen lanean eta gero ordenagailura jo zuen. 1997az geroztik, 30 herrialdetan baino gehiagotan aritu da, bakarka zein taldean, besteak beste, Boris Hauf, Werner Dafeldecker, Martin Siewert, Mats Gustafsson eta Christof Kurzmann-ekin elkarlanean.

Bestalde, *eRikm* artista marseillarra 1992tik jardunean dagoen musikari eta artista bisuala da. Gitarra-jotzaile gisa hasi zen arren, disko-jogailuarekin duen trebetasunaren ondorioz, Europako musika esperimentaleko artistarik eza-gunenetako bat da egun, eta Luc Ferrari, Christian Marclay, Mathilde Monnier, Thurston Moore, FM Einheit eta beste artista batzuekin aritzen da elkarlanean.



dieb13 & eRikm



---

# John Richards (dirty electronics) + Myriam RZM

Martxoak 22 – Kubo Baltza

**Audientzia - Kontzertua.**

49

**Audientzia – tailerra.**

16



John Richards & Myriam RZM



Tailerra

John Richardsek (Dirty Electronics) ikertzen du, esperientzia partekatuetan, elkarreragin sozialean eta sorkuntza kritikoan oinarrituz. Bere lanak talde handientzako musika elektronikoaren interpretazioari eta brikolaje-elektronikari heltzen die, eta jarduera horiek ekintza holistikotzat hartu ditu. Praktika arina eta bizia da, eta tailer-instalazio eta performance-instalazio ideiekin lotuta dago. Bere lanak musikaren, arte eszenikoen, elektronikaren eta diseinu grafikoaren arteko mugak gainditzen ditu, eta, dimentsio soziopolitikoa izateaz gain, diziplinartekoa ere bada. Bestalde, testu ugari idatzi ditu brikolaje-praktikei, musika elektronikoaren interpretazioari eta soinu-artearekin lotutako ikuspegi objektual eta materialei buruz.

Bestalde, Myriam RZM euskal performer eta sortzaileak *Ruido proto\_ritual* aurkeztuko du, DIY/DIT soinu-tresna autofabrikatuen bidezko inprobisazioan oinarritutako zuzeneko solo bat. Soinu- eta performazio-arloan dituen kezketara egokituta dago, feedback eta fx pedalekin konbinatuta, mugimenduan dagoen gorputzarekiko ekintzan / elkarreaginean. Autoerritualera hurbiltzea.

---

# Sergio Luque & Juan Carlos Blancas. IANNIS XENAKIS *La légende d'eer*

Maiatzak 25 – Auditorioa

## Audientzia.

63

Sergio Luque konpositoreak eta Juan Carlos Blancas soinu-diseinatzaileak *La légende d'eer* interpretatuko dute. Iannis Xenakis konpositoreak sortu zuen, musika elektronikoaren aitzindaritzat eta musika estokastikoaren sortzailetzat jotzen denak.



Sergio Luque & Juan Carlos Blancas. *La légende d'eer* (Xenakis)

---

# Miguel A. García *Eyezorros*

Irailak 28a – Auditorioa

## Audientzia.

114



Miguel A. García. *Eyezorros*

### Artista AZ Kideak

Soinu-artistak *Comclapompos*. *Usar el flujo como un cauce* proiektua garatu du azken bi urteetan. Inguruko sinergiak bereganatzen dituen musika-konposizioko lan honek egituraren era askotako aukeretan sakontzen du. Oso esperimental den eta elektroakustikatik hurbilago dagoen ikusmolde batetik abiatuta, Miguel A. García-ren musika tolestu eta hedatzen da, ahotsa, dantza, beste lengoiaia batzuk eta beste sentipen batzuk jasotzeko, formaren deskonposizioa malguki gisa arakatuz. "Soinua da bitartekoa, eta niretzat jatorria da, baina ez amaiera: bitarteko horretatik abiatzen diren musikari eta artistekin lan egitearekin batera, nahi nuke beste diziplina batzuetara zabaldu, baina beti modu organikoan", azaldu du artistak.

---

# Kolaborazioak

---

## Loraldia

*Elur zuriren hiru heriotzak:  
Lorazain eguna*

Martxoak 21, Auditorioa

**Audientzia.**  
210

Khontairak historian ikertzea du gustuko. Mendez mende igaro den historian murgiltzen dira eta garaikide bihurtzen du. Oraingoan Grim anaien eskuizkribu zahar bat eta Bela Bartokek ekialdeko Europan jasotako Erdi Aroko doinu mestizoetan aurkitu du sormen iturria.

*Mauriziak ez du inor hil*

Martxoak 23, Auditorioa

**Audientzia.**  
197



Loraldia 2020

Maurizia Aldeiturriagaren kopleetatik abiatuz, euskal folklore digital eta formatu berrietan oinarritutako zuzeneko ikuskaria.

“Mauriziak ez du inor hil” bada halako ahalduntze kolektibo bat. Maurizia ez naiz ni, baina ni ere banaiz ez zara zu, baina zu ere bazara, Maurizia gu gara.

---

# Mitusu

Azaroaren 14tik 17ra

**Audientzia.**

3.929



Mitusu

Azkuna Zentroak programa honetan laguntzen du, ikasleak arte eszenikoen mundura hurbiltzeko eta emozioak sustatzeko, ikusleen eta haien irudimenaren sormen-garapenerako motor gisa.

---

# Dantzan Bilaka

**Audientzia.**

486



Dantzan bilaka

Programarekin lankidetzan, eta Azkuna Zentroak sorkuntzari laguntzeko duen estrategiarekin bat etorritik, jardunaldi honen programan, sorkuntza koreografikoko prozesuen ikaskuntza, ikerketa eta garapenerako 2023an zehar egin diren lanak aurkeztu, eta publikoarekin partekatuko dira.

Artistak: Carolina Campos, Natalia García Muro, Eire Larrea Alonso, Izarne Oyarzabal, Ander Fernández, Dácil Wijks-tröm, Dpwillanueva, Oihana Altube, Ane Zapirain Gorostegi

# Dantzerti

## Neke asko eta ezer ez

Maiatzak 17 eta 18 - Auditorioa

**Audientzia.**  
547

Dantzertiren Arte Dramatikoko Graduaren bosgarren promozioak, Euskadiko Arte Dramatiko eta Dantzako Goi Mailako Eskolak, Iñaki Rikartek zuzendutako “Neke asko eta ezer ez” obra taularatuko du Azkuna Zentroan —Rikartek Max 2023 Saria irabazi zuen “Supernormales” lanarekin—.



Dantzerti. Neke asko ta ezer ez

## Bilbaoko Udal Musika Banda

Irailaren 8 eta 22an – Kulturaren Ataria

**Audientzia.**  
516

## Bilbao Basquefest

Apirilaren 5etik 8ra – Kulturaren Ataria

# LITERATURA



Hitza, adierazpen literarioaren bitarteko legez eta pertsonen arteko komunikazioaren eta elkarrekintzaren ardatz legez; hitza da, hain zuzen ere, Azkuna Zentroaren ardatz programatikoetako bat.

Programazioak literaturaren ikuskera garaikideari hel-tzen dio, liburuak, letrak eta irakurketa gaituz, eta zabaltzen da ahozko adierazpenaren eta transmisioaren artera, ikus-entzunezko narratibara, marrazkira eta komikira. Era berean, ezagutzera ematen du bertako sormen urbanoa eta euskarari lotutakoa, publiko familiarri lotuago dauden adierazpenak, eta azaleratzen ari diren ahots berriak eta hegemonikoak ez diren hizkuntzetakoak.

**5.604**  
jardueretara bertaratutakoak

**52**  
jarduera programatu dira

**51**  
egile, artista eta beste profesional batzuk

**25**  
tailer, aurkezpenak

# GUTUN ZURIA. BILBAO. LETREN NAZIOARTEKO JAIALDIA

**GUTUN  
ZURIA  
BILBAO**

**Gutun Zuria Bilbao**

---

*Idatzi / Editatu / Irakurri*

Martxoaren 28tik apirilaren 1era

**Audientzia .**  
2.810

**Online bisitariak .**  
23.552

**Babeslea:**  
BBK



Abraham Boba



*Gutun Zuria Bilbao. Letren Nazioarteko Jaialdia* hitzaren inguruko urteroko topagunea da, fikzioaren, poesiaren, saiakeraren, nobelaren bidez egina, eta literatura garaikidearen erreferente eta egungo narratibaren ahots berriak biltzen dituena, beren sorkuntza-prozesuak publikoarekin partekatzeko.

*Idatzi / Editatu / Irakurri* izenburuarekin, 2023ko edizioak gizartearen ezaugarri diren aldiberekotasun eta ugaritasunaren premisa hartzen du abiapuntu, eta idazketari, edizioari eta irakurketari begiratzen die praktika beraren zati gisa hartuta.

Horrela, jaialdiak modu berriak islatzen ditu literatura asmatu, ekoitzi, banatu, komunikatu eta kontsumitzeko. Beterie, Azkuna Zentroak hegemonikoak eta homogeneoak ez diren formatu eta edukiak hartzeko eta bultzatzeko egin duen apustutik abiatuta. Horregatik, aurtengo programan nabarmentzen diren egile batzuei literatura-prozesu osoa ardura zaie, idazketatik aktibismora, estudiantik tailerrera, idazketatik komunikaziora, fikziotik ediziora, bakarkako lanetik abian jartze kolektibora.

Gutun Zuria Bilbao gune dibertsoa da, zeharkakoa eta sorkuntza garaikideari irekia, ez du hizkuntza-kuotarik, ezta publiko eta sormen-diziplinako kuotarik ere, eta euskal kulturak garrantzi nabarmena du bertan.

Jaialdian, hogeita hamar jarduera baino gehiago egingo dira Azkuna Zentroan, hainbat formatutan, egun osoan zehar. Idazleekin solasaldiak izateaz gain, hitzaldi musika-tuak, eztabaidak, tailer artistikoak, topaketak eskola-publikoarekin eta argitalpenen aurkezpenak ere izango dira.

BBK Gutun Zuria Bilbao Saria Euskal Herriko eta nazioarteko literatura-sorkuntzako bi erreferenteren emango zaie aurtengo: Anjel Lertxundi eta Cristina Rivera Garzari, gizartearen arrastoagatik lotuta dauden bi literatura-ibilbide desberdin aitortzeko.

Gutun Zuria Bilbaoren beste edizio hau hitzetik abiatzen diren jardueren artxipelago bat izango da, elkarrekin egoteko, hitz egiteko, eztabaidatzeko, ikasteko eta arrastoa uzteko kultura garaikidearen inguruan.

## *BBK Gutun Zuria Bilbao Sariak*

Martxoaren 17an, BBK Gutun Zuria Bilbao Saria emango da. 2022ko edizioan sortu zen, eta euskal eta nazioarteko literaturako funtsezko eragileen sorkuntza-lana saritzen du, ibilbide, obra espezifiko edo kultura-proiektu garrantzitsu baten aitortpen gisa.

2023an, jaialdiaren ohorezko makila euskal eta nazioarteko literatura-sorkuntzako bi erreferenterentzat izango da: Anjel Lertxundi eta Cristina Rivera Garzarentzat.

### **Cristina Rivera Garza**

Eleberrigile, poeta, ipuingile eta saiakeragilea, Cristina Rivera Garza Mexikoko literatura garaikideko ahotsik garrantzitsuenetakoa bat da, eta Sor Juana Inés de la Cruz Nazioarteko Saria bi aldiz jaso duen bakarra.

### **Anjel Lertxundi**

Haur- eta gazte-literaturako, eleberri eta saiakerako 50 lan baino gehiagorekin, Anjel Lertxundi erreferentea da euskarazko literaturan. Idazlea, literatura-kritikaria, kazetaria eta gidoilaria. Bere lanik aipagarrien artean, *Otto Pette* (Alberdania, 1994) eleberria dago, harekin 1994an Literaturako Sari Nazionalako finalista izan baitzen narratiba modalitatean.

# Cristina Rivera Garza eta Isabel de Naveranen arteko solasaldia

## Porque está todavía en el cuerpo

Gutun Zuria Bilbao BBK Saria jaso duen Cristina Rivera Garza idazle eta narratzaile mexikarra hizketan arituko da Azkuna Zentroaren ikertzaile AZKide den Isabel de Naverán kuratore eta idazlearekin.

Idazketa orainaldi partekatu bat sortzeko leku gisa aurkezten da, eta alderdi biografikoa beste batzuek ere hitz egiteko leku gisa. Eta beste batzuekin.

Rivera Garzak eta De Naveránek gonbit egiten digute lurralde batean barneratzeko, non literaturak oroimena ez ezik itzulera ere gaitzen duen. Bizitza esperimentatu delako idazten dela ikusten utziz, eta literaturak kanpoan zeudela uste zuten ahots batzuk agertzea posible egin dezakeelakoan.

## Auditorioko Solasaldiak



Manuel Rivas & Gonçalo M. Tavares

## Anjel Lertxundi Adan Kovacsicsekin *Lecturas de los demás, lecturas de mí mismo*

Martxoak 28

Anjel Lertxundiren literaturan, egunerokotasunezko gaietatik (Vete al infierno, cariño), fikziozko pertsonaiekin egindako birsortze historikoetatik (Otto Pette) eta euskal kondairekin lotutako mito juduetaraino (Un final para Nora) biltzen dira. Erabiltzen dituen erregistroen aniztasunak bere obrek daramaten iturri buruz galdetzera eramaten dute, baita horiek idazkera bihurtzeko prozesuaz ere.

Irakurtzeak idaztera eta norberak idatzitakoa irakurtzera darama, baita Adan Kovacsics, itzultzaile, irakurle eta beste interpretarekin kasuan ere. Adam Kovacsics *Guerra y Lenguaje*, Lehen Mundu Gerran austrohungariar idazleen propaganda-testuen irakurketa eta hitzen itzulgarritasunaren interpretazioa bezalako saiakeraren egilea da.

## Manuel Rivas Gonçalo M. Tavaresekin

*Otra manera, otra marea*

Martxoak 29

Irakurleak eta urpeko istorioak bilatzen dituzten bi idazle. Sakoneran murgiltzen diren bi hizkuntza eta, aldi berean, gainazalera irtetzerakoan, berdinak eta desberdinak direnak. Gutxituta dauden bi hizkuntza (portugesak eta galiziera), era berean, horien bidez mundua handitzen dutenak. Bi autore ospetsu, itsasertzean hasten direnak. Literatura elkar konkistatzeko mareatzat hartzen duten bi eskritura, baina kolonizaziorik gabea.

## Juan Pablo Villalobos eta Elvira Navarro Iván de la Nuezerekin

*La ciudad mutante*

Martxoak 31

Nola kontatu hiria bere giza eraldaketatik? Nola ikusarazi hiri garaikidearen soinu homogeneoaren B aldea? Nola azaleratu globalizazioaren historia minimoak? Nola eman literarioaren gutuna legeek ukatzen dieten izaki migratzaileei? Nola idatzi, editatu eta irakurri mundua alderantziz?

## Bob Pop Alba Carballalarekin

*Contra la sinopsis: las historias no importan*

Apirilak 1

Liburu bat ez da albiste bat, prozedura sorta bat baizik. Buru-kolpeen museo txiki bat, zeinetatik susmatzen dugun artea "nola"ean dagoela, eta ez "zer"ean. Izan ere, benetan axola duena ez da gertatu zena baizik eta tonua, begirada, ikuspuntua, idazkeran eta irakurkean.

## Pol Guasch, Munir Hachemi, Leire Bilbao, Sara Torres

*La poesía no quiere adeptos, quiere amantes*

Martxoak 30

Idazmena praktika kritiko bat bezala garatzen duten poeten mahaia da hau. Alerta egoera batean egongo balira bezala idazten duten ibilbide liluragarria eta errekonozimendu handia duten hainbat belaunalditako poeten mahaia da hau. Ama edo alaba izatea, gerraren eta bakearen krudelkeria, lesbianen gorputz maiteminduak edo maitasun-diskurtsoa ez dago kapsulatuta. Idazketaren bidez deitzen gaituzte eta hartzen duten jarrera zein hartutako jarrera hori zelan eragiten digutenaren kezka sorrarazten dute. Testua bakarrik existitzen da irakurtzen denean, eta orduan, harreman dinamiko horretan, bere balioa ematen zaio. Poesiaren kasuan, agerikoa da poemak irakurtzera bultzatzen duela. Mahai honetan poetak daude, inplikatzeko munduak erakutsiko dizkigutenak.

## Katixa Agirre eta Eider Rodriguez

*Idazle hedatua*

Apirilak 1

Euskal idazleak ondo daki kimera hutsa dela bere marfil-dorrean lan egiten duen idazlearen irudia. Hasieratik dago ohituta askotariko generoetan lan egitera, itzultzera, editatzera, ekitaldiak antolatuzera, eskolak ematera... Idazle ofizio hedatu hori izango dute abiapuntu Eider Rodriguezek eta Katixa Agirrek, eta beren ibilbidean argitaratutako azkeneko lanez jardungo zaizkigu halaber. Izan ere, Rodriguezek Eraikuntzarako materiala argitaratu zuen 2021ean eta Katixa Agirrek Berriz zentauro 2022an, azken boladako nobela nabarmenetako bi.

# Ikus-Entzunezko Ekitaldia

## Abraham Boba

*Esto no es una canción*

Martxoak 28

Abraham Boba, David Cobasek (Vigo, 1975) orain dela hamarkada bat baino gehiagotik musikarekin lotutako lan guztiak sinatzeko erabiltzen duen pseudonimoa da. *Esto no es una canción* León Benavente taldeko abeslariaren lehen poema-liburua; ez da poesia-errezitaldi bat, ikus-entzunezko ikuskizun bat baizik. Abraham Bobak bere poemak soinu-oinarriekin nahasteaz gain, bere testuak show honetarako konposatutako pianoko hiru abestirekin indartzen ditu; gainera, Lois Patiño zinemagile galziarraren ikusizko proiektzioa gehitzen du.

# Bastida Aretoko Topaketak

## Iban Zaldua eta Miren Narbaiza

*La reescritura sonora*

Martxoak 29

Iban Zalduak bere Ipuina Engainua kontakizun liburutik musikako oihartzun esanguratsuenekin osatutako tarteak aukeratu ditu, Miren Narbizak soinu bidezko irakurketa edo berridazketa eman diezaien. Zalduak, rock musikari buruzko ezagutza sakona du. 2011n Biodiskografiak argitaratu zuen historiako 39 albumeko bilduma, The Beatlesen Revolver lanarekin hasita eta Paul Wellerren 22 dreams diskoarekin amaiutz. Bakoitzak bere kontakizunetako bat inspiratu zuen, batzuk esperientzietan inspiratua eta beste batzuetan aldiz, fikzio hutsa. Bestalde, MICEren ahotsa, gitarra eta teklatuak, Miren Narbaizaren izen artistikoa 2017tik, melodien bidez istorioak kontatzeko duen trebetasunagatik nabarmendu dira.

## Jon Gerediaga eta Iñigo Martínez

*Ahopean esan / En voz baja*

Martxoak 31

Ondo legoke une batez egunerokotasunaren zaratatik ihes egin ahal izatea. Leku isilago bat bilatu eta bertan geratzea. Zeregin eta aginte-ahots askoren artean galdu beharrean, bizitza kontenplatiboago baten alde jartzea, hitz egiteko modu lasaiago baten alde. Eta ahopeka hitz egitea.

## Uxue Apaolaza eta Irene Pujadas Beñat Sarasolarekin

*Kontaidazu ipuin bat*

Martxoak 30

Bi ipuin idazle izango dira saio honetako protagonistak. Apaolazaren Bihurguneko nasa (2021) eta Pujadasen Els desperfectes (Puskak, 2021) dira bere azken liburuen izenburuak, eta haiek izango dira elkarrizketa honen muina. Gainera, egile bakoitzaren ikuspegi literarioa ezagutzeko aukera izango dugu, baita ipuinak duen lekuari buruz hausnartzeko ere. Izan ere, batzuen ustez, sistema literario ez-hegemoniko batean idazteak beste aukera batzuk eskaintzen ditu, ipuina bezalako generoei heltzeko. Hala izango da?

## AZ argitalpenak

Martxoak 30

Gutun Zuria Bilbaon, edizioak presentzia handia du. Aurren, argitalpen aurkezpenak Kubo Baltzan egin dira. Programan, Azkuna Zentroak ekoiztutako argitalpenen erakusketan nabarmentzen da, praktika artistiko garaikidea osatzen baitute, hura ezagutu eta zabaltzeko.

### **Liburua - *Somewhere from here to heaven* katalogoa**

Garbiñe Ortega komisarioa den eta Azkuna Zentroak ekoiztutako *Somewhere from here to heaven* erakusketatik abiatuta, liburu katalogo hau Bruce Baillie, 60ko hamarkadako zinemagile garrantzitsuenetako bat, miresteko eta aintzatesteko gune gisa sortu da.

Kasu batzuetan argitaratu ez diren testuak ikusiko dira, historikoak direnak beste batzuetan... Ipar Amerikako abangoardia zinematografikoaren sortzaile garrantzitsuenetako baten inguruan hitz egiten du katalogo hau.

### **Egileak**

Erika Balsom, Steve anker, Scott McDonald, Jonas Mekas, Peter Hutton, Max Goldberg, Andréa Picard, JP Sniadecski, Apichatpong, Weerasethakul, Ana Vaz, Ben Rivers eta Eduardo Williams

### **Metakoadernoak**

Zentroan egiten diren proiektuetatik haratago doazen gaiak jasotzen dira Azkuna Zentroak sortutako koaderno hauetan, baita Babestu, Sorkuntzari Laguntzeko Programa, ekimenaren esparruan garatutako proposamen artistikoko beste formatu batzuk ere.

AZ argitalpenen bilduma berria Scriptbarik, Ander Perez Puelles, M. Benito eta Macarena Recuerda Shepherdren proiektuekin sortu da.

### **Revista Stock. Artea, pentsamendua eta kultura garaikidea**

*Stock*, sorkuntza eta ikerketa artistikoaren inguruko ezagutza zabaltzeko argitalpen-plataforma gisa sortu zen, tokiko, estatuko eta nazioarteko testuinguruan artisten eta sortzaileen ikusgarritasuna handitzeko; programazioa hedatzeko, Azkuna Zentroaren substratu kulturalaren geruza bat gehiago sortuz; eta ezagutzaren eta etorkizunaren sedimentu bat uzteko, ArtxiboAZ zentroaren artxibo digitalaren bidez.

## **ArtxiboAZ. Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaoren artxibo digitala**

ArtxiboAZ, Azkuna Zentroa ireki zenetik zentroan egon diren ekoizpen artistiko guztiak bildu, sailkatu eta zabaltzen duen Artxibo Digital Berria da.

Plataforma honen bidez, kartelak, areto-orriak, liburuxkak, aldizkari-orriak, prentsa-txostenak eta ikus-entzunezkoak (argazki, audio-gidak, podcastak edo bideoak) deskargatu daitezke. ArtxiboAZ, Mediateka BBKren katalogoarekin lotuta dago eta artisten eta kultura-eragileen profilen datu-basea du.

## **Hitzari buruzko sorkuntza AZn**

### ***Euskal Herria eta Japoniaren arteko komikigintza trukea***

Apirilak 1

Literatura-lan bat itzultzeko, hizkuntza eta kultura ezagutu behar dira, bi hizkuntzen arteko baliokidetasunak bilatzeaz harantz doan jardura baita. Saio honetan, Etxepare Institutuak literatura-sorkuntzaren prozesu honen gakoak aurkeztuko ditu, komikien itzulpenaren bidez.

Saioan parte hartzen dute Hiromi Yoshidak, Black is Beltzaren itzultzaileak, Koro Murok, Harrieten editoreak eta Joseviskyk (Joseba Larratxe), komikigileak. Ainara Azpiazu – Axpi ilustratzailea moderatzailea da.

José Ramón Ais: *Prospettiva* (Caniche, 2023)

José Ramón Ais (Bilbo, 1971) artista bisualak *Prospettiva* aurkeztuko du, saiakera fotografi ko bat, zuhaitzen lerroka-duraren prototipo gisa artikulatua, naturak erronka ekologikoen aurrean espazio publikoaren eraikuntzan duen zereginari buruz hausnartzeko eta boterearen irudikapenean duen erabilera aztertzeko.

José Ramón Aisen lanak paisaiaren eraikuntzarekin eta irudikapenarekin lotutako kontzeptuak ditu aztergai. Naturari buruzko kontakizunak, ideologiak, desioak eta utopiak proiektatzeko erabiltzen diren lotura emozionalak eta moduak aztertu nahi ditu.

# Jarduera osagarriak

## Mama Crea

### *Desiderata*

Martxoaren 20tik 27ra/Bilbo

Martxoaren 28tik apirilaren 1era/Azkuna Zentroa



Mama Crea. *Desiderata*


Desideratak hausnarketa bat proposatzen du zainketa garrantziari buruz, irakurtzeko eta idazteko espazioak eta objektuak zaintzeko esperientziaren bidez.

Desiderataren jatorria Gutun Zuria Bilbao. Azkuna Zentroko Letren Nazioarteko Jaialdia ekimenaren azken edizioan dago. Bertan, liburutegi ibiltari bat Bilboko hainbat lekutara joan da, jaialdiaren komunikazio-estrategiaren barruan.

## Desireé Rubio

### *Testua tenkatu*

Martxoak 29



Desireé Rubio. *Tensar el texto*

*Escrito a lápiz* argitalpen-laboregiko Desireé Rubio artistak emandako tailer hau testuaren tentsioaren inguruan garatzen da, liburuan hari bidez esku hartuz. Brodatzea baliabide bat da testu bat berrirakurtzeko, azpimarratzeko eta aztertzeko. Hariak zabaldu egiten dira emakumeen irudiak dituzten liburu-azaletan; elkarrizketak ehuntzen dituzte bi libururen artean; testua zeharkatzen dute, azpimarratuz; orriak tenkatzen dituzte arku-forman; eta hitz-konstelazioak brodatzen dituzte poemetan. Horrela, testua tenkatzeko moduak jorratzen dira, eta, amaitzeko, irakurketa performatiboa egiten da parte-hartzaileekin, liburu batean brodatutako azpimarratuak gainjarrit.

Tailer hau bereziki zuzenduta dago irakurketa-klubei eta idazketan, edizioan, literaturan, kultura bisualean eta antze-koetan interesa duten pertsoneri.

Andrea Ganuza, Charlotte Gosselin,  
Clara Chotil  
*Salda badago!*

GUTUN  
ZURIA  
BILBAO

Martxoak 29. Galería Mediateka

### Komikiaren Nazioarteko Egonaldiaren erakusketa

Martxoaren 29an, Gutun Zuria Bilbao. Letren Nazioarteko Jaialdiaren barruan, *Salda badago!* erakusketa jarriko da martxan. Andrea Ganuza, Charlotte Gosselin eta Clara Chotil artisten proiektuak aurkeztuko ditu, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok, Quebec-eko Maison de la Littérature-k eta Angulemako Cité Internationale de la Bande Dessinée et de l'image-k bultzatu duten Komikiaren Nazioarteko Egonaldiaren esparruan.

### Topaketa / elkarrizketa

*"Liburu" kontzeptua jorratzeko beste modu batzuk.*  
*Ertzetatik editatu*

Martxoak 30

Berridaztea, desitxuratzea, brodatzea eta birziklatzea teknika errepikakor gisa. Desireé Rubio artistak *Escrito a lápiz* proiektuaz hitz egingo du argitalpen ez-tradizionaleko laborategi gisa, eta objektu-liburu, artista-liburu, objektu performatibo eta erreakzio poetikoko objektuez ere. Irakurtzea eta berrirakurtzea. Testuaren tentsioa liburuan hari bidez esku-hartuz erakusten da.

Tailer hau bereziki zuzenduta dago idazmenarekin edo ikus-entzunezko komunikazioarekin lotura duten helduei, eta literatura eta idazketarekin lotura duten ikasle eta unibertsitateko eragileei.

### Juan Pablo Villalobos

*Historias del Raval*

Martxoak 31. Kubo baltza

"Si tienes una historia, tienes una historia que contar". Juan Pablo Villalobos idazle mexikarrak *Historias del Raval*, Miqui Otero eta Júlia Martírekin batera sortutako eta Blackie Books argitaletxeak eta La Central liburu-dendak babestutako literatura-proiektua, eskola-publikoarekin partekatuko du, Ravaleko institutuekin eta elkarteekin elkarlanean.

---

## Liburudendaz

dendAZ, Azkuna Zentroaren denda, jaialdiaren liburudenda eta erreferentziako gunea da ekoizpen editorialaren inguruko topaketarako. Gainera, arratsaldero, liburuak saltzeko gunea bat jarriko da Auditorioko foyerrean, jaialdiko gonbidatuek argitaratutako liburuekin.

# LITERATURAKO JARDUNALDIAK

Babeslea:  
BBK

## Komikteka. Komikiari buruzko ezinbesteko elkarrizketak

Urtarrilatik abendura

Parte-hartzaile.

76

ivoox.

40.756

Komiktekan bitartekaritza-ziklo bat jarri da abian, komiki amerikarraren, europarraren, espainiarraren eta mangaren munduko ezinbesteko figuretako batzuen inguruan, guztiak ere Mediateka BBKren bildumakoak. Topaketa hauek eleberrri grafikoaren zaleei eta diziplina hau ezagutzen hasi nahi dutenei zuzenduta daude. Topaketa hauek eleberrri grafikoaren zaleei eta diziplina hau ezagutzen hasi nahi dutenei zuzenduta daude.



Urtarrilak 25

**Alison Bechdel**

*Fun Home*

Otsailak 22

**Claire Bretécher**

*Agripina*

Martxoak 22

**Hiromu Arakawa**

*Fullmetal Alchemist*

Apirilak 16

**Quino**

*Mafalda*

Maiatzak 24

**Jaime Hernández**

*Locas*

Ekainak 21

**Posy Simmonds**

*Tamara Drewe*

Urriak 25

**Antonio Altarriba**

*Kim. El arte de volar*

Azaroak 15

**Mangatik zinemara. Japoniako zinema garaikidea**  
**Zinematekako zikloarekin lotuta**

**Katsuhiro Otomo**

*Akira*

Azaroak 22

**David B**

*Epiléptico: la ascensión del gran mal*



# Zinema-elkarrizketak. Argiak, kamera, ekin!


Mediateka BBK

## Parte-hartzaile.

85

Topaketa bakoitzean, aukeratutako zuzendarien biografia eta horien sormen-prozesuak jorratzen dira, eta filmen gaien eta egungo testuinguru sozialaren arteko paralelismoak bilatzen dira.

Gainera, saio bakoitzean, tituluari buruzko bibliografia espezifikoa aurkezten da: oinarri dituzten eleberriak eta/edo komikiak eta Mediatekaren ikus-entzunezkoen funtsean dauden soinu-bandetako batzuk.



Urtarrilak 10

**Guillermo del Toro**

*El laberinto del fauno (2006)*

Otsailak 14

[Zinematikarekin lotutako jarduera](#)

**Nouvelle Vague**

Martxoak 14

**Carla Simón**

*Verano 1993 (2017)*

Apirilak 18

**Stanley Kubrick**

*El Resplandor (1980)*

Maiatzak 9

[Zinematikarekin lotutako jarduera](#)

**Jean-Luc Godard**

*À bout de souffle (1960)*

Ekainak 6

**Ridley Scott**

*Blade runner (1982)*

Urriak 31

**Federico Fellini**

*La Dolce Vita*

Azaroak 14

[Mangatik zinemara. Japoniako zinema garaikidea](#)

[Zinematikako zikloarekin lotuta](#)

**Katsuhiro Otomo**

*Akira*

Abenduak 12

**Martin Scorsese**

*La Edad de la Inocencia*

---

# Irakurketa kluba

## *Munduko Literatura*

## *Hiriko Literatura*

### Parte-hartzaile.

101

Irakurketa-klubaren helburua da beste herrialde batzuetako literaturara hurbiltzea, horietako idazle garrantzitsuenetako batzuen bidez, eta BBK Mediatekan aktibatu da.

Urtarrilak 19

**Patrick White**  
*Voss*

Otsailak 2

**Nadine Gordimer**  
*Mejor hoy que mañana*

Martxoak 2

**Elizabeth Smart**  
*En Grand Central Station me senté y lloré*

Apirilak 20

**Khaled Hosseini**  
*Cometas en el cielo*

Maiatzak 4

**Alaine Polcz**  
*Una mujer en el frente*

Ekainak 1

**David Coventry**  
*La milla invisible*

Urriak 5

**Orhan Pamuk**  
*Estambul*

Azaroak 2

[Mangatik zinemara. Japoniako zinema garaikidea](#)  
[Zinematekako zikloarekin lotuta](#)

**Yashunari Kawabata**  
*Kioto*

Azaroak 23

**Anónima**  
*Una mujer en Berlín*

---

## Irakurketa erraza

### Parte-hartzaile.

227

Topaketei esker, irakurtzeko gaitasun desberdinak dituzten pertsonen liburu bat formatu egokitu batean irakurtzeaz goza dezakete, eta partekatuko dute. Dinamizatzailerik batek gidatutako istorioak. Irakurketa Erraza - Euskadiko Irakurketa Erraza elkartearekin batera bultzatutako dinamika honek irakurketa partekatua bultzatzen du ozenki, eta historiarekin eta testuaren ulermenarekin lotutako hainbat ariketa eta jarduera ere egiten dira.



---

# Mediateka UDAN

## Haurrentzako jarduerak

Uztaileko asteartean eta ostegunetan

Mediateka UDAN programarekin jarri da martxan Mediateka BBK, eta literaturaren eta hitzaren inguruko hainbat jolas eta jarduera sortzaile egingo ditu, 6 eta 12 urte bitarteko haurrentzat.

Saio horiek zentroko hainbat gunetan egin dira: Txikitekan, familientzako eta haurrentzako esperimentazio-lekuan; eta Azkuna Zentroko terrazan, hor zegoen baita Susana Velascoren *Tierra de nadie* instalazio-pieza, *Prototipoak*, 2023ko *Forma Artistiko Berrien Nazioarteko Bienalean* aurkeztua.



---

# Mediateka gabonetan

## Haurrentzako jarduerak

Abenduaren 26tik urtarrilaren 4ra

Gabonetan, Mediateka BBK-k hainbat jarduera proposatu ditu zentroko bi erakusketen inguruan, sorkuntza garaikidea haurrei eta familiei hurbiltzeko.

### Bene Bergado. *Urritu*

Bene Bergado artistaren *Urritu* erakusketak baliabide naturalak neurririk gabe erabiltzeak dituen ondorioak erakusten ditu Erakusketa Aretoan. Jarduera honen bidez, haurrek aukera izan dute erakusketa honen edukira eta forma artistikora hurbiltzeko, hainbat materialekin sortu eta esperimentatuz. Saio bakoitzean artistak erabilitako teknikak eta materialak erakutsi dira, erakusketa osatzen duten piezetako batzuk erreplikatzeko. Gero, lanak Mediatekan erakutsi dira.

### ULISES 2.0

*Ulises 2.0* erakusketak Bilbon bizi diren pertsonen migrazio-bizipenak erakusten ditu, eta ilustratzaile profesionalen lanarekin batera elkartu. 13 herrialdetan jaio eta 25 hiritan bizi diren gizon-emakumeek elkarrizketa grafikoak osatu dituzte horrela, nor bere lekutik abiatutako bidaia zail horren inguruan.

Jarduera honetan, haurrek eta familiek aukera izan dute ilustrazioaren mundura hurbiltzeko, komunikazio-adierazpen gisa. Erakusketa elkarrizketa bidez bisitatu ondoren, parte-hartzaileek piezetako bat aukeratu, eta beren interpretazioa egin ahal izan dute, marrazkia edo beste edozein baliabide erabiliz, hala nola idazketa edo ahozko kontakizuna.

PROIEKTU  
ESTRATEGIKOAK

Connect

Todo será igual.  
Nada será igual.

*Imajinatu*

*Entzun*

Hezitu

Inventa

# SORKUNTZA ETA EKOIZPEN ARTISTIKOARI LAGUNTZEKO PROGRAMAK

## 42

artista eta ikertzaile egoilarrak



Urbanbat. Behatokia

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok ikerketa, sorkuntza eta ekoizpen artistikoari laguntzeko hainbat ekimen garatzen ditu programazio-ildoei lotuta: arte bisualak, arte biziak, zinema eta ikus-entzunezkoak, literatura, kultura digitalak eta gizartea. Prozesu horiek guztiek beti dute alde publiko bat, eta publiko-komunitateei aukera ematen diete hausnarketa artistiko garaikidea egiteko, bai egindako lanaren bidez, bai sormen-prozesuen bidez.

Artea espazio guztietan sortzen da, Erakusketa-Aretoan edo Mediatekan ere bai, etapa berri honetan konektat-

zeko pentsatzeko eta sortzeko leku gisa planteatu baita. Baina Lantegia. Ideien Laborategia da Azkuna Zentroko sorkuntza eta esperimenezko espazioa. Lan-habitat, esperimenezko-tailer bat da, eta, bertan, harreman-mota desberdinak ezartzen dira, trukea, prozesuak eta sorkuntza artistiko garaikideari bide emateko. Era berean, leku irekia eta sarbide askekoa da, prozesu horiek ezagutzera hurbildu nahi duten ikusle-komunitate guztientzat

---

# Sorkuntza eta ekoizpen artistikoari laguntzeko programak

## Gonbidapenez

- Kolektibo egoiliarra
- Ikertzaile AZ Kideak
- Artista AZ Kideak
- Lanean. Prozesu artistikoei laguntzeko programa

## Deialdi bidez

- Babestu. Sorkuntza garaikidean laguntzeko programa
- Komikiaren nazioarteko egonaldia

---

## Babestu. Sorkuntza garaikidea babesteko programa berezia

Azkuna Zentroak sorkuntza garaikideari laguntzeko Babestu ezohiko programaren lehen deialdia egin zuen 2020an, COVID-19aren krisiak eragindako salbuespenezko egoerari erantzuteko, sortzaileek aukera izan zezaten pandemiaren ondorioz kaltetutako prozesuak eta ikerketak garatzen jarraitzeko.

Azken bi urtetan, beharrezkotzat jo izan da sorkuntza artistikoa bultzatzeko deialdia egiten jarraitzea, eratze-prozesu horiek indartzea eta pertsonen beren proiektuak garatzen lagun egitea. Laugarren edizio honetan Jon Gerediaga, Abel Jaramillo, Gala Knörr, Lorea Burge y Ane Berganzaren proiektuak aukeratu dira.

Haien proiektu eta ikerketa artistikoak artearen narratiba berriei begira daude, eta antzerkiaren, arlo performatibo eta grafikoaren eta instalazio eskultorikoaren arteko elkargunean kokatzen dira; irudia, gorputza eta ahotsa; artxiboa, artist moving image-a eta bideo-saiakera; zinema, bideo-arte eta new mediak.

### Jon Gerediaga

#### *Poesis Logos Poetikoaren Agerraldi Batzuk*

Egoitzean egongo den bitartean Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaoko arlo baten lan bat egingo du. Helburua logos poetikoari edo sormenari buruzko saiakera literario bat sortzea da, ikerketa antropologikoaren berezko behaketa parte-hartzailearen bidez.




Jon Gerediaga kultura-antropologian doktorea eta filosofo-irakaslea da, euskaraz argitaratutako hainbat poema-liburuen egilea da eta, horrez gain Gerediagak berak itzuli ditu, hala nola: *Fitola Balba*, *Karpuki Tui* (Pamiela, 2004); *Jainkoa Harrapatzeko Tranpa* (Pamiela, 2007; Premio de la Crítica y finalista del Premio Nacional); *Zentauro-hankak* (Pamiela 2011); *Argia, Lurra, zuhaitza, zerua* (Pamiela 2015; Lauaxeta Saria); *La luz, la tierra el árbol el cielo* (Pamiela, 2017); *Urtaroak eta zeinuak* (Pamiela 2019); *Natura berriak* (Pamiela 2020; Kritika Saria, Xabier Lete Saria eta Lauaxeta Saria); *Nuevas naturalezas* (Pre-textos 2021).

## Abel Jaramillo

### *Ninguna noche en llamas*

*Ninguna noche en llamas* bideo-instalazioa, eskultura eta idazketa barne hartzen dituen diziplina anitzeko proiektua da. Kontakizunen eraikuntza, historiaren mekanismo narraitiboak, hizkuntzaren bidezko eraldaketaren ideia eta garai desberdinetan errepikatzen diren irudiak biltzen ditu lanak.



Arte Ederretan graduatua eta Arte Garaikide, Teknologiko eta Performatiboko Masterrean irakaslea da EHU/UPVn Abel Jaramillo. Bere lana erakutsi du hainbat hiritan, hala nola, Bilbon, Bruselan, Bartzelonan, Palman, Granadan eta Badajozen. Modu kolektiboan, hainbat erakusketatan parte hartu du: La Casa Encendida, Centro Zentroan, Bikini Wax Eps (Mexiko Hirian) edo Rafael Botí Fundazioa (Kordoba), Centre del Carmen (Balentzia). Egoitza ezberdinetan egon da, alegia, Roman dagoen Espainiako Akademian (Roma, 2022- 2023), Las Cigarreras (Alicante, 2020), edo Hangar (Lisboa, 2018).

## Gala Knörr

### *Closer*

*Closer*-en helburu nagusia ikerketatik egituratutako eta eraikitako ekoizpena da. Halaber, Europa mailako “underground” kulturaren historiaren kontaketatik abiatzen da eta hortaz, denbora-tarte zehatz batean kokatzen da, sistema politikoaren berregituraketak kapitalismo sutsuenaren barruan aisialdia ulertzeko modua menderatu zuen garai hartan.



Gala Knörr ikus-entzunezko artista da. Persons Parisen Arte Ederretan graduatua eta Central Saint Martinsen Masterra ikasi zuen. Obra Abierta Fundación Caja Extremaduraren finalista izan da, eta Miquel Casa – blancas Saria irabazu zuen, baita Fundación Vila Casasen pintura Saria ere. Gainera, BMWko Marrazketa Sarirako hautatuakoen artean geratu zen. MORPHO (Amberes, 2023), BilbaoArte Fundazioa (Bilbo, 2022), Tabakalera (Donosti, 2021), AIR Wro (Breslavia, 2021), Cité Internationale des Arts (Paris, 2019) edo Solomon R Guggenheim Museum (Nueva York, 2017) bezalako egoitzetan egon da.

## Lorea Burge

### *Sonic Fielding*

*Sonic Fielding* soinu ikertzeko proiektu bat da, mugimenduan dagoen gorputzari eta espazioari buruzkoa. Ikerketa hay 2023ko otsailean hasi zen, hasieran ikerketa koreografiko bat bezala, musika sortu ahal izateko desiragaitik sortuta. Elkarren artean lotuta dauden soinu eta sekuentzia fisiko-soinudunen artxiboa metatuko duen prozesua da. Proiektuaren helburua “feedback loops” espazialak, soinuuzkoak eta ekintzen esanahian sortzea da. Horrela, iraganeko ekintzen arrastoak geratuko dira, soinu-mugimenduko aldi baterako liburutegi bat sortuz.



Lorea Burge artista independentea da, performancea, koreografia, inprobisazioa, soinu-arte eta marrazketa lantzen ditu. Gaur egun, gorputzak musika sortzeko modu ezberdinak aztertzen ditu, mugimendua eta espazioa tresna gisa erabiliz.

Unbaptised Infants (est. 2015) kolektiboaren parte da Hannah Parsons (UK) eta Josefina Rozenwasserekin batera (AR/ES) soinu-dantzako ikuskizun esperimentalak eta murgitzaileak sortuz. Hiru lan sortu dituzte eta Erresuma Batuan zein Espainian zehar girak egin izan dituzte. Lorea hainbat espaziotan aritu da, hala nola galerietan, paisai naturaletan eta Europako zein Asiako maila handiko taberna eta antzokietan.

## Ane Berganza

*que se basta a sí mismo*

*que se basta a sí mismo* proiektua praktika eta ikerketa eskala handi batetik, eskala txiki batera eta alderantziz artikulatzeko proposamena da. Hizkuntza plastikotzat eta performatibotzat hartzen du. Horregatik, ekintzak performancearen bidez eskainiko dira, Azkuna Zentroaren tes-tuinguruan aldaketak eginez.



Ane Berganza Artea graduatutako artista da eta gaur egun Artea Ikerketa eta Sorkuntza Masterra (UPV/EHU) egiten ari da. Expanded Media Ikasketak Athens School of Fine Arts-en burutu ditu. Performancearen esparruan lan egiten du eta soinua eta hizkuntza dira bere jardunaren ar-datz nagusiak.

---

## Artista AZkideak

Programa honek laguntza ematen dio sorkuntza artistikoari, beren lanetan lengoia artistikoei buruzko begirada inspiratzailea duten sortzaileak sustatuz eta bultzatuz.

Lankidetzarako marko bat, zentroaren programazio-ildoekin bat datorrena, kultura garaikiderako eta sormen-prozesuen babe-serako sarbide-plataforma izatea indartzeko.



### Elena Aitzkoa.

*Ur aitzak*

Elena Aitzkoa (Apodaka 1984), 2022ko AZ artista kide berria, besteak beste, eskulturan, marrazketan, poesian eta performancean eta filmak egiten aritzen da. Haren sorkuntzalanak ekosistema heterogeneo bat dira, eta ingurune gutxiasko hurbileko elementu fisikoak eta emozionalak eta biziesperientziak dituzte oinarrian.



### Miguel A. García.

*Comclapompos.*  
*Usar el flujo como un cauce*

Miguel A. García (aka Xedh), 2022az geroztik AZ artista kide berria da, musika esperimentalaren eta soinu-artearen arloan lan egiten duen artista. Bai bakarka bai taldeka, Europan, Amerikan eta Asian jardun du. Hainbat artistekin aritu da bai estudioan eta bai zuzenean, ehun diskotan baino gehiagotan agertuz.





## Ion Munduate. *Rosas en el viento*

Ion Munduate (Donostia, 1969) AZ artista kide berria da 2022tik. Blanca Calvorekin batera, 1994an lankidetzeta artistikoa hasi zuen, eta hainbat lan sortu zituzten. Aldi berean, Mugatxoan sortu zuten 1998an (Gure Artea 2015 saria), ikerkuntzan eta sorkuntzan oinarritutako prestakuntza-proiektua. Bere performance eta bideoak Europako hainbat espaziotan aurkeztu dira.

---

## Ikertzaile AZkideak

Egungo sorkuntzaren inguruko analisia eta ekoizpena bultzatu eta sustatzeko programa, komunitate artistikoen, publikoen eta beste profesional batzuen arteko trukea errazten duena.



@ Helena Goñi 2021

## Aimar Arriola

Aimar Arriola komisarioa *Forma-desira bat* proiektua garatzen ari da ikertzaile AZkide gisa zentroaren programazioaren barruan. Proiektuak artearen eta queer/kuir ikuspegiaren arteko harremana hartzen du esparru orokortzat, eta haren jarduna mugatzen du forma- eta interpretazio-gaien inguruan. Teoria kritikoaren eta gizarte-zientzien esparruan, queer/kuir ikuspegia deskribatzen da maskulinitateari eta feminitateari buruzko konbentzio sozialak zalantzan jartzen dituen perspektiba gisa, horiek desnaturalizatzen, eta borroka feministen, antirrazisten eta dekolonialen eta LGBTIQ+ borroken iraganaren eta orainaren arteko elkarriketa bilatzen baitu.



@ Lorea Alfato, 2021

## Isabel de Naverán

Artean doktorea da UPV/EHUn, eta Artes ikerketa-taldeko kidea Madrilen. Artea, koreografia garaikidea eta performancea lotzen dituen bidegurutzean ikertzen ari da, kura-toretzako, edizioko eta idazketako proiektuetan. Arreta berezia jarriz gorputzaren pertzepzioan, zentzumenen lokailua den aldetik, proiektuak idazketa bat entseatu nahi du, aldi berean entzuteko gailu eta ikerketa-metodologia dena.

# Kolektibo egoiliarren programa

Sorkuntza eta ikerketa artistikoari laguntzeko programa bat da, kultura garaikidearekin zerikusia duten talde, kolektibo artistiko eta kooperatibei zuzenduta, beren proiektu artistikoak zentroan bi urtez gara ditzaten.



## Urbanbat. *Behatokia*

### Elkarlanean.

Grupo Urbegi

## urbegi

Urbanbat, hiri-berrikuntzarako bulegoak, *Behatokia* proiektua landu du Azkuna Zentroko kolektibo egoiliar gisa. Bi urteetan, hiri-behatokia aktibatu du, eta hausnarketa komun bat proposatu du, hiri garaikidean dimentsio askoko krisialdia (ingurumenekoa, osasunekoa, ekonomikoa, energetikoa, soziala) nola agertzen den aztertzeko.

Agora-formako arkitektura eramangarri gisa diseinatuta, *Behatokia* Zentroan eta hiriko hainbat tokitan jarri da, eztabaidarako guneak irekitzeko, arteak eta kulturak hiri-eraldaketatik duten zereginari buruz, baita arteak imaginario berriak sortzeko eta beste mundu posible batzuk proiektatzeko duen berrikuntza-gaitasunari buruz ere.

Programaren osagarri, herritarrek parte hartzeko dispositibo bat jarri da, ingurune hurbileko krisiekoerari buruzko datuak jaso eta bistaratzeko.

# Lanean. Prozesu artistikoei laguntzeko programa

Lanean. Prozesu artistikoei laguntzeko programaren helburua da deialdi irekia egitea, gonbidapen bidez, obra eszenikoak ekoizteko. Lanean programaren bidez, sortzaileek beharrezko baldintza material eta espazialak dituzte arte biziekin lotutako proiektuak garatzeko, eta Zentroaren programazioa ere bai, horiek garatu eta Azkuna Zentroan aurkezteko.



Pablo Viar. *Confines*

## Estudio Gheada

### *El Mejor de los Mundos (EMDLM)*

Gheada estudioak *El Mejor de los Mundos* (EMDLM) en-tseaten du, performancea, bideoa eta teknologiaren erabilera narratiba eszeniko gisa aztertzen dituen proiektu eszenikoa.

Eszenaratze honetan, ikuslea Ane Pikaza artistaren eskutik zuzenean eboluzionatuz doan ikus-entzunezko autoerretiratu baten eraikuntzaren lekukoa da.

## Oscar Gómez Mata

### *Inactuales*

Beren konplizitate artistikoa jaio zen *MAKERS* sorkuntzarekin. Oscar Gómez Matak sortu zuen Compagnie l'Alakranekin, Azkuna Zentroko Artista AZkide gisa. Hori da, berriz, *Inactuales*-en sormen-bultzadaren oinarria. Pailazo metafisikoen bikote honek jarraitzen du sentiberatasunaren azpian sentiberatasuna bilatzen. Oraingoan materia bizigabea dago hor, frogatu gabeko egia batzuk guri erakusteko.

## Pablo Viar

### *Confines (Mugak)*

Pablo Viar antzerki-, opera- eta zarzuela-zuzendaria da. Azkuna Zentroan izandako egonaldian, *Confines* antzerki-pieza berria landu du. Haren bidez, hausnarketa bat egiten du munduan gizaki gisa dugun existentzia baldintzatzen duten helburu edo mugei buruz, eta horiek gainditzeko dugun gaitasunari eta desirari buruz.

## Nazario Díaz

### *amanecer alto cielo*

*amanecer alto cielo* lanak, alde batetik, egitura eszenografiko ugari egiten die dei espazio huts batean, beren materialtasunak korapilatzen dituzten testu-praktika desberdinen bidez, eta, bestetik, ikusmenaren kalitate desberdinak jorratzen ditu, eta horiek nola aldatzen dituzten gorputzak eta haien pertzepzioa.

## Lastesis

### *Canciones para cocinar*

Lastesis kolektibo artistikoa Azkuna Zentroko egonaldian ari da garatzen bere azken lanaren sormen-prozesua *Canciones para cocinar*. Bere performance berriaren abia-burua «sukaldean laguntzen digun musika erradiala da, genero-roleri lotutako etxeko dimentsioaren espazio enblematikoa baita sukaldea».

Zuzenean soinu-zuko eta ikusizko unibertso bat eraikiz, *Canciones para cocinar* lanean, performerrak kantuen, poemen eta saiakeren artean ibiltzen dira, eszenaratze multimedial batetik abiatuta.

## Lari Produzioak

### *Zaintzaren dantza*

Plataformak haurrentzako piezak garatzen ditu, aniztasunari buruzko lana jorratzeko. 2019an Azkuna Zentroan estreinatu zen Meri, Mari eta Lari ikuskizunarekin jaio zen. *Zaintzaren dantza lanak* jarraipena ematen dio helburu horri, eta mezua zaintzaren eremu desberdinetara zuzentzen du: erantzunkidetasun-ereduak finkatuz, autozaintza eta autoestimua sustatuz, ingurumena zainduduz eta desberdina dena babestea bultzatuz, eredu sozial inklusibo baten bidez.

## Led Silhouette

### *Halley*

Giza esperientziak eta gizakiaren galdera handiak, antzinatek aldatzen ez direnak, elikagai poetiko dira proiektu honetarako, Led Silhouette-ren (Martxel Rodríguez eta Jon López) sortzaileek azaldu dutenez. Diotenez, eraikitzen edo deseraikitzen ari den leku bat da, bizi garen gizarte honen alegoria bat, non zama handiak daramatzaten pertsonaiak, bidea ibili behar duten eta zorionetik aldentzen dituzten ezbeharrak eta akatsak gainditu nahi dituzten horiek, elkartu egiten diren istorio berri bat kontatzeko. Ilusioa ez baita jaten, baina elikatu egiten du.

## Tripak

### *Platea*

*Platea* Tripak euskal konpainiaren hirugarren ekoizpena da. Heriotzaren eta bizitzaren artean gertatzen denari buruzko hausnarketa existentziala, umorerako eta absurdorako tartea ere baduena. Obran, umoreak eta absurdoak zeharkatzen dituzte minaren eta urraduraren irudiak; kantu polifonikoen eta akordeoien eta biolinaren soinuek —klasikotik esperimentalera joz— ikuspegi poetiko eta abstraktuak biltzen dituzte.

## Ça Marche

Nico Jongen eta Laura Viñals dira 2015ean sortu etaartzelona finkatutako Ça marche arte eszenikoen konpainiaren gunea. AZko egonaldia proposatzen dute praktika artistikoaren eta ekoizpenaren esparruan metodologiak, ikuspegiak eta gogoetak partekatzeke, hala zentroko taldeekin, nola hiriko sare soziokulturalarekin.

## Miren Gaztañaga eta Ainhoa Artetxe

### *MODER-MA*

MODER-MAk hizpide duen triangelua M eta A ahizpek eta bien AMAk osatzen dute. Triangelu horrek norabide guztietan eragiten du, eta guztiak dira ezinbestekoak istorio honi heltzeko.

# Nazioarteko Egonaldiak

Sorkuntza garaikidea sustatzeko programak hurbileko sormen-sarea lotu nahi du homologagarriak diren nazioarteko kultura-inguruneekin, truke, harreman eta lankidetzara iraunkor eta elkarrekikoen bidez.

Horretarako, ezinbestekoa da sarean lan egitea, lehen mailako gune eta proiektu garaikideekin. Hainbat partnert-en laguntza du, besteak beste, Etxepare Institutoarena.

## Komikiaren Nazioarteko Egonaldia

2023an, Azkuna Zentroak komikiaren nazioarteko hirugarren egonaldia jaso du, Quebec-eko Maison de la Littérature-rekin eta Angulemako Cité Internationale de la Bande Dessinée et de l'Image-rekin batera, komikiaren esparruan sorkuntza sustatzeko eta hainbat herrialdeko pertsonen arteko elkarketa bultzatzeko, eleberrigrafiako funtsezko ingurune profesionalen, beste diziplina garaikide artistiko batzuetako artistekin konektatuz.



### Fran Mengual (Bilbao)

Fran Mengual ilustratzailea eta komikien marrazkilaria da. Bere ilustrazioak El País Semanal-eko artikuluekin batera azaldu dira. 2018an bigarren saria irabazi zuen Fuencarraleko Literatura Lehiaketan, *Los fantasmas te tienen miedo* komikiarekin. 2017an lehen eleberrigrafikoa egin zuen, *lobomalo* izenekoa, eta horrekin irabazi zuen 2018an Kantabriako Nobela Grafikoaren Saria. Gaur egun ilustrazio- eta komiki-irakaslea da Belart Formación-en.



### Lisa Blumen (Angoûleme)

Lisa Blumen Estrasburgon bizi eta lan egiten du. Estrasburgoko Dekorazio Arteen Goi Eskolan (HEAR) lizentziatu ondoren, gazteentzako hainbat liburu argitaratu zituen (horien artean, Le Rouergue-k argitaratutako *La vérité sur les fantômes*), bere lehen komikia idatzi aurretik: *Avant l'oubli* (L'employé du moi-k argitaratua). Bere azken lana *Astra Nova* da (L'employé du moi-k argitaratua), eta hori ere zientzia fikzioan oinarritzen da.



### Pascale Sévigny-Vallières (Quebec)

Pascale Sévigny-Vallières Quebec hirian jaioakoa da. Diseinatzaile grafiko gisa prestatu zen UQAMen (Quebeceko Unibertsitatean, Montrealen), eta, gero, diseinuko master bat egin zuen Laval Unibertsitatean. Graduondoko ikasketen esparruan, ikerketa- eta sorkuntza-proiektu bati ekin zion, osasun mentaleko arazoaren irudikapen grafikoari buruz. Bere lanak sari eta beka ugari jaso ditu.

# ARTE ETA KULTURA GARAIKIDEKO PRAKTIKA ETA TEORIAKO MASTERRA



Arte eta kultura garaikideko praktika eta teoriako masterra

2023-2024 ikasturtean arte eta kultura garaikideko praktika eta teoriako bigarren edizioa masterra jarri da abian, Azkuna Zentroak – Alhóndiga Bilbaok emandakoa, Euskal Herriko Unibertsitatearekin lankidetzan (UPV/EHU).

Ezaugarri horiek dituen lehen masterra da Euskadin. Praktika artistiko eta kultural garaikideen errealitate berria ikuspegi aplikatu batetik ulertzeko eta programazioaren inguruan planteatzen diren gai guztiak ezagutu eta prestatzeko beharraren emaitza da.

Helburua da ikasleen profesionalizazioa bultzatzea, gaitasun espezifikoa eskuratzuz arteak eta kultura garaikidea ikuspegi transdiziplinar eta berritzailearekin ulertzeko; eta ezagutzera ematea Azkuna Zentroa bezalako gizarte eta kultura garaikideko zentro baten kudeaketan eragina duten alderdi praktikoak.

Masterrak ezagutzak, tresnak eta trebetasun espezifikoa eskaintzen ditu, kultura-kudeaketaren, komisariotzaren eta proiektuen ekoizpenaren alderdi guztiei buruz, gizarte eta kultura garaikideko zentro batean. Programak gaitasun ematen du proiektu artistiko bati osorik ekiteko: propo-

samena aurkezten denetik administrazio- eta finantza-kudeaketaraino, ekoizpen teknikoak, marketin- eta komunikazio- plana eta kultura-instituzio publiko eta pribatuekin lankidetzaren sareak aktibatzea barne hartuta.

Master murgiltzeko praktika bat proposatzen du, kultura garaikideko zentro baten kudeaketaren benetako testuinguruan, arte- eta kultura-arloko berrogei profesional baino gehiagoren esperientziaren eta ezagutzaren bidez.

Irakasleen corpusa era askotako profilak dituzten 40 profesionalak baino gehiagok osatzen dute. Hezitzaile bihurtu, eta beren ezagutza eta jakintza transmititzen dituzte, beren esperientziatik eta eskarmentutik abiatuta. Artistak, ikertzaileak, unibertsitateko irakasleak, komisariotzako eta kultura-kudeaketa aktiboko profesionalak dira, eta zentroan lan egiten dute, zuzendaritza artistikoko, marketineko eta kudeaketako profesionalekin batera. Zeregin edo espazio horiek ez dira oso agerikoak, baina guztiz garrantzitsuak dira kultura garaikidea nola garatzen den ikusteko (garrarioa, txostenak, aseguruak, kontratuak...).

# AZ IRRATIA. AZKUNA ZENTROA ALHÓNDIGA BILBAOREN IRRATIA

## 47.037

entzule



AZ Irratia. Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaoren irratia programazioa eta audientzia hazi egin dira, pentsamenduaren eta hausnarketa artistikoaren transmisio-uhala gisa ahozkoatasuna duen formatu berri honen aldeko apustua sendotuz, eta Zentroko komunitate artistikoa osatzen duten sortzaile, komisario eta gizarte- eta kultura-eragileen konplizitateari balioetsiz. Bere begiradari eta proposamenei esker, AZ Irratia nazioarteko izaera duen bertako irratia bat da, eta bere narratibek eta konposizioek muga geografikoak ez duen hurbileko komunitatea sortzen dute.

Soinu-pilula hauek, berez, sormen kolektiboko ariketak dira, irratia - performancearen edo irratia-magazinaren tradizioa balioresten baitute eta, aldi berean, gonbit egiten baitiete beste ahots batzuei podcastingarekin lehen aldiz esperimentatzeko.

*Zientzia Frikzioa.* Kide diren espezieen arteko bizitza erakusketarekin batera egingo den soinu-bidaia da *Zientzia Frikzioa*, eta paisaia, abeltzaintza, nekazaritza, ondoak, itsas fauna eta landareak bezalako gaietara zabalduko du begirada, besteak beste. *Zientzia Frikzioak* Nafarroako Pirinioetako basoak eta Bizkaiko abeltzaintzahanak, Mediterraneoeko itasaldeak eta transhumantziak bizirik dirauen hiriko orubeak zeharkatuko ditu. Pinuen, artaldean, erlauntzen eta kakalardoaren artera eramango gaitu, lupulu-loreen, zekale-soroen

eta palmondo kolonialen artera, arrain elektrikoen eta ondo haluzinogenoen artera. Aurrez jakinik zein ez ekosistema berberak dituzten espezieen arteko topaketa-mota askorekin egindako bidaia da.

Parte-hartzaileak: Maddi Barber eta Marina Lameiro, Paula Bruna, Susana Jiménez Carmona, Mutur Beltz, Onintza Etxebeste, Susana Cámara Leret eta Rafa Martínez del Pozo, Zuhari, Illa Bufarda, Fungi Fundazioa, Raket Gómez Vázquez, Silvia Zayas, Cris Blanco.

Era berean, Isabel de Naveránek podcastaren bidez garatzen du *La ola en la mente* proiektuaren zati bat, Azkuna Zentroaren ikertzaile AZkide gisa egina. Sortzaileak lau gonbidaturekin – Lorea Alfaro, María García Ruiz, Raquel G. Ibáñez eta Andrea Soto Calderónek – izandako trukeak “bigarren mailako ahozkoatasun” gisa agertzen dira.

Arte eta Kultura Garaikideko Praktika eta Teoriako Berezko Masterra AZ Irratiaren bidez hedatzen da, lehen edizioko ikasleek grabatutako gai askeko sei podcast-kapitulurekin.

*Diálogos, historietas y bocadillos* (Elkarrizketak, istorioak eta bunbuiloak) programaren audientziak gora egin du, ikusleek nobela grafikoarekin duten interesaren erakusgarri. Mediatekan hilero egiten diren topaketekin lotuta dago programa, eta garai guztietako komikien erreferentien lana balioresten du, haien lanen bidez.

# artxiboAZ

68.670

dokumentazio-deskarga

24.461

bisita

ES | EU | EN

ARTXIBOAZ

SOBRE ARTXIBOAZ | FAOS | CONTACTO

Inicio

ArtxiboAZ es el registro digital de Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbao para la comprensión de las propuestas artísticas contemporáneas desde tres vertientes: la de ‘archivo institucional’, que recoge, clasifica y difunde la producción artística que ha tenido lugar en el Centro; la de medio de ‘creación y mediación’, ofreciendo contenidos, que, por una parte, sirven a artistas para su producción y, por otra, acercan el arte a las comunidades de públicos; y la de ‘garante de la memoria’, convirtiéndose en repositorio de todo tipo de contenidos relacionados con la práctica artística contemporánea.

PERFIL AUTORA/ES

FILTRAR POR:

- AUTORIA
- ETIQUETAS
- FECHA
- FORMATO
- PROGRAMA

Apoyo a la creación

Artes en vivo

Artes visuales

AZ Académico

AZ Editorial

AZ Irratia

Cine y audiovisuales

Literatura

Mediación

2023an artxiboAZ, Azkuna Zentroaren kultura-programazioaren gordailu digitala, sendotu da. Tresna hau sorkuntza garaikidea ulertzeko sortu da, eta hiru alderditatik planteatzen da: “artxibo instituzionala”, zentroan izan den ekoizpen artistikoa jaso, sailkatu eta zabaltzeko; “sorkuntza eta bitartekaritza”, artistek beren ekoizpenerako eta artea ikusleen komunitateengana hurbiltzeko erabil ditzaketan edukiak eskaintzeko, eta “memoriaren bermatzailea”, euskal sorkuntza garaikidearekin zerikusia duten mota guztietako edukien gordailu gisa.

Edukiak 10 komunitatetan eta 34 bildumatan egituratuta daude, eta Azkuna Zentroaren programazio-ildoak eta ardatz estrategikoak islatzen dituzte: arte bisualak, arte biziak, sorkuntzarako laguntza, zinema eta ikus-entzunezkoak, kultura digitalak, literatura, hedabideak eta argitalpenak, hezkuntza-programa, irratia, gizarte eta saiakera-gunea.

Orain arte, 350 jarduera katalogatu dira artxiboAZen, proiektuaren corpus kulturala osatzen duten 8.504 artxibo baino gehiagotara sartzeko.

Plataforma berriak aukera ematen du kartelak, aretoko orriak, liburuxkak, aldizkari-orriak, prentsa-dosierak eta ikus-entzunezkoak (argazkiak, audio gidak, podcast-ak eta bideoak) ikusteko eta deskargatzeko. Gainera, artxiboAZ Mediateka BBKren katalogoarekin lotuta dago, eta zentroarekin zerikusia duten artisten eta kultura-eragileen profilen datu-basea du.

Azkuna Zentroaren artxiboa Zentroaren webgunean dago eskuragarri. 2022an abian jarri ondoren, 2023an 24.461 bisita izan ditu eta 68.670 dokumentazio-deskarga egin dira.

# AZ ARGITALPEN-PRODUKZIOA

Azkuna Zentroaren kultura-programazioa jarduera editorialaren bidez hedatzen da, praktika artistiko garaikidea jaso eta osatzen baitu, ezagutzera eman eta zabaltzeko.

Funtsa osatzen duten katalogo-liburuak Zentroan antolatzen diren artisten eta erakusketen gaineko ezagutza eta begirada zabaltzen dute. Beste argitalpen batzuk ere badi-ra, programazio-ildoekin lotutako topaketan eta sinposioen bidez sortutako dokumentuak eta materialak biltzen dituztenak.

Gaur egun, ISLAD/AZ bilduman ari gara lanean, ikertzaile AZkideek, kolektibo egoiliarrek eta artista AZkideek sortutako proiektuak editatzeko. *La ola en la mente* izango da sail honen lehen alea, Isabel de Naveránek, 2021 eta 2023 bitartean, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoren ikertzaile AZkide gisa garatu duen ikerketa- eta elkarrizketa-gunea.

Edizioak eskaintzen dituen sormen-aukerei erreparatuta, Azkuna Zentroko argitalpen-sailak material horiek prestatzen ditu, hainbat artista eta argitalpen-eragilerekin hitz eginenez, artelan horiek euskarri fisikoan kontzeptualizatu eta presta ditzaten.

2023an argitalpen-funtsa handitu da, honako liburuki hauekin:



## Metakoadernoak

Metakoadernoak. Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoren sorkuntza-koadernoek zentroan egiten diren egonaldiko proiektuak gainditzen dituzten gaiak biltzen dituzte, eta beste formatu batzuk gehitzen dizkiote Babestu - Sorkuntzari laguntzeko programa bezalako ekimenen esparruan garatutako proposamen artistikoari.

AZ argitalpenen bilduma berria Scriptbarik, Ander Pérez Puelles, M. Benito eta Macarena Recuerda Shepherd-en proiektuekin sortu da.

0. zk.: Sormen artistikoaren balioa - El valor de la creatividad artística
1. zk.: Amparo Badiola; Gema Intxausti; Susana Talayero. Scriptbarik
2. zk.: Ander Pérez. Intérpretes amenos de canciones chuscas (Abesti bitxien interprete ateginak)
3. zk.: M. Benito. M1 C4R4 N0 P3G4 C0N L4S N0T4S D3L M0V1L
4. zk.: Macarena Recuerda Shepherd. COSA. Intervenir un cuerpo (Gauza. Gorputz batean esku hartzea)
5. zk.: Julia Martos. Un vestido claro clarísimo
6. zk.: Fermín Jiménez Landa. Un helado sabor sendero

## Bene Bergado

### Urritu

*Urritu* katalogo-liburuak Bene Bergado artistaren erakusketak dakar Azkuna Zentrora.

Katalogo-liburua, erakusketaren erregistro bisuala izateaz gain, desazkundeari buruzko saiakera bat da, Bene Bergadok eta artista eta proiektuaren korrelatore Juan Luis Morazak idatzia.

Azkuna Zentroaren argitalpen berri honetan, eskultoreak Margarita Mediavillarekin izandako elkarrizketa bat jaso da. Zientzia Fisikoetan doktorea eta Valladolideko Unibertsitateko Sistemen Ingeniaritza eta Automatika Saileko irakaslea da Mediavilla. Bere ikerlanaren ardatzak dira Energia, Sistemen Dinamika eta jasangarritasunera eta trantsizio energetikora bideratutako Ebaluazio Integratuko Ereduak.

Bene Bergadok, Margarita Mediavillak eta Juan Luis Morazak katalogoa aurkeztu dute, hiru aldeko elkarrizketa bat eginez, proiektu honek aipatzen duen desazelerazioaren beharra jorratzeko.



## Miguel A. García

### Eyezorros

*Eyezorros* diskoa Miguel A. García Azkuna Zentroko artista AZkide gisa sortutako soinu-ekoizpenaren aukeraketa bat da. Biniloan bildutako "urrezko disko" hau hainbat artistarekin elkarlanean sortu da: Elena Aitzkoa (Azkuna Zentroko artista AZkidea), Luis André, Fernando Carvalho, Ilia Belorukov, Alba Burgos, Ferran Fages, Garazi eta Mikel Gorostiaga, Garazi Navas, Alex Reviriego, Ibon RG, Matías Riquelme, Marta Sainz, Beatriz Setien, Fernando Ulzion, Mikel Vega eta Natalia Vegasekin, eta Raúl Domínguez en diseinuarekin.



*Eyezorros* Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok ekoiztitako lehen biniloa da, eta haren bidez zentroaren sorkuntza artistikoaren euskarri diren formatuak zabaltzen dira.



# HEZKUNTZA ETA BITARTEKOTZA

53

jarduera

9.671

pertsonak parte hartzen dute



Zientzia Frikzioa. Kide diren espezieen arteko bizitza

Hezkuntza eta bitartekaritza Azkuna Zentroaren programazio-arloak eta espazioak zeharkatzen dituen ardatz bat dira, eta ardatz horrek zentroko hormetatik harago joateko asmoa du.

Plataforma irekia da, eta etengabe eraldatzen ari da, ezagutza kritikoa eta herritarren arteko harremanak sortzeko. Ikaskuntzarako, esperimentaziorako eta jolaserako espa-

zio hibrido eta diziplina arteko bat, kultura eta komunitatea eraikitzeko modu sortzaileagoak eta kolektiboagoak sortu nahi dituena. Espazio honetan hainbat pertsona eta komunitateri zuzendutako jarduerak, programak eta ekintzak sartzen dira, hala nola eskola-komunitateari, familiei, artistei eta publiko espezializatuari, auzotarrei, elkarteei eta abarri zuzendutakoak.

---

# Eskola

Eskola programaren helburua da Azkuna Zentroko ekosistemaren eta eskola-komunitatearen arteko loturak sendotzea. Proposatzen ditugun jarduerak zentroaren programazio-ildoan bidez antolatuta daude: Arte Bisualak, Arte Biziak, Literatura, Zinema eta Ikus-entzunezkoak. Helburua da artista garaikideen lana ezagutaraztea eta espazioak sortzea hausnarketa kolektiborako eta pertsona, belaunaldi eta diziplinen arteko ezagutza trukatzeko.

Ikasturte osoan, ikasleek eta irakasleek hainbat jardueratan parte har dezakete, hala nola tailerretan, bisita gidatuetan, ikuskizunetan, hitzaldietan eta artistekiko topaketetan. Proposatzen diren gaiak zentroaren programazioa bezain askotarikoak dira: feminismoak, ekologia, artea eta teknologia dira gure programak egituratzen dituzten ardatzetako batzuk.

---

## Prototipoak jaialdia

*Prototipoak Azkuna Zentroaren Forma Artistiko Berrien Nazioarteko Bienala* da, begirada desberdinak dituzten eta jatorri desberdinetakoak diren sortzaileen arteko topaketa bat, zeintzuek errealitatearen alderdiak zalantzan jarri, eta ahalegina egiten duten praktika artistikotik bertan eragiteko aukerak izateko.

Bienalaren parte diren proiektuetako batzuen helburua da komunitateekin lankidetzan aritzea eta hiriko arazoei buruz era kolektiboan hausnartzea. 2023an, Susana Velasco artistak proiektu bat egin du Bilboko hainbat auzotako bizilagunekin lankidetzan, hala nola Masustegirekin, auzoko historia eta hiriaren eraikuntzan izandako papera balioesteko. Proiektuak ibilbide batzuk proposatu ditu, Bilbo inguratzen duten mendietako auzo horietan dagoen *Inoren Lurraren* ideia aztertzeke.

Teatro Ojo-ren *Deus ex machina* proiektuak call center gailu bat erabiltzen du gizarteari kezagarri zaizkion gaiak aztertzeke eta gai intimo eta politikoei buruzko elkarrizketak sortzeke, elkarren artean sekula ikusi gabeko pertsonen artean.

---

## Arte eta Kultura Garaikideko Praktika eta Teoriako Masterra

2023-2024 ikasturtean Arte eta Kultura Garaikideko Praktika eta Teoriako Masterraren bigarren edizioa izaten ari da. Euskal Herriko Unibertsitateak eta Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok emandako master honek behar den prestakuntza eskaintzen du kultura-ekoizpenaren errealitate berria ulertzeko eta lantzeko, ikuspegi aplikatu eta berritzaile batetik, batera uztartzen baititu zorrotasun akademikoa eta kultura-espazio bateko eguneroko praktika. Horrela, prestakuntza testuinguru erreal batean kokatzen da, arte-eta kultura-arloko berrogei profesional baino gehiagoren esperientziaren eta ezagutzaren eskutik.

---

## Sorkuntzari laguntzeko proiektuak

Atal honetan nabarmentzekoa da Sorkuntzari Laguntzeko Programako proiektuek duten garrantzia zentroaren bitartekaritzaren arloan.

Sorkuntza-prozesu guztietan uneak planteatzen dira proiektuak publiko-komunitate desberdinei zabaltzeko, formatu desberdinetan: artistekin topaketak, tailerrak, hitzaldiak, etab.

Gainera, proiektu horietako batzuk hiriko kolektiboekin egindako lanaren arabera egituratuta daude. Esate baterako, Ion Munduateren *Rosa de los Vientos* proiektuak topaketak proposatzen dituen komunitate desberdinekin (mugimendu eta dantzarekin harremana dutenekin, afrikar jatorriko pertsonekin eta lankidetzak proiektuetan esperientzia duten pertsonekin). Topaketa horien helburua izan da elkarrizketa bat izatea eta prozesuaren alderdi garrantzitsuetan sakontzea, beste pertsona batzuekin elkartuz eta trukea eginez. Oihana Vicenteren *REEL Films\_filming movies randomly* proiektuak ikus-entzunezko tailer bat proposatzen du nerabeentzat.

# Programa publikoak

## Arte Bisualak

### *Bisita gidatuak*

#### **Urritu erakusketa, Bene Bergado**

Familiantzako jarduera: ibilbide ireki bat Bene Bergadoren erakusketako lanak aztertzeko. Helburua da begiak ondo irekitzea eta elkarrekin gogoeta egitea. Zer objektuk ematen digu arreta gehien? Zer lotura dugu haiekin? Objektuen kategoria aldatzen al da, non dauden kontuan hartuta?

#### **Zientzia Frikzioa erakusketa, Maria Ptqk komisarioarekin**

Tailer-bisita erakusketara, Tipi Kooperatibarekin lankidetzan, erakusketaren gai nagusiari buruz hausnartzeko: lurrraren gaineko bizitza osoak elkarrekiko mendekotasuna duela, gurutzaketa biologiko konplexuetan sartuta baitago.

#### **Urritu erakusketa, Bene Bergado**

Basurama kolektiboak asmatutako bisita-tailerrak dinamika bat proposatzen du erakusketaren gaiari buruz hausnartzeko: nola bizi hobeto gutxiagorekin. Analisi bat proposatzen da, gure kontsumo-ekintzak harremanetan jartzeko lehen-gaiaren jatorriarekin, produktu bihurtzeko tokiarekin eta, batez ere, hondakin-lekuekin.

## Literatura

Mediateka BBKren 'Mediateka konektatu, pentsatu eta sortu' ikastetxeentzako bisita gidatuen programa kulturarako bibliografia, ikus-entzunezko eta bizipenezko sarbidea eskaintzen duen topagunea da.

## Zinema eta ikus-entzunezkoak

### **Zinemaldiko eskola-saioak**

Ikasleentzako saioak Zinemaldia zikloaren barruan Azkuna Zentroan, Bilboko zinemaldiko filmen sorta batekin.

### **Golem Gela**

Golem Gela hezkuntza-komunitateari zuzendutako Golem zinemen programa da. Proiektu honek zinemaren bidez hezi nahi du, irakasteko eta ikasteko bide gisa eta herritar kultu eta kritikoak prestatzeko ekarpen gisa optimizatuz.

## Arte Biziak

### **Cosa ikuskizuna, Macarena Recuerda Shepherd eta Maia Villotena**

Macarena Recuerda Shepherdek maiatzean erakutsi du Azkuna Zentroa 2021ean sorkuntzari laguntzeko Babestu programan garatutako sorkuntza-prozesuaren emaitza.



Macarena Recuerda Sheperd & Maia Villot. Cosa

### **Mitusu**

Eskola-publikoaren eta arte eszenikoen arteko topaketa, Mitusuk eta Azkuna Zentroak egindako proiektuaren bidez.

# HARREMAN INSTITUZIONALAK / NAZIOARTEKO PROIEKZIOA



ACuTe. Culture Testbeds for Performing Arts and New Technology

2019-2023 Programa Proiektuan, Azkuna Zentroaren ardatz estrategikoetako bat nazioartekotzea da, sortzaileen, profesionalen, eragileen eta bertako eta beste herrialde batzuetako instituzioen arteko epe luzeko trukea eta lankidetzaz sustatzen eta errazten duten sareak erabiliz.

Gainera, joan-etorriko jardura instituzional bizia egiten da, munduko hainbat lekutako bienal, azoka eta kultura garai-kideko zentroetako arduradunekin elkartzeko, eragile sor-

tzaileen eta ICCen nazioarteko harremanak areagotzeko helburuarekin.

Aukerak bilatuz eta sare berriak irekiz nazioarteko harremanak ere garatzen dira, zentroaren programazioa aberas- teko, truke, harreman, baterako sorkuntza eta lankidetzaz kulturaletik abiatuta.

# Nazioarteko harremanak

Helburu horren barruan kokatzen da Azkuna Zentroak ACuTe. *Culture Testbeds for Performing Arts and New Technology* proiektuan parte hartzea. Berrikuntzako proiektu europarra da, teknologia berrien bidez arte eszenikoak ekoizteari, eta lankidetzak kulturalerako eta konpetentziak garatzeko modu berriak ezartzeari buruzkoa.

Horren partner estrategiko gisa, Azkuna Zentroan egin dira Europako lankidetzak-esparru horretan 2023an abiarazitako lehenbiziko bi egonaldiak:

Maiatzaren 30etik ekainaren 3ra bitartean egindako *Prototipoak Forma Artistiko Berrien Nazioarteko Biurtekoarekin* bat eginez, dramaturgia, eszenografia eta teknologia berrien arloko bertako, nazioko eta nazioarteko profesionalak bildu ziren zentroan. Topaketa horretan, teknika digitala eszenara aplikatzeari buruzko esperientziak partekatu zituzten, soinutik, arte bisualetatik, gorputzetik, hitzetik eta ingeniari-tzatik abiatuta.

Irailean ACuTeren bigarren egonaldia izan da. Kasu hone-tan, Craiovako (Errumania) National Theatre Marin Sorescu-ren talde bat aritu da *Reconstituirea* proiektu eszenikoa sortzen. Bilboko egonaldian, Catinca Drăgănescu, Ciprian Făcăeruk, Sabin Șerban-ek eta Dan Făcăer-ek diziplina anitzeko ekoizpen eszeniko honen prototipoa landu dute, antzerkia, zinema eta errealitate birtuala, zuzeneko artistak eta geruza askotako mediaturgia gamifikatua barne hartuta.

## Azkuna Zentroaren ekoizpen berria

Bestetik, urteko azken hiruhilekoan, Azkuna Zentroak Euro-pako programa horren barruan ekoiztutako pieza eszeniko esperimentalaren sorkuntza aktibatuko da, eta Prototipoak 2025 Zentroaren Forma Artistiko Berrien Nazioarteko Biurtekoaren esparruan estreinatuko da.

Ziomara Hormaetxe koreografoak zuzendu eta interpreta-tzen du ekoizpen berri hau, hainbat arlotan aditua den eta diziplina asko —hala nola storytelling-a, sortzen ari diren teknologiak eta koreografia— lantzen dituen talde batekin lankidetzan.

Proiektuaren helburua da berritzea istorioak eszenatik kontatzeko eta ekoizteko modua, eta publikoak elkarre-ragitako eta haiekin konprometitzeko modua.

Bestalde, Azkuna Zentroak Harbours for Arts & Culture proiektuarekin jarraitzen du. Proiektu hori jarri du abian, Europako hainbat tokitako instituzio, kultura-zentro eta jaialdiekin harreman eta lankidetzak berriak sustatzeko eta dau-denak indartzeko helburuarekin.

Kultura-diziplina desberdinetan sinergia berriak sortzeko Azkuna Zentroarekin duten lotura geografiko eta kulturala-gatik funtsezkoak diren lau hiri identifikatu ondoren (Anberes, Bordele, Porto eta Rotterdam), lehen harremanak izan dira zentroaren programazioari begira lankidetzak-proiektuak garatzeko datozen urteetan.

## Sinergia artistikoak

Era berean, Azkuna Zentroak bideak irekitzen jarraitzen du kultura-arloko eta arte-sorkuntzako beste erakunde eta espazio batzuekin lankidetzan aritzeko, bertan zein nazioar-tean, ezagutza partekatua sortuz.

2023an, proiektuak ekoitzi dira antzekoak diren espazio artistikoekin batera, hala nola ZKM – Karlsruhe Arte eta Ba-liabideen Zentroa (Alemania), Linzeko OÖ Landes-Kultur GmbH (Austria) eta Bruselako iMAL (Belgika) espazioekin. Haiekin batera ekoitzi da erakusketa-aretoan ikusgai izan den The Artwork As a Living System erakusketa. Bestalde, Fundación Japón-ekin lankidetzan proiektatu dugu *Man-gatik zinemara. Japoniako zinema garaikidearen zikloa* Zinematekan. Era berean, Quebecoko La Maison de la Li-ttérature eta Cité Internationale de la Bande Dessinée et de l'Image de Angoulême-rekin hasitako harremanei eutsi zaie Komikiaren Nazioarteko Egondia egiteko.

Gainera, Azkuna Zentroa Red Escena-ren parte da. Titular-tasun Publikoko Antzoki, Auditorio, Zirkuitu eta Jaialdien Espainiako Sare hau arte eszenikoen eta musikaren sek-torea sustatzen saiatzen da, herritar guztientzat eskuraga-riagoa izan dadin. Zentroa Bilbao Convention Bureau-ren bazkidea ere bada. Horren xedea da hiria korporazio- eta elkarte-bileren egoitza gisa sustatzea, eta zentroa aliatu es-trategikoa da erakunde antolatzaileentzat.

Babesleen arloan, akordioa berritu da BBK Fundazioare-kin, Mediateka BBK-ko erabiltzaileentzako zerbitzuari eta programazioari lotuta, bai eta Fundación Banco Sabadell-ekin, sorkuntzari laguntzeko Babestu programari lotuta, eta BEAZekin ere, diseinatzaileak ikusarazteko ekintzak egi-teko, Azkuna Zentroko dendAZen This is Basque Design proiektuaren esparruan.

# PUBLIKOAK. ERABILTZAILEENTZAKO ARRETA

Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaoren helburuetako bat da zentroko publikoen komunitateen jarduera areagotzea, kezka berriak sortzea eta publiko berriak erakartzea. Azkuna Zentroan lanean aritzen gara esperientzia berriak sortzeko, pertsonak proiektuaren erdian jarriz eta arreta haien beharretara eta kezketara egokituz.

Azkuna Zentroko Erabiltzaileen Arretarako Arloa, berez, zentroko komunitate bat da. Bera osatzen duten pertsonen erakundearen helburuak ezagutzen, partekatzen eta zabaltzen dituzte, eta arloa beti dago erabiltzaileen beharrak entzuten.

2023. urteko beste helburuetako bat izan da ahalik eta publiko gehienekin hitz egitea: hurbilen daudenekin hasi, eta geografikoki urrunen daudenetaraino, kultura garaikidearekin gehien interesatuta daudenak aintzat hartuta eta a priori horretan interes gutxien duten horiei ere erreparatuta. Horretarako, etengabeko elkarreragina izaten da Zen-

troko arte-komunitatearekin, horrek aukera ematen baitugu hemen egiten diren jardueren ezaugarriak publikoei helarazteko.

2023an ekimen batzuk sendotu ditugu, esate baterako, Atarian informazio-gune mugikor bat jarri dugu, eta apirilaren 1etik urriaren 30era bitartean iraunkorra izan da. Eta beste ekimen batzuk ere jarri ditugu abian, hala nola sarrerak saltzea jarduerak egiten diren guneetara sartzean, jarduera horiekin lotutako argitalpenak gune horietan saltzea, eta aktiboki sustatzea sarrerak erostea edo plazak erreserbatzea programazioan parte hartzeko.

Horretarako, pertsona proaktiboez osatutako talde bat dugu. Haiek etengabe ari dira trebatzen, eta bitartekotza dute tresna nagusi, baliabiderik egokiena baita gizartea kultura garaikidearekin lotzeko eta publiko-komunitate bakoitzera egokitzeko.

# LANTEGIA. IDEIEN LABORATEGIA, SORKUNTZA BULTZATZEKO ARDATZA



Lantegia. Ideien Laborategia

2019an, Jarduera Osagarrien Zentroa Lantegia. Ideien Laborategia bihurtu zen. 1.500 metro karratuko eraikina, proiektu artistikoak ekoizteko eta bistartzeko bideratua, eta esperimentazio eta sormenerako habitat gisa eratua.

Lantegia funtsezko osagaia da 2019-2023 Proiektu Programaren eredu estrategikoan; haren oinarri kontzeptualetako bat da. Ezinbesteko organoa da zentroaren funtzionamendurako; bertan, kontzeptu esperimentalak eta garaikideak garatzen dira, ikuspegi berri batetik abiatuta, sorkuntzara, berrikuntzara eta prototipoetara begira. Beraz, Lantegia oinarritzako pieza da gizartea kultura garaikidearekin lotzeko dugun eginkizunean.

Aldi berean, herritarrekin konektatuta dagoen sorkuntza esperimentaleko proposamen bat edukirik, Lantegia elementuak ekoizteko iturri bat da, eta horiek Azkuna Zentroaren programazioa aberasten dute, maila kuantitatiboan zein kualitatiboan.

Lantegia abian jarri da, hiriko sorkuntza-sareari zabaldutako gune bat sortzeko beharra zegoelako. Lanerako eta

praktikarako ingurune ireki bat, kolaboratiboa eta eskuza-bala, loturak sortzeko beste espazio batzuekin, egonaldi, estudio, galeria eta antzeko instituzio publikoekin.

Lantegiak hainbat tamainatako laborategiak, topaguneak eta sorkuntza artistikoa erakusteko lekuak ditu:

- LAB0/LAB1: praktika artistikorako, tailerretarako, esperimentaziorako espazio gardena.
- LAB2: Arte Bizietarako dantza-aretoa.
- LAB3, LAB4, LAB5, LAB6, LAB7, LAB8: ikerketa- eta eza-gutzarako espazioak.
- BAT ESPAZIOA (Kubo zuria). Lantegiko erakusketa-aretoa, proiektu bisualen prozesuak eta emaitzak erakusteko lekua.
- KUBO BALTZA (Kutxa beltza): agertoki ez konbentzionala, arte bizien praktika garaikideak garatzeko pentsatua.

# HOBETZEKO PLANAK



## Irisgarritasun unibertsala

Azkuna Zentroa-Alhóndiga Bilbaok konpromisoa hartua du gizarte eta kultura garaikidea lotzeko, programazioaren eta espazioaren bidez. Horretarako, zentroak begirunea izan, eta irekia eta irisgarria izan behar du pertsona guztientzat.

AENORen UNE 170001-2:2007 arauaren ziurtagiria duen irisgarritasun unibertsala kudeatzeko sistema berria ezarri ondoren, aurrera jarraitu da etengabeko hobekuntza-prozesuarekin, erakusketak entzuteko audiogidak bezalako baliabideak programatuz, eta QR kodeen bidez eta webgunetik sarbidea izanik (876 erreprodukzio izan ditu).

Halaber, aipatzekoak dira filmen xehetasunik ez galtzeko aukera ematen duen begizta magnetikoa, edozein gaitasun izanda literaturaz gozatu ahal izateko irakurketa errazeko programak, ikusmena eta ukimena erabiliz egiten diren bisita iruzkinduak, eta musika esperimentaleko tailerrak behar bereziak dituzten taldeekin.

Jarduera Fisikoko Zentroan, igeriketa egokituko ikastaroak eta 60 urtetik gorako pertsonentzako Osasun Premium eta antzeko programak daude, ariketa osasungarria sustatzeko.

2022an egindako inbertsioen artean, nabarmentzekoa da irakurketa egokituko postu bat erosi dela, lupa elektronikoa, PCrako teklatura Braille Mantis lerroarekin, joystick erako sagua eta Trackball motako sagua dituen, Mediatekan erabiltzeko.

Horrez gain, taldeek dibertsitate funtzionalari buruzko presakuntza hartu dute, zentroan esperientzia onak bermatzeko.

Hori guztia webguneko "Espazio irisgarria" atalean jakinarazi da (<https://www.azkunazentroa.eus/es/informacion-general/>) eta audio-formatuko agendak sortu dira hiruhileko programazioa komunikatzeko.



# Berdintasuna

Azkuna Zentroak egungo gizartean dagoen dibertsitatearen eta aniztasunaren berri ematen du, eta munduaren esperientzia sozio-kulturalaren oinarri den arlo transkulturalarekiko interesaren berri ere bai.

Programazioak sustatzen du gorputza, generoa eta identitatea kategoriatan askotariko eta aldakor gisa agertzea. Hala islatzen da aurtengo proiektu batzuetan, besteak beste, Aimar Arriolak Azkuna Zentroko ikertzaile AZkide gisa egindakoan eta Alberto Cortésen proposamen eszenografikoan.

Instituzio publiko gisa, Zentroak konpromisoa du genero-berdintasunarekin eta dibertsitatearekin, eta bat dator Bilboko Balioen Gutunarekin eta Nazio Batuen 2030eko Agendako Garapen Jasangarrirako 5. Helburuekin eta inor atzean ez uzteko duen leloarekin.

2020an, Azkuna Zentroaren berdintasun-diagnostiko bat egin zen, eta, haren bidez, Berdintasunerako Neurrien Plana garatu zen, erakundearen alderdi guztiak barnean hartuta, hiru erronkarekin: berdintasuna gobernu onean, barne-kudeaketa genero-berdintasunetik abiatuta eta Azkuna Zentroaren ekarpena gizartean genero-berdintasuna lortzeko bidean. Erronka bakoitzak bete beharreko helburuak eta egin beharreko ekintza zehatzak ditu.

# Jasangarritasuna

Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaok oraingo eta etorkizunerako proiektua izan nahi du, sentsibilizatua eta aktiboa, ingurumena hobetzera eta baliabideen kontsumo arduratsua lortzera bideratutako ekintza jasangarriak egiten dituen. Ingurunearekiko kezka eta garapen jasangarriarekiko konpromisoa oinarri hartuta, ekintzak aztertzen jarraitzen da, zentroaren jardueraren inpaktua hobetzeko.

2022an, SENER enpresak garatutako “Respira” ezartzen jarraitu da, klimatizazioaren kudeaketa adimenduneko sistema. Adimen artifiziala erabiltzen du eraginkortasun energetikoa, konfort termikoa eta airearen kalitatea hobetzeko barnealdeetan. Zundak eta kontsumoa monitorizatzeko ekipo horiek Mediatekan, erakusketa-aretoan eta gimnasioan daude.

Bestetik, eta jasangarritasun energetikoari lotutako estrategiaren barruan, inbertsio-proposamen bat landu da, Azkuna Zentroan energia kontsumitzen duten ekipoak eta instalazioak hobetzeko eta berritzeko, Jasangarritasunari buruzko 04/2019 Legeak ezarritako helburuak lortze aldera. Zentroaren mantentze-lan osoko zerbitzuaren lizitazioa aprobetxatuz, energia-kontagailuen instalazioari dagokiona barne hartu da, sektorizatu eta lehenetsi ahal izateko eremuen edo kontsumitutako energia-motaren arabera; eta, orobat, argiztapena LEDera aldatzea, horretan aurrera egin baita hainbat eremutan.

2022ko udan, Azkuna Zentroa Bilboko Udalak ezarritako Aterpe Klimatikoaren Sareko kide izan da, muturreko berotik babesteko espazio egokituak eskaintzeko. Gainera, instalazioak egokitu dira, energia aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko neurriei buruzko abuztuaren 1eko 14/2022 Errege Lege Dekretuan ezarritako jarraibideak betetzeko.

Azkenik, karbono-aztarna murrizteko asmoz, hainbat neurri ezarri dira eguneroko jardueran, hala nola txorrotako ura pitxerretan erabiltzea, botilatxoak kontsumitu beharrean; txorrotetako tenporizadoreak erregulatzea, ura ez xahutzeko; dutxetan erabilera arduratsuko kartelak jartzea erabiltzaileak kontzientziazteko; eta hondakinak bereiztea behar bezala kudeatzeko.

# BIOTHEKA

## ZERBITZUAK



# MEDIATEKA BBK

## 77.348

mailegu / 2022an baino %6,8 gehiago

## 330.446

sarbide / 2022an baino %14,5 gehiago

Bibliografia-bildumaren  
sarbide librekoa da **86,5%**

## 3.575

erosketa berri / 2022an baino %5,92 gehiago

## 800

ordutik gorako jarduera programatuta Mediatekan, hau da, Mediateka zabalik dagoen ordutegiaren % 25ean jardueraren bat eskaintzen da.

Hamarkada bat baino gehiago igarota, 2019-2023 Programa Proiektuaren bidez, Mediateka sorkuntza artistikorako, ikaskuntzarako eta esperientziazko gune bihurtu da, bilduma bibliografikoari eta proaktibotasuna lortzeko antolatutako programazio kulturalari esker.

Gaur egun, XXI. mendeko liburutegi honek pertsonak ditu ardatz, eta pentsamenduari bide eman nahi dio ikuspegi sozial, inklusibo eta jasangarri batetik, artearen eta artisten bidez gizartea eraldatuko duen ezagutza kritikoa sortzeko, eta harremanetan jartzeko gizarte dibertsoagoa eraiki nahian.

Liburutegi gisa, bere funtzioak eta ibilbideak zabaldu ditu, funtsa indartuz Zentroaren kultura-programazioarekin zerkusia duten gai guztietan. Ezagutza sortzen aktiboki parte hartzeko, *ArtxiboAZ proiektua garatzen* ari da, Azkuna Zentroaren artxibo digitala, proposamen artistiko garaikideak ikusi eta ulertzeko. Orobat, *AZ argitalpenen arloak* jarraipena ematen die erakusketei, prozesu sortzaileei eta topaketei, eta Zentroaren esperientzia artistikoaren euskarria da.

2023an ere, goranzko joera dute sarbideen, maileguen eta ekipamendu ofimatikoaren erabileraren adierazleek. Bereziki esanguratsua da liburutegien arteko mailegu-zerbitzuaren hazkundera, gure ustez, herritarren esku jarritako bilduma bibliografikoen arteko osagarritasunaren erakusgarri.

2023an azpimarratu beharreko beste alderdi bat da 800 ordu baino gehiago eman direla jarduerak egiten Mediatekan, eta horrek erakusten du sendotu direla literatura, komiki, zinema eta haur eta familientzako programazioaren inguruan egiten diren programak.

Era berean, 2023an lanean aritu gara ofimatika-ekipamenduaren irisgarritasuna hobetzeko, ekipo batzuk egokituz dibertsitate funtzionalak dituzten pertsonak lehentasunez erabiltzeko, eta arrakala digitala murrizteko, Mediateka ireki eta konektatu baten alde eginez. Apustu hori bilduman ere islatu da, funts bibliografikoan ugalduta baitira irakurketa errazeko liburuak, letra handikoak eta audioliburuak.

Pertsonak Azkuna Zentroko Mediatekaren egitekoaren ardatza dira, ikaskuntza inspiratzeko eta lantzeko, gizarte eta kultura garaikidea hobeto ezagutzeko, eta publikoen komunitateak sustatu eta indartzeko, besteak beste, berdintasun, tolerantzia, elkartasun, iraunkortasun eta irisgarritasunaren balioak sendotuz.

Une honetan, Azkuna Zentroa datozen lau urteetarako plan teamendu estrategiko berria berrikusten ari da, eta Azkuna Zentroaren Mediatekak funtsezko zeregina beteko du pertsonen eta kultura garaikidearen artean loturak sortzen.

Mediateka birdefinitzeko prozesu honetan, fase berri bati ekin diogu, Mediatekako esperientziaren kontzeptuan sakontzeko. Kultura praktika, prozesu eta esperientziatzat hartzen badugu, Mediatekak esaera hori oinarritzeko tokia izan behar du, bereziki esperientziari dagokionez, ezagutza horren bidez eraikitzen baita aktiboki. Ikasteko, espazio fisikoak eta digitalak behar ditugu, esperientziazioa sustatu eta horretarako behar diren tresnak emango dituztenak. Liburutegiek, "alfabetatze informazionala" jorratzeaz gain, "alfabetatze sortzailea" ere landu behar dute.

# dendAZ. THIS IS BASQUE DESIGN. AZKUNA ZENTROAREN SALTOKIA

**+30**

artista eta diseinatzaile

**800**

Salmentari buruzko  
aipamen baino gehiago

**%27** ko

hazkundera salmentetan 2022. urtearekiko



dendAZ. This is Basque Design, Azkuna Zentroko denda, euskal diseinuari irekitako leihoa da, erosketa-esperientzia gisa Espazio publiko honetan, diseinatzaileek ikusgai jar ditzakete beren prozesuak eta praktikak; haien lanak, produktuak eta zerbitzuak topa ditzakegu bertan.

Sortzaileak dira proiektu honen ardatza, eta Bilbo, Bizkaia, Euskadi, Nafarroa eta Akitania berriko 30 artistak eta lankidek hartzen dute parte.

DendAZ. This is Basque Design espazioaren balio bereizgarria da bertakoa, iraunkortasuna, Do It Yourself ikuspegia eta eskusibotasuna agerian jartzea eta, batez ere, bertako sormenaren eta diseinuaren balioa nabarmentzea. DendAZ. This is Basque Design eraikitzean, Azkuna Zentroarentzat estrategikoak diren balioak hartu dira oinarritzat: sorkuntza, irisgarritasuna, dibertsitatea eta lankidetzeta.

Azkuna Zentroa-Alhóndiga Bilbaoren dendak jarraitzen du lotura izaten Lantegia. Ideia Laborategiarekin, hau da, esperimentaziorako eta kultura-ekoizpenerako espazioarekin: tokiko diseinua sortzeko laguntza, erosketa jasangarrirako pentsamendu kritikoari egindako ekarpena, tokiko diseinurako irisgarritasuna, erreferentzien aniztasuna. Ireki zenetik, hainbat esparrutatik lan egin da dendaren atalak betetzeko: argitalpenak, ilustrazioa, bitxigintza, papergintza, dekorazioa, ehungintza eta upeltegiak.

Hauek dira 2023. urteko izen berriak: Barock Jewelry, Kiribiltxo, Nerea Gómez eta Kreative Art. 2023ko fakturazioa % 27 handitu da 2022rekin alderatuta, eta diseinuaren sektoreak Bilbon eta Bizkaian duen balioa eta garatzeko potentzial handia ikusarazteko plataforma bihurtu da.

# Jarduerak

2023an garatutako jardueren helburua izan da dendAZ. This is Basque Design proiektua dinamizatzea, sortzaileen talentua ikusaraziz, publikoaren komunitateekiko loturak bultzatuz, eta prozesu sortzaileak eta pertsona sortzaileak hurbilduz. Premisa horiekin, sortzaileen laguntza izan dugu, ekintza, tailer, hitzaldi eta abarren bidez espazioa aktibatzen.

## Gutun Zuria Bilbao

2023ean, Gutun Zuria Bilbao. Letren Nazioarteko Jaialdiaren esparruan, dendAZ berriz bihurtu da liburudendAZ, eta egile gonbidatuen argitalpenen salmenta kudeatu du.

## This is Basque Design Merkatua

Azkuna Zentroak bere diseinu eta sorkuntzako ekosistema erakutsi du uztailearen 7tik 9ra eta azaroaren 24tik 26ra bitartean Bilbao Bizkaia Design Week-en (BBDW) egindako *This is Basque Design Merkatua*. Bi asteburuetan, dendAZen diseinu-komunitatea osatzen duten hogeita hamar sortzailek beren proiektuak eta produktuak erakutsi dituzte Atarian, eta beren prozesuak partekatu dituzte ikusle desberdinentzat egindako topaketan eta tailerren bidez.

*This is Basque Design Merkatua* aukera ezin hobea izan da DendAZ osatzen duten enpresen atzean dagoen proiektu pertsonala eta profesionala ezagutzeko: bertako ekoizpena.

Abana Bilbao (Diseño muebles y accesorios), Aerre Design (Diseño), Ailanto (Moda), Amakuyi (Diseño), Amarenak (Moda), Ane Pikaza (Ilustración), Barock Jewelry (Diseño joyería), Cookplay (Diseño de menaje), Ekomodo (Diseño accesible), Elena Ciordia (Ilustración), Fournier (Diseño juego), FTBCWL (Diseño e ilustración), Higi Vandis (Ilustración), Josune Urrutia (Ilustración), Katxi Klothing (Moda), Kiribiltxo (Diseño joyería), Malús Arbide (Diseño moda), Mario Gaztelu (Ilustración), MRLASPIUR (Diseño joyería), Palopalú (Diseño juego), H05 (Moda), Susana Blasco (Ilustración), The Real Studio (Diseño accesorios), Tytti Thusberg (Moda), Yolanda Sánchez (Diseño), Ziriak (Diseño muebles), Zioru (Moda), KreativeArt (Ilustración), Terai Cosmética (Cosmética), Joana Fidalgo eta Nerea Gómez (Ilustración) y Kostako (Moda e ilustración).

## Tailerrak

2023ko edizioetan proposatutako tailerretan, ikusleei gonbit egin zaie diseinuko eta fabrikazioko zenbait teknika ikasteko eta praktikatzeko, sortzaileek gidatuta: Estanzio botanikoko tailerra paper gainean Yolanda Sánchez diseinatzailearekin. Ehungintza birziklitzeko sormen-tailerra Tytti Thusberg diseinatzailearekin: Diseinatu zure poltsa txatal eta bigarren eskuko jantzetatik abiatuta. "Margotu bitxi bat BaRock jewelry-rekin" tailerra, BaRockekin. Arcolris nezeser bat sortzeko tailerra Amakuyi-rekin.



Merkatua

## Erakusleihoa dinamizatzea

2023an, dendAZ. This is Basque Designek jarraitzen du partaide diren sortzaile eta diseinatzaileen proiektuak dinamizatu eta komunikatzeko ekimenarekin, eta dendAZen erakusleihoko panel interaktibo eta dinamiko bihurtu du, produktuentzat *ad hoc* sortutako ingurunean proposamenak erakusteko.

DendAZen erakusleihoko funtsezko tresna da parte hartzen duten marken ikusgarritasuna eta espazioaren beraren ospea handitzeko Azkuna Zentroaren Atarian.

2023an, Abana, Zioru eta H05 izan dira erakusleihoko dinamizatu duten sortzaileak.

# JARDUERA FISIKOKO ZENTROA

**596.787**

sarrera 2023an Jarduera Fisikoko Zentroan

**312.544**

sarrera gimnasioan

**284.243**

sarrera igerilekuan

**5.015**

abonatu hilean, batez beste

**283**

kurtso

**45**

lagunek eman dute izena gAZte Programan (2023ko urria)

Jarduera Fisikoko Zentroak 10.000 m<sup>2</sup> ditu gutxi gorabehera, hiru instalaziotan banatuta, eta erabilera intentsiboa izaten dute urtean 365 egunetan, asteburuetan eta jaiegunetan barne. 15 orduz irekita dago publiko guztientzat asteleheneretik ostiralera, eta 12 orduko zerbitzua du larunbat, igande eta jaiegunetan. Gimnasioko langileak, igerilekukoak eta erabiltzaileen koordinazioa eta arretakoak kontuan izanda, 54 langile daude guztira.

Jarduera Fisikoko Zentroaren instalazioetan honakoak dituzte: gimnasio 1, entrenamendu-errutinetarako espazio diafanoa, erabilera askotarako egokitutako 7 jarduera-gela, jarduera garatzeko beharrezko guztiak dituen entrenamendu-gela funtzional 1, igeriketa librerako 2 igerileku eta udako hilabeteetan terrazara sarbidea duten jarduerak.

# Gimnasioa eta kirol jarduerako aretoak



1.100 m<sup>2</sup> baino gehiago, erabiltzaileen kirol-errutinak garatzeko gaituta, 140 indar- eta kardio-makinarekin. Instalazio honek, gainera, hainbat kirol-material du, hala nola halterak, diskoak, barrak, Kettlebell, core bag, esterillak...

690 m<sup>2</sup> baino gehiago, 7 aretotan banatuta. Areto horietako hiru hala nola funkya (haurrentzako), yoga, tai jia eta pilates egiteko dira. Hiru areto horiek gimnasioko zalapartatik aldentuta daude, eta material goxoak daude, xede dituzten zereginak egoki garatzeko. Gainerako lau aretoak, lehenengoak baino zabalagoak, inpaktu-jardueretarako prestatuta daude, hala nola GAP, power tono, aerobic, fitpilates... eta horietako bat oso-osorik ziklo indoor-ari eskainia dago, 52 bizikleta daude areto horretan eta saioak girotzeko pantaila digital handi bat ere bai. Bigarrean jarduera aerobikoak egiten dira, hala nola aerobica, stretching-a, fitpilatesa, dantzazuma... hirugarrena tonifikazio-jardueretarako dago, hala nola quennaxa, TRXa, ezegonkorak, Power tonua... eta laugarren areto bat, Osasun Premiumeko jarduerak eta entrenamendu pertsonalak egiteko.

Espazio horiei entrenamendu funtzionalerako prestatutako eremua gehitu behar zaie. 240 m<sup>2</sup>, jarduera hau garatzeko behar den guztiaz hornituak, halterofiliako bi plataforma, gomak, zintak eta barra lantzeko egitura bat; baloi medizinalak, kettlebell baloiak, halterak, kaxa pliometrikoak lantzeko erabilera anitzeko gunek bat; kardio-jardueretarako beste espazio bat eta, azkenik, belar artifiziala duen zuzen bat, lera, abiadura, desplazamendu eta abarrekin lan egiteko.



---

# Igerilekua

JFZ eraikinaren eta Lantegiaren artean zintzilik daude igerilekuak. Instalazioek bi ontzi dituzte eta horietako batek bi sakonera ditu. Lehenengo ontziak 1,2 metroko sakonera du; 25 X 21,15 m ditu eta 9 kalerentzako tokia du. Uraren tenperatura 27,5° C da eta igeriketan ikasteko jarduerak guztiak, poolbike, kardioaletak, urgazte... egiten dira.

Beste ontziak bi sakonera ditu, bata 0,95 metrokoa eta bestea 0,75 metrokoa. Beste ontzia baino apur bat txikiagoa da, uraren tenperatura 30,5° C da eta sakoneraren ondorioz, haur txikientzako ikastaroak egiteko oso egokia da, baita aquafitness, igeriketa terapeutikoa eta beste zenbait jarduerak egiteko ere, erabilera libreaz gain. Gune honetan dago Ataritik ikusi daitekeen beirazko zatia.

Terrazak 2.000 m<sup>2</sup> baino gehiago ditu, erabilera anitzekoa da; solariuma egoteaz gain, gimnasioko eta instalazioetako jarduerak puntualak ere egiten dira zenbaitetan.



---

## Jarduera 2023an

596.787 sarbiderekin, gimnasioaren eta igerilekuaren erabilera % 16 egin du gora 2022arekin alderatuta, baina oraindik urrun dago 2019ko pandemia aurreko kopuruetatik (747.655). Kirol-jardueraren okupazioa % 18,3 igo da 2022arekin alderatuta. 2023an, batez beste 4.317 ikasle eman dute izena.

2023an instalazioak erabili dituzten abonatuaren hileko batez bestekoa 5.015 pertsonakoa izan da.

Denboraldi bakoitzean 283 ikastaro eskaini dira (2023ko urria), eta 14 tailer espezifiko egin dira, gutxi gorabehera hilaletako iraupenekoak. Lehen aldiz, tailer horien artean, bi tailer espezifiko sartu ditugu Osasun Premium programan: erorikoen prebentzioa eta nutrizioa.

Jarduera Fisikoaren Zentroaren programazioak aurrera egin du 2023an, eta, denboraldiko ikastaro eta tailerrez gain, aisialdiko aukera osasungarria eskaini die herritar guztiei, ikasleentzako, premia bereziak dituzten pertsonentzako.

---

## gAZte programa

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko Jarduera Fisikoaren Zentroak gAZte programa du abian 2023ko urritik, 12 eta 15 urte bitarteko nerabeei zuzendua.

Plan berri honek intentsitate desberdineko jarduerak ditu, banaka eboluzionatzeko modukoak, eta ordutegi malgua ikastaroak egiteko, hala igerilekuan, nola jardueren aretoetan eta areto funtzionalean. Gainera, tarifa honetara harpidetutako pertsonak fitness aretara sar daitezke modu kontrolatuan.

Formula berri honekin, aukera eman nahi dugu jarduera fisikoa nerabeen ikasketen errealitateara egokitzeko eta, gainera, egungo eta kalitatezko jarduerak egiteko.

# ESPAZIOEN ALOKAIRUA

122

ekitaldi

16.895

erabiltzaile

320

espazio erabilia



Atrio\_Pacto social Inmigración

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao Bilboko erdigunean da goen Gizarte eta Kultura Garaikidearen Zentroa da. Kultura-, enpresa- eta gizarte-ekitaldietarako gune berezi bat da, diseinuaren eta kultura garaikidearen balio erantsia ematen duena, eta zentrora eta erakusketetara, kultura-programazioa, mediatekara, gimnasia, igerilekura, ostalaritza-espaziora edo zinemetara egindako bisita gidatuekin osatzen duena. Azkuna Zentroko espazioek irtenbide zehatzak di-

tuzte edozein ekitaldi-mota egiteko, eta aholkularitza pertsonala eta beharrezko laguntza ematen duen talde bat ere bai, zure ideiarekin zure beharretara eta aurrekontura egokitutako ekitaldi bat egin ahal izateko.

2023an 122 ekitaldi egin dira, erakunde publiko eta pribatuek, enpresek, instituzioek eta hirugarren sektorekoek antolatuta. Alokairu-espazioetan antolatutako ekitaldiak, nagusiki, bertakoak izan dira; soilik 3 izan dira estatukoak eta 10 nazioartekoak.



ATRIO\_Rodaje Un mundo casi perfecto

Guztira, 210 jardunaldi izan dira, eta 16.895 pertsonak hartu dute parte. 122 ekitaldi horietatik, 45 kultura-erakundeek antolatu dituzte; 18 ekitaldi, aldiz, ekonomia- eta merkataritza-erakundeek antolatu dituzte. Sektore sozialak mantendu du 2022arekin alderatuta.

Ekitaldirik aipagarrienek Bilboko kultura-eskaintza osatzen dute, eta, aldi berean, Azkuna Zentroa kultura-sektoreko beste eragile batzuekin lotzen dute, bertakoak, estatukoak zein nazioartekoak izan. Horien artean daude Zinebi, Fant, Emakumeek egindako Zinema Karabana, Cine Invisible, Zinemakumeak Gara, Zinegoak, Basquedoc y MendiFilm Festival etab.

Gainera, lankidetzeta gehiago dugu beste kultura-erakunde batzuekin, eta horren emaitza zentroko programazioaren osagarria da: Dantzan Bilaka, Dantzerti, Bilbao Basque-Fest, Udal Banda, Mitusu, Loraldia, Dantzaldia, Gau zuria, Mugak, La nuit des idées, Kimuak... 2023an, nabarmendu behar da European Creative Industries Summit, ECBnk antolatutako urteko biltzarra, profesional sortzaileak, erakunde sektorialak eta arduradun politikoak biltzen dituen, sormen-industriaren azken garapenez eztabaidatzeko.

Ekitaldiek aukera ematen dute enpresa- eta sektore-sarearekin konektatzeko, enpresa eta erakunde askorekin, besteak beste, AZTI Fundazio, Dircom, Bilboko Merkataritza Ganbera,

Bizkaiko Aldundi, Gorabide eta Eusko Jaurlaritzarekin. Sektore sozialean berariaz aipatu behar da Eusko Jaurlaritzak eta Bilboko Udalak elkarrekin antolatutako migrazio eta asilarako Euskal Itunaren eguna.

Azkenik, nabarmentzekoa da Azkuna Zentroa agertoki gisa finkatu dela zinema, telesailak edo dokumentalak filmatzeko, Bilbao Bizkaia Film Commission-en eskutik. Bizkaian, sektore horren eragin ekonomikoa hazten ari da 2022tik, Azkuna Zentroa gune enblematiko gisa kokatu da bertan, eta nabaria da lokalizatzaileen eta ekoizleen eskaeren gorakada. 2023an, Helena Tabernaren "Nosotros" film luzearen parte bat filmatu da zentroan, baita "Acoustic Home"ren hirugarren denboraldi-ko ataletako bat ere, HBO eta Primeran-entzat.

Ekitaldien adierazle generikoei dagokienez, urtaro jakin batzuei lotu-lotu eginda daude oraindik, eta ikasturteko aldietan metatzen dira gehienbat: irailaren 15etik abenduaren 15era eta otsailaren 15etik ekainaren 15era. Jasotzen ditugun alokairu-eskaera guztien herena, gutxi gorabehera, ekitaldian gauzatzen da. Bezeroen ehuneko handi batek urtero errepikatzen du gure instalazioetan, eta badakigu bezero potentzial askok ezagutu gaituztela publiko gisa joan diren ekitaldietan. Ildo horretan, jaso ditugun balorazioek nabarmentzen dute berezitasuna, kokapena, malgutasuna eta aholkularitza eta zerbitzu teknikoak.

# Espazioak

## ATRIOA

Kulturen ataria, eguzkiaren pantaila handiaren azpian dagoen Ataria da Zentroak duen espaziorik zabalena. Erabilera anitzeko espazio honetatik, azkuna zentroko hiru eraikinei eusten dieten 43 zutabeak ikus daitezke.

Aulki argitsuak eta Argizuloa espazioak, Kulturen Atarian daude, eta 300 eta 500 laguntzako edukiera dute, hurrenez hurren; beraz, espazio ezin hobeak dira lunchak, koktelak, gala-afariak, aurkezpenak, kontzertuak eta abar egiteko.

Topaketa gunea, 800 laguntzako edukiera du, igerilekuaren azpian, toki ezin hobean kokatua, Kulturen Atarian, gunea apropos-aproposa da lunchak, koktelak, gala-afariak, aurkezpenak, kontzertuak eta abar egiteko

Atarian dauden Fernández del Campo, Iparraguirre eta Urquijo aretoek argi naturala dute, kalera begira dauden leihoei esker. Balio anitzeko gunek dira, eta, haietan, bilerak, jardunaldiak, tailerrak, hitzaldiak eta abar egin daitezke.



BASTIDA policy club

## LANTEGIA ETA KUBO BALTZA

Lantegia 1 espazio bakana, hiriaren erdian kokatua, sabaia altuera bikoitza du bereizgarri, eta aukera ugariak ematen ditu. Espazio gardena eta erabilera anitzekoa, egoiki-egokia inaugurazioak, gala-afariak, harrerak, hitzaldiak, kontzertuak etab. egiteko. Lantegia eraikineko lehen solairuan dago, eta sarrerako harrera-lekua eta komunak ditu gunearen barruan. Aretoak altuera bikoitza du, espazioa zatitzeko aukera ematen du eta sabaiko panelak ditu akustika optimizatzeko.

## AUDITORIOA eta BASTIDA ARETOA

Koadro gisa markoan sarturiko agertokia da Azkuna Zentroko Auditorioaren bereizgarria, izaera pertsonala ematen diona. Besaulki-patioak ikuspen bikaina du, eroso-erosoa da, eta aukera ematen du kultura- eta enpresa-ekitaldi ugari egiteko, hala nola biltzarrak, kontzertuak, sari-banaketak, aurkezpenak edo hitzaldiak. Akustika ezin hobea da, eta ikus-entzunezko ekipamendu osoa, aldagelak eta itzulpen-gelak ditu. Hain zuzen, honako hauek ditu: 3 itzulpen-kabina, 2 VIP kamerino, 2 koru-kamerino.

Bastida Aretoan diseinua eta falka moduko forma nabarmentzen dira, goranzko norabideko alboko plakez apaindua. Areto honek omenaldia egiten dio hasierako alondegia egin zuen Ricardo Bastida arkitektoari. Espazioak itzulpen-, streaming- eta grabazio-ekipoa du.

Aukera-aukerakoa da jardunaldiak, prentsaurrekoak, aurkezpenak eta abar egiteko. Aretoak hall handi bat du, akreditazio-mahaia jartzeko egokia, bertaratzen direnei harrera egin eta coffe break-ak, lunchak eta abar egiteko.

# GOLEM ALHÓNDIGA ZINEMAK

304.489

ikusle

505

film programatu

8.211

saio

12

jaialdi

Golem Alhóndiga zinemek 8 proiektzio-areto dituzte, eta edukiera osoa 1.246 pertsonarentzat da. Golem Zinemen programak batera uztartzen ditu zinema komertziala, interes sozialeko ziklo monografikoak eta Azkuna Zentroko ikus-entzuleen komunitate desberdinen beharrei eta interesei egokitutako saioak. Estrategia horretan, hauek nabarmentzen dira, besteak beste: igande eta jaiegunetako zinemako goizeko saioak, haurtxoak dituzten gurasoentzako saio bereziak eta haurrentzako emanaldi bereziak



# Programazioa

2023an 505 film proiektatu dira, 8.211 saiotan. Programazio horri jaialdi, programazio berezi eta eduki alternatiboek eskaintako saioak gehitu behar zaizkio.

Golem Alhóndiga zinematik funtsezko guneak dira Azkuna Zentroak programatutako jarduerak egiteko, hala nola Zinemateka eta Laida Lertxundik egindako proposamen artistikoa. Honako jaialdi hauen egoitza ere bada: FANT, Bilboko Zinemaldi Fantastikoa; Zinebi, Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdia; 'Film Sozialak' Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdia; Zinemakumeak Gara!; Zinegoak, Bilboko Nazioarteko Gaylesbotrans Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdia, Mendifilm, Sail in Tour eta elkarbizitzarako zinemaren erakustaldia; Emakumeen karabana.

## Golem Alhondiga jarduerak

Zine komertzialaz, Azkuna Zentroko Zinematekaz eta hiriko jaialdiez gain, Golem Alhóndigak programazio bereziak jarri ditu martxan aurten:

**Zuzendarien ziklo monografikoak:** Zuzendari handien filmografia berrikustea.

**Filmak modu birtualean aurkeztea:** Aretoan proiektatutako bideokonferentziei esker, sortzaileek filmak aurkeztu ahal izan dituzte.

**Golem Arte:** Zinema dokumentalaren zikloa, museo handietako barrualdeak eta historiako artista onenen lanak hurbiltzen dizkiguten film zoragarriekin.

**Golem Uda:** Udako hilabeteetako film zikloa, Zinematekaren lekukoa hartzen duena; denboraldian zehar estreinatutako proposamenik erradikalenak sartzen dira eta beste aukera bat ematea merezi dutenak.

**Haurrentzako Zinema (euskaraz):** Ikasleentzako zinema Itundutako goizeko saioak ikasleentzat. Euskarazko proiektzioak.

**Ikasleentzako saio bereziak:** Itundutako goizeko saioak ikasleentzat. Gaztelania eta Jatorrizko bertsioko proiektzioak.

**Igande eta jaiegunetako goizeko saioak:** Familia-zinemari eskaintakoak.

# OSTALARITZA

Grupo Fielato da Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko jatetxe-zerbitzua kudeatzen duen enpresa. Jatetxeak 4 gune eta catering zerbitzua ditu, Zentroarekin duen sinergiaren indargunea.

## Yandiola jattetxea

Bigarren solairuan dagoen jattetxeak tradizioa eta abangoardia uztartzen dituzte jakiak eskaintzen ditu, zapore klasikoak, berrikuntza-ukitu batekin, bai bilbotarrarentzat, bai sukaldaritzaren modernoa baina sustraia dastatu nahi duen bisitariarentzat.



Restaurante Yandiola

---

# Terraza

Zentroaren goialdean dago, eta hiriko lekurik pribilegiatuenetako bat da, egoera ezin hobean kokatua. Ekitaldi eta jai partikularretarako gune berezia, urte osoan zabalik.

---

# Holabar

Atarian dagoen gunea modernoa eta sofistikatua da, solairu bakar batean hainbat giro bereizten dituena. Eskaintza ezin hobea da eguneko edozein ordutan jateko, gosaltzeko, aperitiborako edo osasuntsu, azkar eta prezio onean jateko.



Hola Bar

---

# The Boar

Pub ingelesaren eta taberna peto-petoaren arteko erdibidean, The Boar-ek proposamen ausarta eskaintzen du, giro informalekin, kontsumo-modu berrietara egokitua.



The Boar



# CONSEJO DE ADMINISTRACIÓN

## OHOREZKO PRESIDENTEA

Juan Mari Aburto Rique Jn.  
Bilboko alkatea

## PRESIDENTEA

Gonzalo Olabarria Villota Jn.

## PRESIDENTEORDEA

Eider Inunciaga Serna And.

## KONTSEILARIAK

Marta Ajuria Arribas And.  
(EAJ-PNVren ordezkaria)

Luz Angélica Orozco Gómez And.  
(EH-BILDUren ordezkaria)

Nora Abete García And.  
(Socialistas Vascos PSE-EEren ordezkaria)

Esteban Goti Bueno Jn.  
(PPren ordezkaria)

Xabier Jiménez López Jn.  
(Elkarrekin Bilbao-Podemos / Ezker Anitza-IU / Equo Berdeak-en ordezkaria)

## TOKIKO GOBERNU BATZARREKO ESKUORDE'TUTAKO ORDEZKARIAK:

Nekane Alonso Santamaría And. (EAJ-PNV)

Iñaki López de Aguilera Díaz Jn. (EAJ-PNV)

Josune Albaina And. (EAJ-PNV)

Belén Greaves Badillo And. (EAJ-PNV)

Ekain Rico Lezama Jn. (PSE-EE)

Borja Vázquez Fontao Jn. (PSE-EE)

# AZKUNA ZENTROKO TALDEA

**Fernando Pérez.** Zuzendaria

**Estibalitz Aldana.** Zuzendariaren Laguntzailea

**Rakel Esparza.** Kultur Programazioko Arduraduna

**Ainara Bilbao.** Kultura Programazio eta Hezkuntzako Teknikaria

**Marina Urrutikoetxea.** Kultura Programazio eta Hezkuntzako Teknikaria

**Iraia Olea.** Kultura Programazioko Admnistraria

**Alasne Martín.** Mediateka BBK-ko Arduraduna

**Sonia Marcos.** Mediateka BBK-ko Prozesu Bibliografikoetarako Teknikaria

**Itziar Ijalba.** Komunikazioko Arduraduna

**Maite Arberas.** Komunikazioko Administraria

**Bárbara Epalza.** Marketing Arduraduna

**Leire Sarasola.** Marketineko eta Ekitaldietako Teknikaria

**Jol Gisasola.** Erabiltzaileen Arretarako Arduraduna

**Jorge Landa.** Zerbitzu Orokorren Arduraduna

**Galder Fernández-Vega.** Zerbitzu Orokorren Teknikaria

**Borja Basagoiti.** Administraria

**Iraide Usategui.** Administraria

**Koldo Elorrieta.** Aktibitate Fisikoko Arduraduna

**Iñaki Ayala.** Mantenimendu eta Logistika Arduraduna

**Sandra García.** Mantenimendu eta Logistika Teknikaria

**Unai Ugarriza.** Telekomunikazioak eta Sistemak Arduraduna

**Sonia del Val.** Finantza Goi-mailako Teknikaria

# Eskerrik asko!

Eskerrak eman nahi dizkiegu, lurraldearekin duten konpromiso sozialetik, laguntzen diguten erakunde pribatu eta publikoei, gizarte kultura garaikidearekin lotzeko dugun eginkizunean.

Sare irekia gara artearen bidez gizarte sortzaileagoa, kritikoagoa eta anitzagoa sortzen laguntzen duen proiektu batean parte hartu nahi duten erakunde guztientzat.

## Bilboko Udala

### BABESLE ESTRATEGIKOA

BBK Fundazioa

### ERAKUNDE BABESLEAK:

Fundación Banco Sabadell • Grupo Urbegi • Volotea

### HEDABIDE LAGUNTZAILEAK

El Correo • Deia • Berria • Gara • El País • eldiario.es • El Mundo • Periódico Bilbao • RTVE • EITB • Hamaika Telebista • TeleBilbao • Cadena Ser • Onda Vasca • BIFM • Cactus • Noiz Agenda • Kmon • Aux Magazine • Teatron • VeryBilbao

### LAGUNAK DIREN INSTITUZIOAK

Eusko Jaurlaritzak • Bizkaiko Aldundia • British Council • Cuerpo Consular de Bilbao • Centro Checo • Embajadas de Noruega, Australia, Canadá, Estados Unidos, Francia, Irlanda, Países Bajos, Rusia, Suecia • Goethe Foundation • Institut d'Estudis Balàrics • Etxepare Euskal Institutua • Foro Cultural Austria • Goethe Institut • Institut Français • Instituto Italiano de Cultura • Japan Foundation • NORLA • Pro Helvetia • AECID • INAEM • Academia de España en Roma • Creative Europe (EU) • Comisión Europea, Next Generation

### UNIBERTSITATEAK

Euskal Herriko Unibertsitatea / Universidad del País Vasco • Mondragon Unibertsitatea / Universidad de Mondragón • Universidad de Deusto • Oulu University • BCU Birmingham University • Digipen • Instituto de Estudios de Ocio • Harrobia • Saxion University of Applied Sciences • Academy for Theatre and Digitality

### LAGUNAK DIREN PROGRAMAK

ACuTe • Basque Fest • Berbagune • Bilbao Bizkaia Design Week • Bilbao Música • Bilbao Orkestra Sinfonikoa • Bilbao Proyecto Zine Eskola • Bilbao Udazkena • BIME • Dantzaldia • Dantzan Bilaka • Dantzerti • Elías Querejeta Zine Eskola • Euskaraldia • Festival Dok • Festival Internacional de Cine y Artes Escénicas gaylesbotrans de Bilbao - Zinegoak • Festival de Cine Fantástico de Bilbao - FANT • Festival Internacional de Cine Documental y Cortometraje de Bilbao - Zinebi • Film Sozialak - Festival Internacional Cine Invisible Bilbao • Gau Zuria • Loraldia • Musika Musika • Mitusu • Zinemakumeak Gara! • Zinexit. Muestra de cine y derechos humanos • Zinemagileen artean - Caravana de cine realizado por mujeres • Zinemaldia. Festival de Cine de San Sebastián

### LAGUNAK DIREN KULTURA-ZENTROAK

Ars Electronica • Art Divas • ArtistaXArtista • Artium • CAPC Musée d'Art Contemporain de Bordeaux • Casa América • Centre de Cultura Contemporània de Barcelona - CCCB • Centro Cultural Montehermoso • Centro de Arte Dos de Mayo - CA2M • Centro Gallego de Arte Contemporáneo - CGAC • Cité de la Bande Dessinée • Coleccion BEEP Epon • Dansateliers • De Toneelmakerij • Det Norske Teatret • Dortmund-U • Estonian Academy of Arts • European Theatre Convention • Euskal Museo Museo Vasco • Filmoteca Vasca • Fondation Cartier • IVAM • La Casa Encendida • Landestheater Linz • Liechtenstein National Museum • L'image de Angoulême • Maison de la Littérature Québec • MARCO - "Marin Sorescu" National Theatre of Craiova • Museo de Arte Contemporáneo de Vigo • Matadero Madrid • Mercat de las Flors • MUSAC • Musée de Picardie • Museo de Bellas Artes de Bilbao • Museo de Reproducciones de Bilbao • Museo Guggenheim Bilbao • Museo Oteiza • Museu d'Art Contemporani de Barcelona - MACBA • Red Española de Teatros • San Telmo Museoa • Sarea • Schauspielhaus Graz • SFMoma • Slovene National Theatre Nova Gorica • Tabacalera - Promoción del Arte • Tabakalera • Teatro Arriaga • Théâtre de Liège • Van Abbemuseum • ZKM Zentrum Für Kunst und Medien

### ENPRESA ESLEIPENDUNAK

UTE Alta Seguridad SA, Alse Serv. Aux. SL y Sekoop. • Zosmamedia S.L. • Logintegral Express S.L. • Iberdrola Clientes, S.A • Viajes el Corte Inglés S.A. • Euskaltel, S.A • i2C Internet S.L. • Giroa S.A.U • Urbegi Servicios Auxiliares S.L.U • Binario libros S.L. • Bizkaiko Elkar S.L • Louise Michel Liburuak Koop.Elk.Txikia • Lanalden S.A. • Portal 71 Producciones Culturales S.L • Giroa S.A.U • Telesonic S.A.U • Transportes y Servicios Josetxu Galarza S.A. • Ibermatica S.A. • Solitium S.L. • Margarita Rodriguez Meoro • George y Mildred Sociedad Coop. • Acerca Comunicación Cultural S.L. • Artes Graficas Irala S.L. • Imprenta Garcinuño S.L. • La Trama Digital Print S.L. • Grafo S.A. • Producciones Mic, S.L. • Sport Studio Servicios Deportivos S.L. • Teknei Digital S.A.U • Deusto Seidor S.A.